

EGĀN



1-6

1973

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SUMARIO

| | <u>Págs.</u> |
|---|--------------|
| PABLO NERUDAREN POEMA BATEN ITZULPEN POLEMIKOA: Ibon Sarasola | 3 |
| ANTONIO VALVERDE "AYALDE" RI BURUZ BI ITZALDI: M. Le- kuona | 12 |
| PSIKOLOJIA ALORREAN PIZKUNDE AINTZINDARI: HUARTE DONIBANEKO: Isidoro Fa- goaga. Trad. Yon Etxalde | 24 |
| BIZKOR ORVILLE, HIZT-GURUTZATUEN AITA: R. Bouzas- Urrutia | 32 |
| IKASTOLEN CORSO BAT IRU-NEKO NORMALEAN: A. Apat Etxebarne | 35 |
| HAURREN ETA GAZTETXOEN PSYKOLOGIAZ: Jesús M. ^a Arrie- tak | 41 |
| JAN EDANAK: A. A. | 60 |
| GABON JANARIAK FOLKLOREAN: Juan San Martín | 64 |
| IPUINAK: Iñaki Lete | 68 |
| UDAZKEN KANTA: Patxi Goenaga | 71 |
| OLERKIAK: Iñaki Lete | 76 |
| LEHENA TA ORAINA: Anastasio Esnaola | 78 |
| ADABAKIAK: J.S.M. | 105 |
| KONTU KONTARI: Iñaki Lete | 108 |
| LIBURUAK: J.S.M. | 110 |
| ONAINDIA-REN EUSKAL LITERATURA LIBURUA: A. Irigaray | 113 |
| 1973 URTEKO OSPATZEAK: J. San Martín | 118 |

DIRECCION Y REDACCION:

A. Arrue, A. Irigaray y L. Michelena

EGAN

En cumplimiento de cuanto establece el Art. 24 de la Ley de Prensa e Imprenta, se hace constar los nombres de las personas que constituyen los órganos rectores de la publicación EGAN, del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", de la Excm. Diputación de Guipúzcoa.

DIRECTOR: Luis Michelena.

CONSEJO DE REDACCION: Angel Irigaray, Antonio Arrue y Luis Michelena.

DEPÓSITO LEGAL: SS. 289 - 1958

Impreso en Gráficas Colón, - P.º Colón, 4, S. S. - Diciembre 1973

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca

Vol. XXXIII

Enero-Diciembre, 1973

Pablo Nerudaren poema baten itzulpen polemikoa

Zenbaitek garbizaletasun, zenbaitek garbizalekeria eta zenbaitek purismo deitzen duten mugimenduak, mendez-mende irauten zuen literatur-tradizio bat apurtu zuen. Literatur-tradizio hau mendez-mende areagotuz zihoan euskal literaturaren deskulturizazio-prozesu baten ondorioz oso ahuldurik aurkitzen zen 1900 inguruan, eta gertaera honek lagundu egin zuen lehen aipatu dugun apurketan. Baina purismoak, nahiz prestijioaren mailan arrakastaren bat lortu zuen, ez zuen lortu (ez eta ere serioki ahalegindu) euskara kultur-hizkuntza bat bilakatzea, eta eraiki zuen hizkuntza literarioa, zaharra baino desegokiagoa eta ahalmen gutiagokoa agertu zen bere eginkizunean. Horregatik, argi ikusi da azken urte honetan, euskera serioki kultur-hizkuntza bilakatu nahi denean, tradizio zaharrera itzultzeko beharra. Hildo honetan, gaurko literatur-hizkuntza bereganatuz doa zaharrrak zituen alde positiboak, ortografian, deklinabidean eta batez ere hiztegi mailan. Baina joskeraren eta sintaxisaren mailan (beharbada mailarik premiatsuenean) ezer gutxi egin da. Euskaraz idazten duen orok ongi daki maila horretan aurkitzen dituen behaztopa izugarrien berri. Baina batasunaren eta kultur-hizkuntzaren ordu honetan literatura zaharrek gauza asko irakats diezakegu, ez soilik hitzei dagokion puntuan baizik are sintaxisari dagokionean.

Nere saio honek, igaz egin nuen *Kandidorenak* bezala, sintaxis zaharrak izan dezazkeen abantailak kasu konkreto batetan ager-araztea da. Euskal sintaxis zaharrean ez da dena on eta egoki gaur eguneko literatur-estilo guzietarako. Horrek ez du esan nahi, egin dugun bezala (aho-hizkuntzaren joskera omen dena literatur-hizkuntzari osoki ezarri nahiz), hura guztiz baztergarria denik.

Gure saiorako, Pablo Neruda hego amerikar poeta hil-berriaren *Canto Generaleko* VII zatiko poema bat hautatu dugu, gure itzulpean aurkitu ditugun behaztopoak eta hautatu ditugun soluzioak adieraziz. Batek baino gehiagok, hori ez dela euskal-joskera esan duke. Baina kontua hain zuzen hau da: «erdal-joskera» errespetatzen ez duen erdal poema guztiz zail baten itzulpenak ekartzen dituen zenbait kuestioz eztabaidatzea.

Hona poemaren texto orijinala:

OCEANO Si tu desnudo aparecido y verde,
si tu manzana desmedida, si
en las tinieblas tu mazurca, dónde
está su origen?
Noche
más dulce que la noche, sal
madre, sal sangrienta, curva madre del agua,
planeta recorrido por la espuma y la médula:
titánica dulzura de estelar longitud:
noche con una sola ola en la mano:
tempestad contra el águila marina,
ciega bajo las manos del sulfato insondable:
bodega en tanta noche de invasión y sonido,
catedral enterrada a golpes en la estrella.

Hay el caballo herido que en la edad de tu orilla
recorre, por el fuego glacial substituido,
hay el abeto rojo transformado en plumaje
y desecho en tus manos de atroz cristalería,
y la incesante rosa combatida en las islas
y la diadema de agua y luna que estableces.
Patria mía, a tu tierra
todo este cielo oscuro!
Toda esta fruta universal, toda esta
delirante corona!
Para ti esta copa de espumas donde el rayo
se pierde como un albatros ciego, y donde el sol del Sur
se levanta mirando tu condición sagrada.

- 1) Si tu desnudo aparecido y verde,

Baldin perpausaren hasieran ezartzen dugu, joskera zaharraren eta mugaz bestaldeko gaurkoaren arauera. Hala erabiltzen zen Gipuzkoan bertan aurreko mendeetan eta hala erabiltzen dute ere gaurko zenbait idazlek: *ekartzen baldin badu gabe, baldin ekartzen badu*. Gainera, Nerudaren poeman aditza falta delarik ezin daiteke beste modutara itzul. *Desnudo* adjektiboak sustantibo bezala funtzionatzen du textoan. Horrela eginen dugu guk ere. Dena dela bi posibilitate geratzen zaizkigu ahapaldia itzultzeko: *Baldin zure biluzia agertua eta berdea* ala *Baldin zure biluzi agertua eta berdea*. *Desnudo* eta *aparecidoren* artean komarik ez baita agertzen, bigarren moldea hautatu dugu azkenean. Ahapaldia horrela geratzen da:

Baldin zure biluzi agertua eta berdea,

- 2) si tu manzana desmedida, si

Baldinen problema aurreko puntuan erabaki dugularik, zati honek ez du ezer berririk planteatzen, *desmedidaren* itzulpena ezik. Hitez-hitezko euskaratze bat egiten saiatzen garelarik eta *desneurrik* erdarakoaren sentsua ez duela ikusirik, emerjentziako soluziobide bezala *neurritz gaineko* hautatu dugu, *izugarriren* sentsua gordatzen duelako, eta, *neurriren* bitartez *desmedidoren* oihartzun semantiko eta formalak ez dituelako galtzen. *Baldineri* buruz erabaki dugunak poemaren estruktura errespetatzea permetatzen digu, autoreak ahapaldiaren akabantzan (hurrengoaren hasieran ezarri beharrean) ezarri duen *si* horren balio poetikoa galdu gabe. Ahapaldia honela geratzen da:

baldin zure sagar neurritz gainekoa, haldin

- 3) en las tinieblas tu mazurca, dónde
está tu origen?

Zatiaren problema bakarra *estáren* itzulpenean datza. Beharbada intuizioz, *da* aukeratu dugu:

ilunpetan zure mazurka, non
da zure etorkia?

- 4) Noche
más dulce que la noche,

Lehendabiziko *nochea* mugagabe uzten dugu, bigarrena mugatuz. *Dulce* itzultzeko *gozo* erabili dugu, *dultzeren* literatur-tradizio guztiz apurra gogoan harturik. *Gaua baino gozoagoa* perpausak, adjektibo bezala funtzionatzen du. Beraz, sintaxis zaharrean guztiz usu zen molde bat erabiliaz sustantiboaren ondoan ezartzen dugu. Sintaxis zaharrean joera bat nabari da, adjektiboak beti sustantiboaren atzean joan behar duela dion erregela talde adjektibaletara hedatzen duena. Horrela Axularrek, «memorio handi bat, borondate *onera, ohorera, eta prestutasunera erori* bat» (Gomendiozko karta) (1). Horrela gaur egun erabiltzen diren konstrukzio aldrebes eta astunak baztertzen ditugu, adibidez, «gaua baino gozoago(a) den gau(a)». Ahapaldia honela geratzen da:

Gau
gaua baino gozoagoa,

- 5) sal
madre, sal sangrienta, curva madre del agua,

Poemaren sentsuak ematen digu aditzera *sal gatz* bezala itzuli behar dela eta ez *atera zaite* bezala. Bestalde, *madrek* adjektibo bezala funtzionatzen du. *Curva* itzultzeko kurba hautatu dugu, *makur* orain arte adjektibo bezala erabilia izan denak ez duelako oraino sustantibo bezala nahiko tradizio, eta normalki sustantibo den *ama* adjektibatu baten aurrean ahapaldiaren sentsua asko ilunduko luke. Beraz:

gatz
ama, gatz odoltsua, uraren kurba ama,

- 6) planeta recorrido por la espuma y la médula:

4) zatiko kasu berbera aurkitzen dugu, joserak adjektibalari dagokionez. *Aparrak eta muinak* eta ez *aparrak eta muinak*, idazten dugu, lendabizikoa delako dudarik gabe formarik jatorrena. *Recorrido* itzultzeko *ibili* aktiboa hautatu dugu, *errekorraturen* literatur-tradizioaren faltaz ohaturik.

planeta aparrak eta muinak ibilia:

(1) Erregela honen salbuespen bakarra Etxeberri Ziburukoaren obran aurkitzen da non nahiko erabiliak baitira "trebe moldez" erako joskerak. Baina joera ez zen literatur-tradizioira iragan.

7) titánica dulzura de estelar longitud:

Perpauza honek problema asko sortzen du. *Dulce* esateko gozo aukeratu dugularik, *dulzurarako gozotasun* hautatu dugu. *Estelar* itzultzeko *izartiar* pentsatu genuen lehenik, bina egokiago iruditu zaigu *izar-* erabiltzea. Perpauza honela gera daiteke: *gozotasun tita-niko izar-luzerazkoa*. (*Titan-gozotasun* ere erabil zitekeen baina bere-hala baztertu dugu). Azkenean, eta euskal bertsioan orijinalak ez zuen aurreko ahapaldiarekiko kidetasun erritmiko bat agertzen delarik, honela utzi dugu:

izar-luzerazko gozotasun titanikoa:

8) noche con una sola ola en la mano:

5) eta 7) zatitan erabili ditugun arrazoi berberetatik honela itzuli dugu:

gau uhain bakar batekin eskuan:

9) tempestad contra el águila marina,

8) zatian bezala, *itsas-* hautatu dugu *marina* emateko. Ahapaldia honela itzul daiteke: *itsas-arranoaren kontrako ekaitz*. Baina aurreko ahapaldietan nabari den erritmoa errespetatu nahiz, sustantiboa aurrean ezarri dugu:

ekaitz itsas-arranoaren kontra,

10) ciega bajo las manos del sulfato insondable:

Ahapaldi honetan beste arrazoi bat aurkitzen dugu aurrekoetan erabili dugunaren alde: *ciega* textoan adjektiboa da eta *aguilari* dagokio. Beste ordenak tarte handiegi bat uzten zuen hurbil egon behar duten elementuren artean. *Ciega* ezin dugu *itsuren* bidez itzul, euskaraz, jeneroaren marka falta delarik, sustantibotzat har dedin arriskua baitago. Ezinbestean, *itsurik* hautatu dugu. Dena dela, anbiguitatea ez da euskal textoan gairatzen, zeren honen analisis gramatikaren arauera, *itsurik* berdin dagokioko *ekaitzi* nahiz *arranori*. Berrez, ahapaldi honek aurrekoaren barnean, *ekaitz* eta *itsas-arranoren* artean joan beharko luke. Baina orduan «aurkitzen du», «dagoen» edo horrelako sostengarriren bat beharko litzake, texto orijinalan

aurkitzen ez dena eta poemaren estruktura eta balio osoa kolokan uzten duena. Itsas-arranoaren ondoan, multzo adjektibal bezala, ezin dezakegu kasu honetan jar, *kontrak -ren* sufinoa eskatzen baitio hari.

Argi ikusten dugu itzulpenaren ahultasuna puntu honetan, baina ez dugu soluzio egokiagorik aurkitzen:

itsurik sulfato sondagaitzaren eskuen pean:

- 11) bodega en tanta noche sepultada,

Aurreko zatietan esanaren arauera horrela geratzen da:

bodega hainbeste gau ehortzitan,

- 12) corola fría toda de invasión y sonido,

Todaren funtzioa ilun geratzen da orijinallean. Iluntasun hau itzulpeneratzeke *dena* aukeratu dugu lehenik. Baina erlatiboaren forma sustantibatutzat har daitekeela gogoan harturik, *osorik* hautatu dugu:

korola hotza osorik inbadiketaz eta soinuaz,

- 13) catedral enterrada a golpes en la estrella.

Ahapaldiak ez du problema berririk sortzen. *Enterrado* itzultzeko *lurperatu* aukeratu dugu, *neurritz gaineko*-ri buruz aipatu ditugun arrazoiak gatik:

katedral kolpeka izarrean lurperatua.

- 14) Hay el caballo herido que en la edad de tu orilla
recorre, por el fuego glacial substituido,

Hay hau itzultzeko, texto orijinalari ezartzen dion anbiguitate-giroaz oharturik, *ba da* aukeratu dugu. Berezirik idazten dugu, Euskaltzaindiaren gomendioaren kontra (nahiz haren esanetara etortzen saiatzen garen beti), kasu honetan *bada* konjuntzioarekin eta are kondizionalarekin nahas daitekeelako, textoak mostrapen duen agramatikaltasunaren ondorioz. Bestalde, *recorre* aditzak eskatzen duen objekto direktoa (edo zenbaiten sinbologian SN₁ delakoa) ez da textoan ageri. Euskal itzulpenean agramatikaltasun-faktore honek ezartzen duen anormaltasun-giroa areagotu egiten da, *recorrer* itzultzeko

aukeratu behar izan dugun *ibili du* espresioak duen tradizio urria gatik. Halaber, *por el fuego glacial sustituido* perpausak ez du marka formal esplizitorik agertzen *gatik* ala *barna* baten aurrean ote gauden jakiteko. Textotinguruaren sentsua gatik, intuitiboki bigarren ikuspegia hautatu dugu. Lehen ahapaldiko erlatiboa euskaratzeko, kasu honetan, *-n* sufixoa aukeratu dugu, baina perpausa erlatiboa sustantiboaren ondoan ezarririk, arrazoï erritmikoren gatik. *Sustituido* itzultzeko ezinbestean *aldatu* erabili dugu, nahiz orijinalakoa baino jeneralagoa (eta, beraz, ez-espresiboagoa) den. *Glacialentzat*, *estelar* eta *marinarentzat* esana erabili dugu. Perpausa honela geratzen da:

Bada zaldi zauritua, zure ertzaren adinean
ibiltzen duena, jela-su aldatua barna,

15) hay el abeto rojo transformado en plumaje

Transformado itzultzeko, Urretavizcaya eta besterekin, *itzuraldatua* erabili dugu, nahiz hitz hau *tranfigurado* (Duvoisin) eta *metamorfoseado* (Kintana eta beste) ere den. Ez dugu esan nahi, noski, euskal-hitz bakoitzak bere erdal itzulpena izan behar duenik. Salatu nahi duguna zenbait euskal hitzen hedadura semantiko zabalegia da, hizkuntzari zenbait alorretan (asko matizatzea eskatzen duten alorretan hain zuzen) matizatzeo ahalmena ahultzen diona. Ahapaldia, *lumaian itxuraldatutako abeto gorria* eta horrelako konstruzioak eskatzen dituzten sufixoen astuntasuna baztertuz, honela geratzen zaigu:

bada abeto gorria lumaiian itxuraldatua

16) y desecho en tus manos de atroz cristalería,

Atroz itzultzeko ezinbestean krudel erabili dugu. Ahapaldi honetan euskal bertsioan sortzen diren anbiguitateak baztertzeo orden hau hautatu dugu:

eta kristaleria krudelezko zure eskuetan desegina,

17) y la incesante rosa combatida en las islas

Incesantek, gorago aipatu ditugun problemak sortzen ditu. Ezinbestean, *cesar* itzultzeko, *bukatu* edo horrelako zerbait gabe, *gelditu* hautatu dugu, nahiz egiten dugun mozqueta semantikoaz ohartzen garen, ez dugulako hoberik aurkitu. *Combatidarentzat*, *guduren* literatur-tradizio ukaezina gogoan edukirik, *gudukatu* erabili dugu, Etxeberri Ziburukoak eta bestek bezala. Ahapaldia honela geratzen da:

eta arrosa geldigaitza isletan gudukatua

- 18) y la diadema de agua y luna que estableces.

Estableces itzultzeko *ezarri* hautatu behar izan dugu. Bestalde, euskal bertsiotan sortzen den barne-errima apurtzeko (orijinalean agertzen ez baita), orden hau aukeratu dugu:

eta ezartzen duzun ur eta ilargizko diadema.

- 19) Patria mía a tu tierra
todo este cielo oscuro!

Orijinaleko berezitasun sintaktikoa euskarapenean begiratzeko, multzo indirektoarentzat (zenbaiten sinbologian, SN₂) haren ordena errespetatzen dugu. *Todo oso* itzuli dugu, noski:

Aberri nirea, zure lurrari
zeru ilun oso hau!

- 20) Toda esta fruta universal, toda esta
delirante corona!

Lehendabiziko *todoa*, intuizioz, *guztiren* bitartez itzuli dugu. *Delirantek* problema soluzionagaitz bat ekarri digu. Azkenean, eta nahiz aitortzen dugun hitzaren literatur-tradizio gabezia osoa, *delirant* hautatu dugu. Perpaua ahapaldietan ebakia geratzen da eta halaber euskal itzulpenean nahiz ez era berean:

Fruta unibertsal guzti hau, koroe delirant
oso hau!

- 21) Para ti esta copa de espumas donde el rayo
se pierde como un albatros ciego, y donde el sol del Sur
se levanta mirando tu condición sagrada.

Copa de espumasek anbiguitate semantiko ba agertzen du; ez dakigu kopa «aparrez egina» ala «aparrez betea» den. Nerudaren poemagintzaren sentsuak lehen posibilitatea hartzera bultzatzen gaitu. Orijinalaren erritmoa eta balio poetikoa gordatzeko soluziobide bakar bezala, non erabiltzen dugu bi perpaua subordinatuak itzultzeko. Joera hau literatura zaharreko nabarienetatik bat da eta Li-zardi, euskal poeta handiaganaino heltzen da: Adibidez *Ondar go-*

rrin, haren poema gorenen laugarren partean: «Itsasoak bai-baitu [...] / [...] / legor bat [...] / Eguzki nondik sar atsedenean...»
Zatia honela itzuli dugu:

Zuretzat aparrezko kopa hau non arraioa
galtzen baita albatros itsu bat bezala, eta non Hegoko eguzkia
jeikitzen baita zure izaera sakratuari behatuz.

Hona poema osoaren itzulpena:

OZEANO Baldin zure biluzi agertua eta berdea,
baldin zure sagar neurritz gainekoa, baldin
ilunpetan zure mazurka, non
da zure etorkia?
Gau
gaua baino gozoagoa,
ama, gatz odoltsua, uraren kurba ama.
planeta aparrak eta muinak ibilia
izar-luzerazko gozotasun titanikoa:
gau uhain bakar batekin eskuan:
ekaitz itsas-arranoaren kontra,
itsurik sulfato sondagaitzaren eskuan pean:
bodega hainbeste gau ehortzitan,
korola hotza osorik inbadiketaz eta soinu,
katedral kolpeka izarrean lurperatua.

Bada zaldi zauritua, zure ertzaren adinean
ibiltzen duena, jela-su aldatua barna,
bada abeto gorria lumaian itxuraldatua
eta kristaleria krudelezko zure eskuetan desegina,
ata arrosa geldigaitza isletan gudukatua
eta ezartzen duzun ur eta ilargizko diadema.
Aberri nirea, zure lurrari
zeru ilun oso hau!
Fruta unibertsal guzti hau, koroe delirant
oso hau!

Zuretzat aparrezko kopa hau non arraioa
galtzen baita albatros itsu bat bezala, eta non Hegoko eguzkia
jeikitzen baita zure izaera sakratuari behatuz.

IBON SARASOLA.
Bartzelonan, 1973/10.

Antonio Valverde, "Ayalde"ri buruz bi itzaldi

AYALDE EUSKALTZALE

(Itzaldia, "Actualidades" Aretoan).

1970—Abenduan
LEKUONA'TAR Manuel ' ek

Jaun eta Andreok:

Erderaz ari bagina, «AYALDE» izena, Antonio Valverde'k *inmortalizatu* egin duala esango genduke: «illezkortu» euskeraz —illezkortasun txiki bat—. «AYALDE» ori, Oyartzun'en jauregitxo baten izena da; «Aya'ko arrira» begira dagolako, ipiñi bait zion Antonio'k izen polit ori, berak egindako jauregitxoari. Ori dala-ta, izen bera artu zuan, baita, bere seudonimo idazle-izentarako ere. Gaur Ayalde esaten degun bakoitzean, gure adiskide biozkor biotzekoaren irudi ta imajiña datorkigu gogora: orain lau-bat illabete «joan zitzaigun» adiskidearen irudi bizia.

Omen-aldi bat zor genion, bere adiskide izan geranok, gure adiskideari; eta zor ori ordaintzera gatoz gaur, Donostia'ko «Aurrezki-Kutzak» ematen digun egokitasun au probetxatuaz.

Omen-aldi ontan, neri, «Ayalde euskaltzale» eman didate gai, nere itzalditxo ontarako.

El nakion, beraz, len-bait-len nere arloari.

* * *

Antonio Valverde, gizon *polifazetikoa* izan genduan. Gure adiskidearen irudiak alderdi asko zituan: *fazeta* asko: «antz» asko.

Industrial zan familiaz, aurrekoz, asiera-asieratik; industrial burutsu. Margolari zan goi-deiez, bokazioz, eta ez nola-naikoa bere egin-kizun kutun artan; zala paisaje, zala erretratu, zala folklore-margo. Eta, aizkenik, euskaltzale ta euskal-idazle zan, eta ez nola-naikoa gai ontan ere.

Azkeneko alderdi au dagokit neri ikutzea gaur, bere eriotz-urte barruan egiten diogun omenaldi merezi-merezi ontan. Lau illabete, joan zitzaigula; bañan alako utsunea utzi bait digu guztioi biotzean bere ez-ustezko joatearekin... Nik beintzat, oraindik eta oraindikan ere ez det etsitzen —ezin det etsi— berriz ikusi bear ez degunik, bere aurpegi zabal paketsuarekin, gure Euskaltzaindiaren Batzarretan, edo gure Bibliotekako eguerdiko tertulian sartzan, ixil-ixillik, parrez-parrez, beti ere berandu antxa, beti beste lanen batetik atera-berri, preokupazioren batetik igesi-naiez-edo...

Oraindikan gazte, lana beste ametsik etzuala; beti zerbait asma-tzen, zerbait berri, kulturarentzako zerbait protxugarri; bein ere ez ameslari uts... Ez-ustean alde-egin digu, bai; ez det esango *Urtsuan difuntuak* diona:

...adio erran gabe
etxetik partitua;

bañan bai guretzat utsunegarri; ain giñan, izan ere, aren bear, gau-za asko ta askotarako, kultura-gauza asko ta askotarako...

Bañan jarrai nakion nere ariari.

Bi zatitan puskatuko det nere lana:

A) Ayalde, euskaldun berri, euskaltzale;

B) Ayalde, euskal-idazle.

EUSKALDUN BERRI, EUSKALTZALE

Euskaldun berri. Ala bait zan, izan ere: gure Ayalde, jaiotzaz erdaldun zan. Bañan, bere buru argiz eta lanerako gotortasunez, euskera eskuratu eta menderatu bait zuan iñor gutxik bezela, itz-egiñaz gañera, idazle errex ta xamur izateraño.

Antonio Valverde —eta ontan dago neretzat aren meriturik aundiena— «euskaldun berri» genduan. Gurasoak, aitaldetik, etorkiñak ziran euskalerrian. Ori zala-ta, gure Antonio'ren jaiot-etxean etzan euskerarik egiten. Bañan, ori bai, ba dakigu gure mutillak betidanik pena aundi bat izan zuala, bere eskola-lagunak ziran bezela, bera jaiotzez euskaldun ez izana; pena, bai, eta inbiri santu bat, bere lagunak bezela, berak

esateko eskubiderik ez izana. Gai ontan *handikap* aundi baten azpian ikusten bait zuan ark bere burua.

Orregatik, ez da arritzeko, berak, ezkontzeko asmoa artu zuanean —bere bizitzarako eta bere seme-alabaentzako kabi bero bat egiteko asmotan sartu zanean— bere seme-alabak «euskaldun jaio zitez-en», kabitxo euskaldun-euskaldun bat eratzeko asmoa artu izatea; ez da arritzeko, bere garaiko giroak berari opa etziona, berak bere umeai opa izatea.

Eta, ain zuzen, Jaunak ala nairik, neskatxa euskaldun jator bat egin zuan andre-gai: Maria Dolorex Lamfus, lenengo abizenez alemana, bañan jaiotzez ta izatez eta biotzez euskaldun jatorra.

Euskal-familien problematikan, emazte euskaldun batek aska lezake aინbestean problematika orren korapilloa, etxeari berak bakarrik euskalduntasuna ezarriaz. Bañan gure Ayalde'k etzion orri bakarrik naiko iritzi; kabi jator batean txori-aitak eta txori-amak biok kantu ta doñu berean ezitzen bait dituzte beren umetxoak, berak ere, Antonio'k beretzat euskaldun-malla irixtea aal zuan aiñean erabaki zuan bere baitan; eta, pentsatu ta egin, ortarako bere lenengo erakusle ta Andereño, bere andre-gaia artu zuan. «Dolorex: au nola esaten da euskeraz? Euskerazko itz onek zer esan nai du?» Eta orixe izan zan, Ayalde'ren lenengo, edo obeto, bigarren pausu ta oinkada bere euskalzaletasun-bidean. Lenengoa, bere eskola-lagunentzako sentitu zuan inbiri santu ura izan bait zan; bigarrena, berriz, bere andregaiaren euskal-mallaraño igo-naia.

Irugarren oinkada, puska bat beranduago eman aal izan zuan. Ezkondu-ta andik zortzi bat urtera. Bi seme-alabaez aberastuta ikusten zuan bere etxea, bere ametsetako etxe euskalduna. Amak euskeraz itz-egiten zien aurrai; berak, ordea, ixil entzun bear aien txorrotzio eztiak. Zortzi bat urte iraun zuan gure Ayalde'rentzat bere ixillik egon-bear penagarri ark; bañan zortzigarrenean autsi aal izan zuan bere egoera lastimagarri ura. Nola? Danok dakigu. Donosti Zaarreko Ikastola ezkutu ta ixillikako batean «eskolau» xume, *dotrino*, bere burua egiñaz; *plan ultra intensiyo* esan dezakegun neurri bete-betean eta buru-belarrizko jardunean jardun-eta-jardunaz.

Danok ondotxo ezagutzen degu ixillikako ta ezkutuko Ikastola ura. Bañan ez bait dezakegu Ikastolako Andereñoaren izenik aipa, Andereñoaren beraren ortarako baimenikan gabe. Donosti Zaarreko Ikastola artan izen-eman zuan gure Antonio'k, edozein «eskolau» xume bat bait litzan; ez, ordea, *alagala* —bizkaitarrak esan oi duten bezela «alagala»— bere ikastaldiak egunak dituan ordurik onenetan

egiteko; illunduezkeroko ordu neketsuetan baizik, bere beste lanetan leer-egin ondorengo alper-orduetan; ori bai, alperrieriak ondotxo astinduta, bere lagunen batzuek kafeteriren batera joango ziran ordu nekatuetan. Ola atera bait zan, atera zan bezain «ikasle probetxatu», Donosti Zaarreko Ikastola ezkutu ixillikako artan...

Ordutsoan ezagutu nuan nik; pozik, oso pozik gizona, bere ikaskizunetan egiten ari zan aurrerapenengatik. Aurrerapen pozkarriak egiten ari bait zan, izan ere.

Euskal-aditzak, euskal-berboak eman bide zion lanik asko bere ikastaldietan: ots! euskal-aditzaren «algebra jakintsuak», Kanpion aundiak nunbait esaten duan bezela. Bañan laneren zailtsunaren neurrian erabili zuan gure Antonio'k bere lanerako adore aundia ere, zailtasun aiek menderatzeko.

Zuetan askok izango dezute, euskal-aditzaren «kurpil» famatu baten berri —gure Ayalde'k, bere Andereñoaren argibideak, berak *matematikoki* «bildu» zituan kurpil «sorgindu» bat, alegia— zuetako askok izango bait du kurpil orren aditze ta berri. Kurpil ori Inprentan egiten ari zirala ezagutu nuan nik gure laguna. Ez dakit, *elektronikazko* makina kalkulatzalleren bat zan, ala zer, makina sorgin ura: bi kurpil, bi disko, bata bestearen gañean biraka ibiltzen ziranak, baxtarreko gida txiki baten bitartez zerbait markatuta biratuaz, zirrikitu batean arkitzen bait zan automatikoki- nor-berak orduan bear zuan aditz-forma... Benetako sorginkeria...

Gauza naasi xamarra izan bear zuan bere inprentazaleentzat, nagusiaren asmo ta amets ura; nik ikusi nuanean beintzat; aietako bat gauza ezin ulerturikan bide-zebillen. Bañan aizkenik, nagusi ta langille, biok alkarrekin ari-ta-ariaz, lortu zuan gure Antonio'k bere ametsetako kurpilla osotzea.

Olakoxe gizon saiatua izan genduan beti, bere euskaldunberri-bide zail-zalletan... Leen ere esan dizuet zergatik eta zertarako: bere etxe sor-berrian euskal-kabi goxo ondo osotu bat bere umeentzat eratzeko: ots! senar-emazte, biok, beren kabi maite artan beren umeekin danok kantu berdiñean kantari jarduteko. A! zer nolako eredu ta ixpillu ederra, orduko ta oraingo ere zenbait gurasorentzat! Ikastolak ondo badaude-ta, ez bait dago gaizki, besteak esan zuan bezela, «Etxeko Eskolia».

Alkar ezagutu genduan artaz aurrera, askotan ikusten genduan alkar. Beti ere bere euskal-gramatikazko galderak egiteko. Beti galde ta galde; galdez ezin aspertu. Eta erantzunak arduraz jaso. Bañan ez bait zuan Gramatika bakarrik naikoa; izkuntzaren modismoak ere —Erretorika ere— nai izaten zuan ikasi, eta bere mintzaeran

erabilli. Eta arritzekoa zan, nolako memori ta oroimena zuan, bein entzundakoak gogoan eukitzeko.

Bitarte ortan sartu zan, baita, gure folklore jatorra sakontzen; eta gai ontan, besteak beste —bere polifazetikan beste gai askotara ere irixten bait zan iñor baño areago— besteak beste bertsolaritzaren fenomeno interesgarri-interesgarriak erakarri zuan indar aundiz, bertsolariekin tratu izatera.

Ortarako ba zeukan Oyartzun'en gairik aski, eta aien artean bat, oso bere kutun izan zuana: Uztapide. Uztapide ta Lexoti. Iñoiz-iñoiz, bat-edo-besteak deitzen zituan, guk Ayalde'n elkarrekin egiten genituan otordueta, gurekin batean kafea artzera; ez, ordea, bertsoak entzun-eta-entzun egiteko bakarrik, baizik-eta bere magnetofonean aien bapateko kantuak jaso, ta berriz ta berriz ere entzun eta aztertzeke; orlaxe iritxi bait zan bertsolaritzaren xurgatzalle, benetan jator izatera.

Gai ontan ba dakizute, iñoiz, Bertsolarien Txapelketa aundietan ere, Euskaltzaindiaren aginduz Maieko Juradu izatera ere iritxi zana. Batzuren-batzuek —Ayalde nor zan jakin gabe, euskaldun berri zala besterik etzekitela— sariketa aietan Maiko ikusita, arritu egiten ziran; ez bait ziran arrituko, ordea, guk bezela jakin balute, nolako saioz eta alegiñez, iritxi zan Ayalde, bertsolaritzaren legeak eta teknika iñor gutxi bezela ezagutzera...

Margolari zanez, Uztapide'ren aurpegia, iñork ez bezela dibujatzea berak lortu zuan, gizon ta bertsolari jator-jator oni zion benetako lege ta gogo onez.

Zer geiago? Ez bertsolariakin bakarrik; baita bere Ayalde'ren auzo egiten diran baserritarakin ere itz-aspertu luzeak eta gozoak egiten zituala, baserritarren euskal-muin jatorra oparo xurgatu naiez. Auzo aien artean nik bat aipatuko bait nuke batez ere: Mendin-Etxeberriko Joxe Mari. Zenbat galde egin ote-zizkion, bere Oyartzun'go opor-ordueta, auzo jator arri, bere euskal-egarria ase naiez, zenbat galde, leen noizpait, ezkon-gaietan bere Dolorex'i egiten zizkionak bezela: «Joxe Mari: au nola esaten da euskeraz? Joxe Mari: euskerazko itz onek zer esan nai du?» Joxe Mari'k parrez-parrez erantzuten zizkion galderak... Olaxe osotu bait zuen, bere euskal-kultura jatorra, bere *plan intensibozko* jardun ezin-ase artan.

Bañan uztagun gai ukigarri au, nere itzaldiaren bigarren erdira igaro gaitzen: «Ayalde, euskal-idazle». Labur-labur mintzatuko bait natzaizute onezkero.

EUSKAL-IDAIZLE

Ayalde, idazle baño leenago, irakurle izan zan; ala bear ere-ta.

Idazle izaten, imitazio-bidez ikasten degu. Irakurri, irakurri; eta irakurtzen danaren gaietan «gustu-artu»; eta ola irakurtzen danaren estiloa «asimilatu».

Ayalde ere, bide orri berorri jarraiki zitzaion.

Ez det uste, benetan, irakurketarako denbira aundirik izango zuanik, gizagojoak bere karguko lanak egin ondoren. Bañan ontan ere aukera on bat egiñezkero, metodo on bati jarraitu-ezkero, bat oso irakurtzalle «probetxatu» atera diteke. Eta ba dakigu, Ayalde, bere gauza guztietan gizon metododuna izan zana. Bere lanaz gañera, margolaritzarako bezela, geldituko zitzaion, asko ez bazan ere, txolarte zertxobait, bere gustuko irakurtzeak egiteko.

Bañan irakurtze oien ondoren, nola-nai zala, Ayalde etzan geratu besteren imitatzalle soil, beste inoren kopiatzalle; ez idazkaietan, ez idazkeran, estiloan.

Berak bere biotzean zeramazkian ark, bere idazkaiak; bera zan bere idazkaien iturri; iturri, eta labe; iturri bere margolari-begi argiz, eta labe biotzaren irazekiz.

Ayalde'ren biotza, ixillik arren, labe bat zan, labe gori. Erria zeukan biotzean sartua. Eta erriaren trajediak irazekitzen zion bere labe gori ura. Erria, erriaren paisajea, erriaren folklorea, erriaren arnasa, erriaren anima... Euskera, Euskeraren bizia —orixe, batez ere— itzear ikusten zuan Euskeraren bizia...

Lizardi zuan bere irakurgai aukeratueta bat, irakurgai kutun. Lizardi lenengo; eta Orixe urren; edo-ta biok berdin.

Lizardi'ren Olerki-liburu «Biotz-begietan», guztiok dakigu, berak ain gustora «ilustratu» zuala, liburuaren bigarren argitaltzean. Ala berean, baita, prestaturik utzi dizkigula, Orixe'ren «Euskaldunak» Poemaren bigarren argitaldirako kantu guztien edergarriak ere.

Erderazko irakurgaietan, pentsatzekoa da, Baroja'ren euskal-girozko lanak ere leku berezi bat izango zutena bere irakurgai aukeratueta artean. Bañan, ori bai, ez Itzea'ko idazle ezagunak bezela, euskal-gaiak sinpatiaz —sinpati aundiz— erabiltzeko bakarrik, biotz-biotzean sakonki sentitzeko baizik. Gure Ayalde ez bait zan euskalgaien sinpatizante, diletante bakarrik, sentitzalle sentikor bioztun baizik...

Orrekin esana dago, zer-nolakoa zuan bere tematika, bere euskerazko idaztietan, eta berdin baita erderazkoetan ere. Erria: erriaren gauzak; erriaren bizia; leen ere esan dizuet-eta, erriaren paisajea —margolari bezela, ala zegokion egoki ere-ta— eta erriaren Folklorea —erriaren animaren leio zabala dan gure Folklore zoragarria—; bañan Folklore guztietan folklorerik folkloreena, Ayalde'rentzat, erriaren izkuntza —berak ain maitekiro ikasi zuan Euskera; bere

emaztearena zan, eta bere umeena izatea ere nai zuan, eta dan (ain eredu ki dan) Euskera.

Bere liburu bitxi «Ibar ixillean» bait da testigu.

Denok ezagutzen dezute liburu txukun, sentitu-sentitu au. Ez nijoakizute ezer geiago esatera, gure lagunaren idaz-tematikari buruz.

Eta zer esango dizuet estiloaz?

Idaz-gaietarako bere nortasuna izan bazuan-da, berdin esan bear, baita idazkerako, idaztankerako, estilorako nortasunaz ere.

Ez det esango, beste inork ez bezelako estiloa zuanik. Estilo-mue-ta gutxi dira. Idaz-tematikak, bai, askotaz ugariagoak dira: edesti, drama, tragedia, irri, lantu, romantika, umore, pikareska... zer ez? Estiloak, ordea, urriagoak dira: luze, labur, retoriko, lakoniko, latz, leun...

Gure Ayalde, ez da luze-zale, ez da retoriko; bañan ezta lakoniko ere. Estilo laburra, bai, eta latz-antza geiago duana, olio-leun-antza baño.

Bañan nola-nai ere, beti estilo argi. Ayalde'k ez du inoiz ere illun-antzik; ez jatorriz, ez rekurtsoz; Ayalde'k beti estilo argian ematen dizkigu bere esan-bearrekoak. Gai bat bear bezain argi ikusten ez duanean, ez du ikutuko; illun aterako litzaioke, eta Ayalde'k beti ere argia maite du, ezer bada-ta. Margolaria da, eta margolari on bezela, kolorea ere bai, bañan argia batez ere du maite; eta idazle bezela ere berdin, pentsamentu argia. Eta ortarako rekursu bezela, estilo laburra, errex zatikatua, ez nekez luzatua.

Olakoxea ageri zaigu Ayalde'ren estiloa bere «Ibar ixilean».

Eta ez noa ezer geiago esatera bere estiloaz.

Bañan zer esan bere itzaldietaz? Idaztiz gañera, eremu au ere, alor au ere ikutu bait zigun gure adiskideak.

Auxe bakar-bakarrik esango dizuet, gogoraziko dizuet: gerra-aurrean etzala ia inor ere kultura-gaietaz euskeraz itzaldi bat ematen ausartzen zanik. Euskal-Esnaleak —gogoragarri baño gogoragarriago bear gendukean Euskal-Esnalea Bazkunak— eratu zituala Donostia'ko Zine «Novedades'en», gauza berri bezela, kulpitoko sermoiez bestelako kultura-geietazko itzaldi batzuek; aien artean, orain, Orixe'k, ortarako zuan balio aundiarekin emandako bat bait daukat nik gogoan, Metrika-gaiez eman ziguna, euskal-kantuen Metrikaz, oso bikain osotu ta egoki kurpildua... Bañan beste inor gutxi genduala orduan, kultura-itzaldi-itxaso ortara bere bateltxoan arrixkatzen zanik.

Gerra-ondoan izan zan, gure Euskaltzaindiak eraturik, olako itzaldiak maizago ta ugariago ematen asi giñana, Donostia'ko Diputazio-ko Bibliotekan: Dunixi zanak eman bait zigun olako bat, oso polita, Bilintx olerkariatz; eta Mitxelena'k Oihenarte'z, eta Zugasti apaizak

Euskal-doñuetaz... eta neronek ere eman nituan pare bi, pare bat Ondarrua'ko Santa Klara'ren Romantzeaz —kritika literaria bezela— eta beste pare bat euskerazko deiki (vocativo) jatorraz —gramatika-ikaskai gora xamar bezela—. Geroztikan, bai, asko ugaritu dira olako itzaldiak, *de omni re scibili*, gure artean.

Orra bada: gure Ayalde ere, bere euskaldunberri-egoeran, ausartu zitzaigun, ausartu, ereduki, ixpilluki, itzaldi-itxaso artan, azkeneko urte otan, bere bateltxoan boga. Eta ondo.

Guztiok dakigu zein gairekin. Bi gai. Bere «Ibar ixillean» dauz-kagu biok oso-osorik: bata Euskal-Arteaz —pintura, eskultura— eta bestea, Xenpelar Bertsolariaz. Bi itzaldi, oso ondo pentsatuak, ondo eratuak eta grazi aundiz esanak —Xenpelar'ena batez ere, bere seme Antton'ek kitarrarekin lagundurik—.

Guzti ontan ere, «euskaltzale eredu ta ixpillu» agertu bait zitzaigun. Bi gai oietan, izan ere, ba zuan ark zerbait esan-bearrekorik, eta esan egin zigun bere esatekoa; etzan egon ixil, mintzatu egin zitzaigun; ez zenbaitzuek bezela, lotsa txoro batek kokildurik, ixillik egon beti.

Eta ori esanik, bukatzen det nere itzaldi aspergarri xamar au. Barkatu. Eta eskerrik asko.

AYALDE OYARTZUN'EN

Nere errikide oyartzuarrok:

Antxon Valverde'ren Pintura-erakusketa bat, exposiziyo bat egin bear dugula-ta, sarrerako itz bi eskatu dizkidate.

Labur-labur ariko naz. Ez gauza asko esateko ez daukadalako, ortarako ordu ona ez delako baizik.

Zer artu-eman izan ditu Oyartzun'ek Antxon Valverde'rekin? crixe gogoraziko dizutet. Denak dakizutena; biño gogoratu bearra, esker-txarrez gauzak aztu ez ditzagun.

Asiyerako, itz bitan bilduko dut nere esatekoa gai ontan. Denak dakizute Valverde'k bere izen-goiti aukeratua, AYALDE zuela. Orra bada: neretzat AYALDE esatia, «Valverde ta Oyartzun» biyok batian esatia bezela da: Valverde'ren eta Oyartzun'en elkarren arteko artu-emanak.

Eta geiago gabe asi nadin.

NIK ZURI, ZUK NERI

—Pintura-kontuan zer eman ziyon Oyartzun'ek Valverde'ri? eta zer Valverde'k Oyartzun'i?

—Zerbait ematen digu beti guztiyoi, jayo edo bizi garan erriyak. Denak, bizi garan erriyarentzat begiya erne eukitzen dugu beti; begiya erne eta biyotza xentikor. Bizi garan erriyaren paisajiak gogor jotzen du gure begi-niniya; eta erriyaren biyotz-taupadak ere, sakon jotzen dute gure biyotzaren ondua. Eta ola sortzen da biyen artian, «sintonia» esaten diyogun biyotz-egoera eder bat.

Valverde'k bere begi-ninietan sartu-sarturik euki zuen beti Oyartzun'go paisajia; eta biyotz-alozetan sartu-sarturik baita oyartzuar-biyotzen taupada-soñua ere.

Valverde gaur, pintore bezela aurkeztu nai dizute; biño Valverde, pintorez gañera, eskribitzalle ere ba zen; eta bata bestiarekin osatzen dira, gizonaren bi izaera oik, gizon artista baten bi izaera oik. Artistak —pintoriak— biyotzian sentitzen duen bezela pintatzen du, eta sentitu ere, pintatzen duen bezela sentitzen du.

Ez dakit nik, zer sorginkeri duen, erri batian norik bere burua arrotz arkitziak, erri ezagutu-berri ark egiten digun lendabiziko impresiyorako. Ni neroni, ortik-ziar naiko ibilliya nazute, eta ba dakit zer den, atzerriyak gure begi-biyotzetan egiten duen lendabiziko *xok* ori. *Xok* orrek, alde batetik zozarbamen bat sortzen du, gauza naasi bat; biño baita erri artako gauzak ikusteko argi berezi bat eman ere. Antxon Valverde'ri, «Oyartzun'en errenteriar izanak» egiten ziyon xokiak, argi berezi bat eman bear ziyon, Oyartzun'go gauzak eta pertsonak batez ere ikusteko, argi berezi bat.

Askotan esan oi dugu, ez dugula jakiten gure amaren begiyetako koloria nolakua den... milla begiren artian berexiko genituzken bi begi ayek zer kolore duten erantzuten ez dugula jakiten, norbaitek ori galdetzen badigu. Gu ez beste batek, berriz, emakume maitagarri aren begiyetako kolore ura, sentitu ez, biño ikusi bai, guk biño obeki ikusten duela. Ola esan oi da.

Valverde'k errenteriarra izanik, gure Erriyaren eta gure erritarren fisonomiya, guk geok ez bezela ezagutzen zuen, duda gabe. Eta orixe zen, duda gabe, Oyartzun'ek Valverde'ri egin ziyon erre-galiya; gure fisonomiya. Gure fisonomiya, ta gure paisajia.

OYARTZUARREN FISONOMIYA

Bi gauza aitatu bear ditugu emen, Oyartzun'ek Valverde'ri era-kutsiyak, azalduak: oyartzuarren fisonomiya eta Oyartzun'go paisajia: bi gauza, Antxon Valverde pintoria txoraturik zaukatenak.

Asi gaitezen fisonomiyatik.

Euskaldunok ba dugu fisonomi bat, erdaldunengandik bereizten

gaituena. Biño, Euskalerrriyan bertan ba dira, «sub-fisonomi» esan genitzazkianak ere: dela nafarra, dela bizkaitarra, dela arabarra, dela gipuzkuarra... eta giputz eta nafar artian, beste sub-fisonomi txiki bat gañera: oyartzuarra: Jaizkibel'tik Bianditz eta Añarbiak arteko eremu guzian zabaldurik dagona: sub-fisonomi oyartzuarra —ez bait diyot orain ezer gure kostaldeko mariñel-jendiaz; oik gauza berexi bat dira, Oyartzun'go menditar jatorren aldian.

Fisonomi jator ori, ederkitxo ikusiya ta neurtua zeukan gure Antxon Valverde'k; eta bere kuadroetara eramana gañera. Eta neretzat —bestiak beste— «Olentzerokatayak» deritzaten kuadruetan ematen digu Valverde'k biziyenik, oyartzuar fisonomi ori. Ez bait dezaket esan ordia, zertan dagon fisonomi berezi ori: begi-tartian, bear bada, begi-tarteko patxara ta arraitasunian edo olako zerbaitetan... Nolanai dela, zuek esango didazute, iya, bestetan arkitzen ez den zerbait ez ote dagon, gure Valverde'ren «Olentzerokatayatan» ikusten dugun begitarte patxaratsu, inozente ezin-esaneko ortan...

«Olentzerokatayataz» gañera, gauza beratsua esan dezakegu, Donostiya'ko Aurrezki-Kutxaren aginduz pintatu zituen zenbait pertsonajeren fisonomiyaz ere; ayen artian ezin aztu bait dezakegu, Xenpelar Bertsolariyaren eredu artu zuan fisonomi oyartzuar-oyartzuar ori... Eta, nik aldakit, zenbat eta zenbat geyago, fisonomi apal, biño elegante, bere kuadruetan eman dizkigunak? Neronek ere ez bait dakit nola aditzera eman zueri, fisonomi eder oyen edertasun tolesgabe jatorra zertan dagon: Valverde'k ain ederki ikusirik zeukan eta ain egoki bere kuadruetara eraman duen xeetasun bitxi ori, alegiya...

OYARTZUN'GO PAISAJIA

Pasa gaitezen, Valverde'k Oyartzun'i zor diyon beste detalle artara; Valverde'k Oyartzun'en ikasi zuen beste arte-izaera artara: Paisajera; paisaje morexka. Morexka txoragarri ori, kolore-toketxo leun, goxo ori, ezerk eta iñork bada-ta, Oyartzun'ek sarrerazi bait ziyon gure Antxon'i bere paleta garbi-garbiyan.

Momentu ontara irixtian, esan dezakegu, Valverde ez dela Valverde, «Ayalde» baizik. Ayako Arrira begira jarri den momentutik, lengo Valverde, «Ayalde» biyurturik gelditu zaigu. Eta ez izenez bakkarik, baita kolorez ere.

Izan ere, Goyara'ko kaskotik Ayako Arrira begira jarrita, an ez da ezer berderik ageri. Goizeko argitan, Arditurri'ko sakonian eta Txurumurruko aloz eta plegadizuetan gure Antxon'ek ikusten zuen

koloria, morexka zen; eta ura ikusizkeroztik aren paisaje guziyak morexkak izango ziran, bai akuarelaz pintatzian, bai guatxez, bai oleoz. Gure Valverde'rentzat orain ez da izango ez beltzik ez berderik, morexka baizik; morexkak Ayako Arriyak, morexka Aritxulegiko lepua, morexka Errengako gaña, morexka Biandiz'ko lepua ta Bunanarreko bizkarra; more goxo, more leun, more arin, aldiyan-aldiyan nakar-roxara jotzen duela... Orixen izan zen gure Oyartzun'ek «bere Pintoriari» eman zion lekziyo bikaña...

Gure gazte-denboran —orain urte asko— pintore famaturen baten paisajeren bat alabatu zenian, beti ere berdin esaten zitzaigun: *como juega la luz* —beti ere, argi ori-oriya— *como juega la luz entre las hojas del bosque!* beti ere argi oriya osto-artian kiriketan... Gure goguanian, Kabanas-Oteiza astiasuarra izan zen, gure paisajiaren illun-une ta sakonetarako kolore morexka bere kuadruetan sartu zuena —Paris'eko inpresionismuaren lekzio ederra—. Artian itzalak eta sakonak egiteko, beltza erabiltzen zuten orduko pintoriak, alik-eta 1902-aldian, Regoyos inpresionista bortitzak, Paris'etik emen oyetara bueltan, itzalak egiteko moria ausarki bere kuadruetan sartzen aizen arte —Regoyos, pintore asturiano ori, neronek ikusiya goguan daukat, gure Goiko Kalia pintatzen, artian Legarre, Konbentu ez biño, baserri zela, eta oraindikan Legarre txiki egin gabe zegola, Pottettania bait zen aren lekuan... txikitako oroitzapenak...—. Guk geok ezagutu genuen, *contra-luz*'eko itzalak beltzez pintatzen, gero Regoyos'ek morez batez ere, pintatu zizkigun arte.

Gure Ayalde'k, leentxiago Kabanas-Oteiza'k bezela, beti Regoyos'en bidiari jarraitu zion —itzalak berak ere beti koloredun pintatuz.

AYALDE'K OYARTZUN'I ORDAÑAK

Eta bukatzera nua.

Kabanas-Oteiza'k, Andoain'en bizi zelarik, bere pinta-gai kuttun, Erniyo-mendi izan zuen; Ayalde'k, berriz, bere pinta-gai kuttun, Ayako Arriya. Dozenaka aldiz eramane zuen bere gai kuttun ori bere telaetara; beti ere argi diferentetan; biñon beti ere moreantxa. Lekziyo ori Oyartzun'en ikasi bait zuen.

—Eta orain, orren orde, zer opa zion Ayalde'k Oyartzun'i?

—Bere Artia, bere arte oso-osua... eta bere izena: «AYALDE».


Gure Antxon Valverde'k, «Ayalde» biyurtu zen ezkerero, esan ditek, etzuela pintatu ezer, Oyartzun besterik: Oyartzun'go giza-

fisonomiyak eta, batez ere. Oyartzun'go paisajia. Oyartzun'go udazken-giro more-antxa.

Beste zenbait artistentzat esan izan bait da, euskaldun izan arren, euskal-gairik bat-ere ez, edo oso gutxi pintatu izan duela. Ayalde'rentzat ez da esango beste orrenbesterik iñoiz-ere. Ayalde'k ez du pintatu bein ere euskal-gaia besterik; eta euskal-gayetan, gai oyartzuarra, batez ere.

Eta gure Oyartzun arro dago gaur Ayalde'ren egite eder orren-gatik: egite eder orren-gatik Oyartzun eta Valverde, bi izen oik, beste izen batian —AYALDE izenian, alegiya— betiko bildurik eta bat-egiñik gelditu bait dira.

Esan det nere esatekoa.



Psikolojia alorrean pizkunde aintzindari:

Huarte Donibaneko ⁽¹⁾

Egille: Isidoro Fagoaga.

Euskaratzaille: Yon Etxaide.

Naparroa'ko Erreñuak, malkartsu delarik alderdirik gehienetan eta lurraldez luze-zabal urrikoa, bere historian zear gudu gogorra sustengatu behar izan zuen —batzutan odolezkoa, bestetan diploma-ziatzkoa— bere buru-jabetasunari eutsi ahal izateko. Lur-nausitze (2) historikuen eta jesta-kantuen bidean kokatua egonik —gogora dezagun lehendabizikotan Karloman'ena, Erroldan haren zaldun gailena eta Orreaga'ko ausiabantza (3)— eta Estadu ahaltsu ta handinahiez

(1) Jatorrizko izenburua: "Un precursor Renacentista de la psicología: Huarte de San Juan". Buenos Aires'ko "La Prensa" albistarian argitaratua izar zen 1966'ko Abenduaren 4'an. Gaztelerazko "Renacimiento" hitza honela definitzen du hiztegiak: "Época en que se despertó vivo entusiasmo por el estudio de la antigüedad clásica". Beraz, definizio honen arabera "Itxarkunde", "Esnakunde" esango genduke euskaraz. Erdal-hitzaren itzulpena, ordea, "Birjaiotza" litzake. Guztiok baiño hobeto iduri zait, ordea, "Pizkunde" hitz xarmanta. Gure Huarte, Donibane Garazi'koa zen. Honetxegatik uste dut "Uharte" izanen zela bere deitura eta ez "Huarte", baiñan berak Ahuñamendi'z honuzko idazkera onartu zuenez gero, ez-tugu ikutu nahi izan. Oстера, "San Juan" euskaratu egin dugu, bere sorterrria Donibane baita euskaraz.

(2) Invasiones.

(3) Rota de Roncesvalles. Orreaga, Orierriaga ere esaten da. "Ausiabantza" = derrota.

inguratua, baliagarri egin zuen bere semeen heroismuagatik eta bere lurraren malkartasunagatik, Dante'k bere «Jaungoikozko Komedia»'n botatu zuen deia:

...o beata Navarra
se s'armasse del monte che la fascia.

(Oh, zorionekoa Napparroa defendi ahal ba'ledi inguruko zaion mendiaz!)

Dei hau, ongi ikusten denez, baldintzagarri da; geroago, ordea, Biana'ko Printzeak tankera alegoriku batean sendoetsi zuen, honek ezkuta (4) bat dibujatu baitzuen, bi zakur ezur baten disputan ari, eta oiñean jakingarri hauxe: *Utrunque roditur* (Bi aldetatik karraskatzen edo hozkatzen naute).

Egiatik hurbillago ibilli zen —historiak darakuskigun bezala— nappar Printzea, Florentziar olerkari hilleziña baiño. Halaxe, 1512'garren urtean, zakurretako batek, Fernando Katolikuaren izena harturik —«jo-bideen zillegitasuna alde batera utziz», Menéndez y Pelayo'k dionez— ekin zion ezurrari eta egun gutxitan irentsi zuen. Seiren bat gelditzen zen karraskatzeko; hamarki (5) batzuek geroago eta hobekiago ondurik, beste zakurrak irentsi zuen; hau, Biarnotar onjario hura zen, «meza baten truk» Frantzia'ko koroia jantzi zuena, Henri IV'gna. izena hartuz, eta kanta zaharrak dionez «galai berde» bat omen zen, bere lurreko mosketeru batek bezala edaten eta gudukatzen zekiena.

Ahuñamendi'ko Erresuma zaharraren zatiketak egoera zail eta nahasi batera ekarri zituen beronen sortumeak: alde batetik gaztelarrak baitziren eta bestetik frantsesak; nappar ez beste, zer nahi. Hau dela-ta, mendeku makurretatik salbatzeko ihesari eman behar izan zioten, batzuek Iparraldera eta bestetuek Hegoaldera. Ioane Huarte gaztearen familiak —jakintzaren munduan Huarte Donibaneko izenaz ezagunagoa izanen zena— Hegobidea hautatu zuen; Gaztela lehenengo eta Andaluzia'ko Jaen probintzia gero.

Eragin handia izan zuen, nunbait, gure mutillagan bere gurasoen erabakiak. Donibane-Garazi'n sortargia ikusirik —orain Behe-Napparroa deritzaiogun Seigarren Jaun-herriko (Merindadeko) buru iragan denboretan—, bere sehaskaren oroipenak bizitza guziaren zear irauan zion; horrela, biziera berria hartzeko garaia heldu zitzaionean, galduetako sorterriko emakume batekin ezkondu nahi izan zuen! Agata Berasko.

(4) Eseudo.

(5) Hamar urteko aldia, "ehunki" ehun urtekoa bezala.

HIRI ARROSATIK LUR LAKAR ETA GOGORRERA

Benetan zen oroimin honen merezigarri Donibane-Garazi, «hiri arrosa», olerkari batek deitu zionez. Arrosak dira, izan ere, haren eliza gotikua, kanpatorre zaharra eta haren zubi zaharra; arrosak Naparroa'ko Legerri-Etxea (6), Apezpikuen presondegia eta mendendun harresiak eta arrosak ere hegal zabaleko bizitegiak, euren zimenduak Urhandi'k bustitzen dituelarik, izen hau ematen baitio Euskal-erri'ko mintzaira zaharrak «Nive» hibaiari (7).

Huartetarrek uzten zuten lurraren eta arkitu behar zuten berriaren, hots, «lakar eta gogorra»ren artean, kontrastea ezin zitekean nabarmenagoa izan.

Linares'en urte batzuek eginda gero bere gurasoen laguntasunean, Ioane Jaungoikoarena Alcalá de Henares'era aldatu zen, Unibersidade hotsandiko hartan sendagintza eta filosofia ikastaroak egiteko. (Alcalá'n, eta ez Oska'n (8), hutsegitez dion bezala Marañón doktoreak, Napar jakintsuaren bizitzaz eta obraz egindako estudio labur eta mamitsuan.)

«CALA Y CATA DE INGENIOS»

Compluto'ko (9) Ikastetxe-Nagusian matrikulatu zen Huarte gaztea 1553'an. Sasoi hartarako ezagun zitzaizkion tipuak eta aiurriak (10) antzemateko doaiak, hala ikasleenak, nola irakasleenak. Biguri-Aramayona'k adierazten digunez, etzioten erakarri behin ere ez lehenengoen libertimendu zalapartatsuak eta ezta lilluratu ere bigarrenen dialektika eta erretorika iaioletasunak. Harentzat, Unibersidadea, baretasuna eta sakontasuna zerion ikaskizun jauretxea zen. Haren helburua berriz: «Adimenen sundatzeari eta haztatzeari ekin» («hacer cala y cata de ingenios»).

1555'garren urtean, batxiller mailla atzeman zuen sendagintzan eta azkenik, 1559'ko Abenduaren 31'an, halabeharrezko zeremoniekin, doktore borlaz gaiñera, Humanidade Lizenziaturaren agiria jaso zuen, hots, bere promozioiko lehenengo lumerua egiten zuena.

Laister tokatu zitzaion bere zientzia eta pazientzia probatu beha-

(6) Casa de los Estados de Navarra.

(7) Eztakigu nun oñarritu den Fagoaga jauna "Nive" hibaia euskaraz "Urhandi" dela esateko, zeren, guk dakigunez, beronen euskal-izena "Errobi" baita.

(8) Huesca.

(9) Alcalá de Henares'en izen zaharra.

(10) Izaerak (caracteres).

rra. Peste izurrite batek eraso zuelarik Baeza, Huarte'k bere izate guzia eskeiñi zuen gaitzaldia «mozteko» eta gogor saiata gero ardie-tsi zuen oscki. Hiri-Kontselluak, bere langintzan aditzera eman zuen iaiotasunaz gaiñera, «gizon jakite handikoa» zela ikusirik eta gogoan harturik, hiriko mediku tituludun izendatu zuen.

LIBURU HILLEZIN BATEN MAMITZEA

«Gizon jakite handikoaren» aipamen hau, laister sendoetsiko zuen doktore naparrak urte batzuek geroago mundura irauli zuenean bere liburu hilleziña: «Adimenen azterketa zientzietarako. Bertan aditzera ematen da gizonen arteko iaiotasunen bereiztasuna eta bakoitzari zer ikaskizun klase dagokion. Obra hau ernai irakur dezanak igarriko dio norbere iaiotasun tankerari eta hobeto dihoakion zientzia hautatzen jakingo du eta menturaz hartan ari izana ba'litz. ohartuko da haren antze naturalak eskatzen zionarekin asmatu ote zuen. Ioane Huarte Donibane'k egiña, sortzez Donibane Garazi'koa.»

Titulu luze honek bere helburu bikoitza aditzera ematen du. Lehendabizi: giza-adimenaren gaitasun diferenteen haztatze eta ezagutzea, eta bigarrena, zientziaren edo langintzaren probetxurako eta zabaltasunerako hobeki egokitzen den gaitasun haietako bakoitzean saiatzea.

Beste hitzez: lehenengoz oiñarritu zuen eta zientzia-zimendutan oiñarritu bokaziñoen jobidea, «gure egiazko destinuaren dei aginkor eta geldiezin hori», Ortega y Gasset'ek dion bezala. Iritzi hau Marañón'ek sendoesten du, zeren honek baieztan (11) baitu, Huarte'k, argibide hori emateaz gaiñera «gardentasunez (12) ikusi zuela giza-tankera bereizien arteko har-eman eta halaber izaera desberdiñen artekoa eta hain zuzen gaurko zientziaren prolemetako kezka bat hauxen da».

Esan diteke bada, psikologia eraberrikoaren goiargi fisiolojikuak eta espermentalak, napar gizatiar (13) handian daukala hasiera-emalilea. Aita Maurizio Iriarte jesuitak —egille honi eta bere lanari orain arte ezagutzen dugun estudiorik osoena eskeiñi diona— hirurogeitamarik gora jotzen ditu nahiz jatorrizko hizkuntzan, nahiz itzulpenetan egin diren ediziñoak 1936'gn. urteraiño. Iraulpen onenen artean alemana jo dezakegu, Lessing'ek egiña eta komentatua.

Hainbeste goraipamenen artean, ordea, hauekin bat etzetorren iritzirik izan zen: Aita Jerónimo Feijóo'rena, alegia, zeren honek

(11) Baietz-tu, baieztu = afirmar.

(12) Con nitidez.

(13) Humanista.

hitz puztuz baitzion: «Egillearen Physikak doi-doi balio du idazten erabillitako tinta». Penagarri da aitortzen, baiñan España izan zen haren liburuak zabaltasunik urriena izan zuen lekua. «Gure sorteriaren berezko eritasuna —botatzen du Ramón y Cajal'ek diagnostiku gixa— filosofiaren eta zientziaren axoleza izan zen eta Sancho-panza-kumetasun bihotz-urragarri bat.»

FEDE-EPAIMAHAIAREN AINTZINEAN

Irakurle espānolaren axoleza honi, Fede-Epaimahaiaren gehiegizko lehiak eta zorroztasunak jarraitu zion, aintzinate ez baldin ba'ziztaion. Nahiz-ta zentsuratzailleen gorapamenak jaso —eta zegokion onespena edo «imprimatur» delakoa eman baldin ba'zioten ere—, aipatutako epaimahaiak liburua gaitzetsi egin zuen eta garbiketa-legera makurtu behar izan zuen. Inkisiziño-zentsuraren mutiburik nagusiena, egilleak garuntegiaren (14) eta adimenaren arteko har-emanaz sustengatzen zuen dotriña izan zen. Horrela, arimaren hilleziñaz ari den kapitulua, osorik baztertua izan zen. Beste pasarte batzuek zuzentzea ere behartu zitzaion. Esaterako, animaliei aitortzen dizkien «adimen, zuhertasun (15) edo bertute modu batzuek, erruki-izana, justizi-izana eta abar bezala. Eta azkenik baztertua izan zen liburuari buru-emangarri zekarren Jesukristo'ren izaera-azalpena».

Huarte'ren obraren balioa, ez soilki hitz-ederrezkoa, zientziatzkoa baizik, atzerrian izan zuen zabalkundean ikusten da. Borden'ek dio, napar jakintsuaren ideiak Montesquieu'ren «Izpiritu Legetan» izan zutela eragiña. Floegel'ek, «Adimenaz» bere liburuan esaten du Huarte adimen-erraldoi (16) bat izan zela. Gall eta Lavater zientzizgonak, eraberriko frenolojiaren aintzindaritzat jotzen zuten. Borinsky'k aditzera ematen du, delako obra garuntegi-topografia baten lehenengo saioa dela. Garuntegiaren antolabideari eta talentuargibideari (17) dagokion tesis hau, Diego Arotza napar-erronkariar doktoreak sendoetsi zuen XVIII'garren mendean, bere «Tesoro de las excelencias y utilidades de la medicina y espejo de prudente y sabio médico» tratabidean; aipaturik daukagun Aita Iriarte'ren iritzian, obra hau «mende harek gisa hontako lanetan utzi zigun preziagarriena da». Pizkundearen eta Eraberritzearen (18) mendea —eraxten dugu guk—, gizon handietan oparoena, gure Huarte bezalaxe usterik

-
- (14) Cerebro.
 - (15) Prudencia.
 - (16) Genio.
 - (17) Orientación.
 - (18) Reforma (Elizarena).

Erasmus Rotterdamgo, Lutero, Rabelais, Paraceslo, Fray Luis de León, Miguel Angel, Shakespeare, Ambroise Paré, Teresa Avilako, Camoens, Montaigne, Lope de Vega, Ronsard, Quevedo eta, hamaika gehiagoren artean, Maquiavelo deabruzko hura, Printze modelu baten asmatzaille, geroak hain oparo eta hain bihurriro imitatuko zuena.

CERVANTES'EN ARGITURRI HANDIA

Huarte'ren obra, gure mendearen hasieran, ustekabeko ernealdiz, egun-eguneko ogi bihurtu zen. 1905'garren urtean izan zen, «Don Quijote de la Mancha», Cervantes'en obra gaillena agertzearen hirugarren ehunurren-ospakizuna zela-ta. Halako gertaera oroigarria ospatzeko argitaratu zirén konta ezin ahal estudio eta artikuluetan, opuskulo bat azaldu zen, ernealdi (19) handi baten pizkarri ez-ezik, eztabaida sutsuen sortzaille izan zena. Rafael Salillas, omen handiko zigorlariaren (20) idaz-saioari gagozkio. Beronen titulu harrigarriak honela zion: «Un gran inspirador de Cervantes: el doctor Huarte de San Juan y su Examen de Ingenios» (Cervantes'en argiturri handi bat: Huarte Donibaneko doktorea eta haren Adimenen Azterketan).

«Tesis bitxia, berria bezain begirune gabea», Cervantes-zale batek bere glosategian kalifikatzen zuenez, estudiatua izan zen ordea eta atzanean osoki onartu zuen nazio barruko eta kanpoko irizlari sail hazi batek.

Ulgerarri diren arrazoiagatik, gai honek eskatzen duen komentariorik ezin eskeiñiz hemen, errenka laburretan bilduko dugu «Cervantes'ek Huarte Donibancko'ri zor dion gogo-mendetasuna» (21) deritzaiokeguna. Has gaitezen esaten, zigorlari espñola kultura eta adimen handiko gizona izanik, Cervantes'en estudio-alorrean zeharo berri diren oharpen sarkorrak dituela haren tesisak. Erreparu batzuek jarri zaizkio, noski, Camille Pitolet hispanistaren gixakoak bezala; beronen ikusmira, ordea, zalantzarik gabe alderdikoi denez, apalgarri eta maxiatzaille da. Ostera, Salillas'en eta beronen postuladoren aldekoak oparo gaillentzen zaizkie lehenengoei kalidatez eta gehiago izatez. Postura hontan argibidea egin zuena William Confort ingelesa izan zen, Salillas'en arrazoibideak bete-betean sostendu baitzituen, gero komentatzaille iaio (22) talde bat jarraitzen zitzaiolarik, hala

(19) Testuan: expectación.

(20) Testuan: penalista.

(21) Testuan: dependencia espiritual.

(22) Zuhur, zoli, zorrotz (sagaz).

nola, Bonilla, San Martín, Díaz eta askoz gehiago, Aita Maurizio Iriarte'rekin gaiña jo arte. Beronen ikuspidea Huarte'ren teoriez eta Salillas'en tesisaz, estudio akigarri (23) bat bezala kontsideratu beharra dago.

Aita Iriarte'k, bere liburuaren pasarte batean honela dio: «Cervantes'ek bere obretan Huarte doktoarena erabili zuen eta ez hahemenka bakarrik, biazik-eta bere sorkarien zainbizia (24) berbera ikutuz.» Eta aintzinago gaineratzen du: Kijotea «Adimenen azterketa»ren zantzupean (25) bizi eta hil zen. Cervantes'ek Huarte doktoareari zor dion argi-iturri (26) handia zera da: Gizanagusiaren (27) izaera idurikatzen eta gidatzen jakitea bi egituren atsegiñezko har emanean, hots, psikologikua eta temperamentuzkoa. Eta haren egilleak guztihonen ezaumena izan zuen, zeren sinistua baitzegoen gorputz-gaitasunez arimaren nolakotasunen berri jakin zitekeala eta bidebatez hauekandik kanpokoak edo gorputzarenak igarri. Cervantes'ek ematen digun eromenaren ezautasun (28) azalpenean, bi puntu nagusi daude gaitzaren giltza bezala direnak; eta bi puntu edo ideia nagusi hauek bete-betean dira «Adimenen azterketa»ren psikopatolojiarenak. Hala nola garuntegi igartzeak dakarren humore nahastea eta ondorenez datorren idurimen zauria. Kapare adimentsuari (29) «lo gutxi egitez eta asko irakurtzez garuntegia idortu zitzaion», zeren Huarte doktoareak Cervantes'i erakutsi bezala, «egun guztiko esna egoteak garuntegia sormintzen (30) du eta gaueko loak ezetzen eta sendotzen».

«ADIMENEN AZTERKETA» ETA «GURE ADIMENEN ERRALDOIA»

Beste gogohargarri (31) batzuek gain, hala nola, testo parekatzea, hitzetan bat etortzea eta esaldien antza, Aita Iriarte'k honela bukatzen du bere azterketa zorrotza: «Iñork ez beza dudarik egin Huar-

(23) Exhaustivo.

(24) El nervio de sus creaciones.

(25) Ziñupean (bajo el signo).

(26) Inspiración.

(27) Héroe = personaje principal de la novela o del poema.

(28) Egilleak "sindrome" hitz teknikua baiñan gutxi ezaguna darabil.

(29) Al ingenioso hidalgo. Oihenarte'k dio: "Kapare da bilaun eztena, ez eta xoil aitoren seme, bana bien arteko, España'n hidalgoa den bezala" ("Atsotitzak", 32 hor.). Bilaun = villano. Aitoren seme edo aitonen seme = gentilhomme.

(30) Sortu, gogortu, moteldu. Testuan: entumecerse.

(31) Consideración.

te Donibaneko doktoreak Cervantes'en baitan duen eragingarriaz. Egindako induziñoak, ondorengo premisa hoetatik hartzen du argi: ezin konta ahala pasadizutan eta iritzemanetan bat etortzea, eta noski, bat etortzeok ezin dakizkioke erantxi kasualidade soil bati; beronen mamia ezin diteke beste iturburu batekotzat jo, hain da napar psikologoaren baita-baitakoa. Huarte'rengandik jaso zuen eragiña, gaiari baiño tankerari dagokiona hobeto izan zen. Bere adimena oldozteko (32) norma modernutan kategorizatzea izan zen, karakterolojiaren begirakun zorrotzei idekitzea, barnebidetako psikolojikuan sakontzea. Horrela, «gure adimenen erraldoiak», «Adimenen azterketa»'ri eskerrak, berearen zuribide osoa ardietsi zuen: eta honen adimen gaillenek emankizunaren odola Kapare Adimentsuaren zaiñetan dabil. Eta beste gogoeta sakon batzuen ondoren, honela bukatzen du: «Salillas'ek txit ederki juzgatzen du, iñolaz ere, eleberri hilleziñaren izenburua (33), egilleak argi-emailleari egiten dion bihotzagiri (34) bat dela.»

Bukaera bikaiña, ikusmen argitasunez eta sakontasunez goiargituak (35) izan zirèn bi adimen handien, edo hobeki esan, adimen gaillenen (36) laingoa.

Donostia'n, Uztaillak 4, 1973.

(32) Pentsatzeko.

(33) Encabezamiento.

(34) Dedicatoria.

(35) Inspirados.

(36) *Adimen handi*, "grandes ingenios" en ordez erabili dut eta *adimen gaillen* "genio" adierazteko.



Biktor Orville,

Hitz - Gurutzatuen Aita

Hitz-gurutzatu zalea baldin bazera, eta aldizkarietakoak askatzea gustagarri ba-zaitzu, gogokoa ere izango zaizu behar-bada jakitea nork, noiz eta nun izan zan asmatua denbora-pasa hori. Irakurri bada, Mr. Orville'ri buruz zuretzat idatzi ditudan xehetasun apur hauek.

Brasil'go egunkari batean irakurriak ditut aspaldi batez. Baiña, gauza bitxia! Lerro hauek idatzita gero, Orville'ren herri gehiago jakin nahirik ingles Enziklopedi handienak, osoenak konsultatzera joan naiz (inglesa bait zan bera) ea hemen esandakoak zuzendu beharrik ote nuen; eta... ez dut arkitu haietan, ezta B. Orville'ren ize-nik ere! Beste izen batzuk agertzen dira hiztegitzar haietan, hitz-gurutzatuen sortzailatzat. Zer bada? Galdetu diot nere buruari, harri-turik; edo Enziklopedi hauk ez dira egitiak, edo-ta brasiltar egunkari hura «pantasi oso» hutsa zan! Baina nik ezin dut sinistu ez bata ez bestea, Hala ere... ba dute brasiltarrek nolabaiteko famatxo bat, Ego-Amerika'ko beste nazioetan bederik... Aspaldiko kentua da hori. 30 milloie biztanle ziralarik Brasil'en, 60 zirala eurak esan... eta hau bezalako beste aho-berokeria hanitz. Irudimena txit «desarrollatua» dutela, nahiz beren herria «sub-desarrollatua» izan... Zer nahi da-din, nik artikulu hau ikutu gabe utzi dut; egia izan, gezurra izan, bost ajola neri, baldin euskeraz apur bat ikasteko ona ba zaizu. Urrungo batean xehetasun gehiago jakin nahi ba duzu, deitu neri; edo-ta —hau obezerorrek billatu eta guzioi jakin-erazi; kontuz bai-ña, euskeraz gero; Horrenbesterako gauza izango zera eta, ordurako...

Inglaterra'ko Oxforshire-kondadoan bizi zan jaun hori, Orville jauna esan nahi dut, bere andrearekin. Txit ezagunak ziran biak eta guziek estimatuak. Landetxe handi eder baten jabe zan Orville. Zal-dun on eta prestu, ez omen zuen akatsik... bat izan ezik, ondorio negargarri bat ekarri behar zion bat: billeretan, lagun-arteko jaietan, ez omen zekien ardoari neurria ongi hartzen, eta... gero gerokoak.

Ez zan orditzen, hori ez, baina bai berotzen, eta orduan zakar eta minbera bihurtu ohi zan. Beste hamaikatxo bezala beraz, bai han-goak eta... hemengoak. Behinola, udaberriko gau batez, adiskide batzukin dantzan egonda etxerako bidea hartzerakoan, emazteak, senarra komeni baino edanago zoala oharturik, automobilla ez gidatzeko. morroiari gidatzen uzteko, eskatu zion, arren eta arren. Orville'k ezetz erantzun zion zakarki, lasai eta argi zegoela, arriskurik ez zala ta berak gidatu nahi zuela. Bide-giro txarra gau hartakoa! Lurra irristakorra zegoen... eta gertatu zan handik piska batera, gertabeharra, ixtripua, ondamena. Orville gaitz handirik gabe irten zan, baina emazte gaixoa bertan hilda geratu. Jakiña, juezek atzipetu ta gero kondenatu zuten, zabarkeria ta ausarkeriagatik, bost urteko presondegirako.

Egia esan, bere emaztearen heriotza penagarriago zitzaion Orville jaunari, karttzelean egon beharra bera baino. Zearo itxuraldatu zan gizona denbora laburrean, kanpotik eta barrendik, gorputzez eta iza-keraz. Urdindu zitzaion ilea, makurtu kopeta, bere irripar alaia betirako aienatu... arras tristetu, goibeldu, muttutu egin zan dohakabea. Lagun onak bait-zituen, haren atsekabeak nola edo hala lagun-du nahi zioten. Berak ordea, zapuzturik, ez zuen haien kartai erantzunik eman nahi izan, ezta inorekin hitz-egin ere. Eta eskatu ere egin zuen azkenik, beste kontinenteko presondegiren batera alda zezazaten. Ego-Afrika'ko El Cabo deritzan hirira eraman zuten noizpait.

732 gn'eko gela izendatu zioten bertan. Haren atsekabeak ez zuen mugarik. Egun latz eta gogorrak haiek! Eta aspergarriak, batez ere. Osasuna ere kaskartzen asi zitzaion. Asperraldiaren erasoak uxatu nahirik, zerbaitean saiatu behar zuela gogoratu zitzaion. Papera ta lapitzak eskatu ta asi zan paperotan marrak dibujatzen, goitik behera ta ezker-eskubira, kuadroak moldatuaz; gero kuadru haietarik batzuk beltzez pintatzen zituen, eta besteak letraz betetzen. Ez nola-nahi, ordea, buruz eta tajuz baizik, letra haiekin hitzak osatzen zituela. Behin batez hiztegi bat eskatu zuen. Bai ekarri ere ta arrezke-roz goizetik gaberraino haritu ohi zan holako jokuan.

Preso-zaina harritia zegoen. Ze demontre zerabilen preso ark esku artean? Ez zekien zer pentsa, ez zer egin. Azkenean, Buruzagia jakitun ipintzea erabaki zuen. Eta hala egin ere. Bai jauna, bai! du-darik ez zan, 732'ko «apupillua» burutik egiña zegoela! Bere marra ta letra ta zirriborro haiekin erotuta zebillen seguro! Haiek egiteko horrenbeste neke hartu eta gero... txoko batera bota, gauza zahar eta baliogabe bat bezala! Zoro hutsa, bai...

Sendagillea joan zitzaion ikustera. Haren ondoan eseri ta goxoki ta maitekiro asi zitzaion mintzatzen. Orville inozua ez izaki ta be-

rehalaxe igarri zion. Lehenik ere zerbait irakurria zuen preso-zainaren begi harrituetan.

—Ero nagoela uste al duzu, sendagille jauna? Zaude, ba, la-sai! Aspertasuna aienatzeko zerbait egin behar eta... begira huni: hau ez da, nik uste, zorakeria bat, gauza oso entretenigarria baizik. Zer derizkiotzu? Sendagillea ere ez zan kamutsa, bai zera! Eta kon-turatu zan gizon haren egitekoan zorakeri-izpirik bat ere ez zala. Lan polita zan hura, zentzu handiko gizon baten lana, alafede! Eta zorionak eman zizkion Orville'ri, bihotzetik. Hunek, poztuta, paper haietarik ale batzuk eman zizkion ordainez. Eta horra, geroxeago sendagillea ta presondegiko Burua bera ere, bi biak jo ta ke, «Hitz-gurutzatu» bateko korapilloak askatu beharrez, ekin eta ekin! Munduan lehendabizikoa, alegia. Egun batzuren buruan preso-zainak le-hendakariaren eta mirikuaren partetik gelara sartu eta «zirrihorro» haietarik gehiago eskatu zion, mesedez, Orville'ri. Gogo onez eman zion hunek mordoska bat. Ba zeukan bertan pillo ederrik!

Buruhausgarri haietatik, ez ote zitekean zerbait probetxurik ate-ra? Hala uste zuen Buruzagiak. Sorta bat, argitasunak eta guzti, so-bre batean sartu ta ots handiko egunkari batera biali zuen. Egun gutxi barru argitaratu zuten bat, inoizkoen lehenbizikoa. Atsegiñez hartu zuten irakurleek eta handik labur, egunkari gehienetan azal-tzen asi ziran hitz-gurutzatu haietarik, eta egunetik egunera joan zan jendearen zaletasuna handituaz. Zaletasuna baino okerrera ere ba zan azkenean, zalekeria bat, izurrite kutsakor bat, ezin garaituzko griña bat!

Kartzeletik irtetzerakoan, Buruzagiak kontu zehatzak azaldu ziz-kion Orville'ri. Egunkariak joku berria txit ongi pagatuta diru pillo galanta bat zeukan irabazia alajaña!

Asmaketa hura miresgarria bada, eta miresgarria ere gizon bat preso egonez aberastu ahal izatea, ez al da miersgarriago kargudun haren prestutasuna, haren esku-garbitasuna?

Orville ez zan Ingalterra'ra sekulan itzuli. Baratzadun etxetxo bat erosi zuen inguruko hauzo batean, eta eremutarra bezala han-txen bizi zan, zerbitzari beltz batekin. Noizpeinka bixita bat egin ohi zion kartzeleko Buruzagiari hitz-kurutze aukerako bat eramaten ziola bide-nabar, asma ahal zezakean zailen eta nahasiena.

Hil zanean, harako neskame beltza geratu zan haren ondasun guzien jabe. Eta hunek, esker onez, nausiaren hil-harriaren gainean hitz-gurutze bat ,ederki landua ta koskatua ipiñi-azi zuen, omenaldi-rik atseginen eta samurrena horixe izango zitzaiola zuzen pentsatu-rik...

R. BOZAS-URRUTIA.

IKASTOLEN KURSO BAT

IRUÑEKO NORMALEAN

Joan den Uztailaren 16 garrerenetik agorraren 11 garrenaraino, Iruñean emanzen Ikastaro bat Nafarroako eskal Irakasleentzat. Lehen aldia da Nafarroako Diputazioak (eta beste Diputazioak guttiago) Ikastolak bere gain artzen dituela, andereñoen ikasbiderako eleketak emana narazten, Magisterioko Escuela Normal ofizialaren are-

to batean.

Itzaldi eta Klaseak euskeraz eman ziran denak, irurogei baiño geyago Andereño bilduz, geyenak Nafarroako. Urrats ezinago aundia izan dela, argi aski dago. Eta eman diran Itzaldi horien artean, honera ekartzen dugu gaur, A. Apat Etxebarne lankide ezagunak eginikoa.

* * *

EUSKALZAINDIAK gomendatu idatz-erak

Ezta hau jakinduri-estudio tinko bat izanen, lagun arteko Itzaspertu edo Solasaldi bat baizik. Baina ohar bat egin nai dautzuet lehenik; ni hemen eznaoela Euskalzaindiaren izenean, nere izenean baizik; Foru-Diputazioari eskerroneko agurra eginez bidenabar, Ikastaro hau, bere itzalpeko Ikastoleen onetan abiatu duelakotz, etsenplu ederra emanaz.

Eta Euskera-akademiak gomendatu erregela horiek aipatu baino lehen, Aita Justo Mocoroak, ahantzirik dagoen «Genio y Lengua»

bere liburuxka mamitsuan, idatz-estiloaz diona, irakurri nai dauzuet:

«Hemos hecho caso omiso del público (euskeraz idaztean, ale-
»gia), con la presencia de escritos faltos de contenido, insulsos o sin
»substancia, o de envoltura repulsiva...» (*es decir, sin gracia ni naturalidad*, diot nik, *que es el secreto del bien escribir, pues con las reglas académicas cumplidas, hay hoy muchos escritos, que el lector ordinario, a pesar del tema de interés, rechaza sin más*). Eztago beraz, dena erregeletan, ez «urrik emon bere.»

Mocoroak idazleen artean, AXULAR gomendatzen du lehenbizi (eta bera gipuzkoarra da eta ez Nafarrokoa), itz hauekin:

«Una persona muy allegada nos rogó en setiembre pasado [ur-
»teak pasatu dira orduz geroz], que le diéramos a conocer algún
»pasaje escogido del GUERO de AXULAR, obra de la que le había-
»mos hecho grandes elogios. Sin detenernos a seleccionar, abrimos
»el libro en su primera página y empezamos a leerle la dedicatoria
»o GOMENDIOZCO CARTA. A las 15 ó 20 líneas nos interrumpía,
»fuera de sí de emoción, para decirnos: no prosigas; hasta hoy
»creía conocer nuestra lengua, acabo de convencerme de lo contrario.
»Hoy es cuando por primera vez una lectura vasca ha puesto
»en conmoción toda mi alma...» *Eta Nota batean dio Mocoroak;*
«...en el semanario ARGIA de 1925 apareció un documento notable;
»por el que se hizo abortar un proyecto de reedición del GVERO,
»obra plagada de voces exóticas, decía el articulista».

Gu nafarrendako ongi da hau, Axular Urdazubiko semea izan baizen. Bayonako ESKUALDUNA (bere ondokoa HERRIA, orai) ere gomendatzen du, zuzen euskaraz idatzi nai duteneri. Baina goazen EUSKALZAINDIko batasun-erregelak ikuskatzera. Aspaldikoa da Euskalzaindiko kezka hori: 1922 urtean, gai horrerri buruz, *Baztanen, Bilbaon, Donostian*, eta *Hazparnen* bilkurak egin ziran.

Bere iritzea eman zutenen artean ditut, *Camió*n eta *Broussain*, *Cruz Goieneche* (Amayurko Erretore famatua), *Orixe* eta *Henry Gavel* aipatuko, zentzukoeren artean zeudelako; denek zuten asmo hori onartzen, baina kontuz ibiltzeko errepikatuz.

Euskal izkiriant zaharren artean ere ezta kezka hori faltatu; Ioanes *Leizarraga*, *Axular*, *Larramendi*, *Iturriaga*, *Mogel*, J. B. *Agirrek*... eskas hori nabaitu zuten; beren izkiribuetan argi aski ageri da.

1969 urtean agertu *Azalpenean*, Euskalzaindiak dio: «Euskalki
»guzien gaineratik eta guzien loturaz, euskera izkiriatu batasuna nai
»da.» [Ez preziski literario-batasuna, Irakaskintzako, Metodotarako, Ikastoletako baizik.]

Batasuna deitu txosten hortan dio Euskalzaindiak; «Ahal dela-rik, euskalki adar bakoitzak bere Literatura apur bat behar du izan» (Ipuiñak, elexaharrak, kantak..., baina euskalki bakoitzean, *bata-suna* eginez ere zentro aldera...); Euskalzaindiatik aparte, euskal »izkiriazaille oroen bilkurak egin... gero ere izkiriazailleek izanen »baidute azken hitza literatur-euskeraren batasunari buruz.»

Hor bertan, Lecuona Imanol jaunak dio...: «Idazleen artean, »idazleentzat egin bear dala batasuna; ez errian, ez Olerkietan edo »Nobelistikan; Ikastoletako liburuetan baizik.»

1968 urtean Arantzazun artu ziran erabakien artean esan zen: «Ortografiaz hautatu Batzordeak adiarazi dituen puntu geienak »onartuak izan dira. -H- letraren auzian, izan diren iritzeak entzun »ondoren, *erdi-bide* bat aukeratu da hasteko; *begi onez* ikusiko lu- »keala Euskalzaindiak, letra hori, bi bokal berdin, nahiz ezberdinen »artearen erabiltzen astea.» [Beraz, iñor bortxatu gabe.]

Honi buruz, erraten dut nik, idazle batzuk yaz, Argitasun bat eskatu zioten Euskalzaindiari: bi bokal bereizten direnen artean xoi-lik -h- sartzea (*-ohore-aho-oh- zuhur-*), eta diptongoa austen *ez denean* berriz, ez sartzeko; (adibidez, *-jaio- zaie- maila - alkateeri - iazko-* bezalakoetan); Gure artean austen ezdiran diptongoak ere ba- dira; *-bei- oi- nai- zoi- loi-* eta halako.

Erabakia dago, bai Iparraldeko izkirianten artean ere, konsonan-teen ondotik eztela -h- letra sartu behar (ez *th-kh-rh-ph...*). Euskal- zaindiak, Michelenaren bidez, txosten hortan dio, *-psykhologia- eth- nia -mythoa- thesia- physika-* eta halakoetan usatzea baino, xingleki idaztea obe dela, erabaki den bezala.

Aipatu idazle haiek, itzen astapenetan ere ez sartzekin, Idazkera aise erreztuko litzakela uste dute (neke baizaiote arront), salbu de- monstratiboetan (*-hau hori- hura-*), adberbioetan (*-hemen- hor- han-*) eta *Herria* (Pais) bezalako itzen batean.

Euskalzaindiko txosten horrek dio: «...Haur eta gazte euske- »raz irakasten baldin bazaie... premiazkoa da guztiei batera edo ba- »teratsu irakastea...» [Bainan, diot, Ikastoletan aurrei tokiko eus- kalkitik asi behar. Nafarroan, nafar-giputz-etik asirik; alabainan, XIX gn. mendeko giputz-idazleetik, aise nafarrokotik urbilago bai- daude, oraiko gipuzkoar idazleak baiño. Mocoroa aitak gomendia- tzen dituen autoreak hauek dira: *Haraneder*-en Testament berria, *Duvoisin*-en Biblia, J. Bautista *Agirre*-n Eracusaldiac, Gregorio *Arruen* Kempis-Itzulpena.]

A. Arana edo G. Arrúe-na dela dioten LIBERALEN DOTRIÑA liburuan irakurtzen ahal ditugu, Nafarroan usatu esaldi hauek; ...-borchazco alcartasuna -iragancor- (efimero) -egua ciertoa da (ez egui...) (a organikoa konserbatuz) zombait guizonac Obispoen escupean ez egon nai- = (ez -guizonac) (aktiboa -ek- eta pasiboa -ak- bereixten) inore ezin guezurta lezaquean (ez guezurtatu) (aditzaren radikala usatuz) lotsez estal ditezque- (ez estali)- aguer litezquean -menturaz hilco luque hura-, etc.

Barandiaran-en Ipuñetan, gaur bertan berdin: -anaie zaarrena-ri... (ez nai): —makilla-at eman ementzion —ikusí eban neskattilla bat— (ez makill eta ez neskattill-); autoreen idazkera hauek Euskalzaindiak obesten ditu.

«Obe litzakela, aipatu txostenak dio, euskaldun bakoitzak euskal»kiak oro ezagutzea [edo beinipein bizpairu]. Euskalari batek ere aski du, bereak ez dituen euskalkiak ulertzea; ezda gai izaten beste euskalkiz mintzatzeko, ez izkiriatzeko ere.» Erabakien bidez hau nahi da; a) euskalkiak ez ditezen elkarrengandik geyago urrundu. b) eta ahal diteken neurrian, elkargana bil, gero.

«Badirudi, euskera idatziaren beharretarako, egokiago direla (Bilbao euskaldun ez delarik) erdialdeko dialektoak, bazterretakoak baiño. Azaleko auzietan lortu behar dugu batasuna», dio txosten horrek.

Itzetan, Euskalzaindiak naiago ditu bizirik dirautenak, zaharkituak (arkaismoak) baino; zabalago edatuak daudenak, xoko bateko hitz arraroak baiño; hauek bazter uzteko dira. [Erregela hau ardura aundikoa da, geyenek segitzen ezpadute ere.] Edadura zabalago hori, autore zaharretan aurkitzen da; euskal autore gailenak eredu dirala dio, hortarako. Nafarroako autore oberenak, Axularretik asirik, lapurtarrak dira, Larreko eta Manezaundi-rekin; bai eta joan den mendeko giputz-idazleak (Mendiburu, Lardizabal, Barandiaran-en Ipuñak, eta lehenxago aipatuak; horiek denak K. Echenagusia-ren Lortegian aurki ditazke, bai eta Mogel, Astarloa, Frai Bartolo, Kirikiño, bizkaitarrak).

Txosten hortan irakurtzen da, «erabili behar genituzken diagramak dira: -dd-edo -y- (Mayi-onyo-) -tt- (-gutti- aitta-) = -ll- (Ollaran-Ollokiegui-) -ñ- (Urruña- Bithiriña- Gotañe- Loroño- Iruñe- bezalako itz eta izenetan dagoen gisan). Eztira beti -d-b-g- soñuak -t- -p- -k- gogorretan aldatzen, -lokarri- Aizkorri- bezalakoetan; -ikusgarri- lasterbide- eginbide- arras edatuak baidaude.

Zillegi uzten ditu; *-etzuen- -ez zuen- / baitu- bai du- baitdu /* bai eta berdin *-xori- xuri- prexitu- axola -taxutu- baigabiltza-*, gogortu gabe (*-txori-ajola- baikabiltza-*), lehenak obesten baditu ere. Nafarroan beti leunak usatzen dira, hala nola *-bake- barkatu- dolare- dorre- burdina-*, zaharrago eta jatorrago diralako, *-pake, tolare- torre- burnia-* eta halakoak baiño.

Euskalzaindiak dio fonetismoak eta laburpenak arbuigarri dirala; *biar- etxia- leiua- zun- dun-* (aboa- agoa- afoa-) bezalakoak, illunago diralako, osorik idatzita baiño; *-bear- etxea- leioa- zuen- duen-* (ahoa)...

Izen arrotzetan, aspaldi onartu zuen Euskalzaindiak, euskeraz idaztean ortografia propioa errespetatu behar dela; *Barcelona, Cuba, Venezuela, California* (Europako burdinbidetan usatzen den bezala). Eta erdal etorkiko deituretan berdin; *Viana, Cascante, Caparrosa*. Euskal deituretan, aldatu gabe idaztea, euskaraz ere, zuzen da; *Dassance, Elissalt, Retegui...*; euskeratuz, bere lege-forma gal dukete (egiteko eskubidea badugu ere, iduri luke orai, ameka korapilo aundi-gokoak baditugulaik izkuntzan, xuritzeko), aipatu izen horiek eta *Azanza, Elizalde, Erretegui*, ezpailirake pertsona berak.

Geografia -izenen auzia ezta oraino ukitua Euskalzaindian; baina idazle gailenek eta irakurtuenek *Londres* idazten dute eta ez *London*, *Holandia* eta ez *Nederlandia*, *Eskozia, Alemania* (eta ez *Doixterria*), *Chile* (eta ez *Txile*)...

Aditzaren erroa edo radikala usatzeko, zuzen jakin behar da, *-sar bedi- sar diteke- sar zaite- ar zazu-* esaten eta esan behar da; baina *sartu da- sartu behar du -sartu zen- artu du-*. Ez ta esaten *-sar da- ar zuen*, iragana edo pretérito formak baitira, eta hauetan beti, *-sartu- -artu-*.

-rr- diagramaren aitzinean bokala (*a-e*) usatzen du euskerak. *Erroma, arrazoin, arrosa*, baina zuzen esaten dira, *Rumania, románico, Rusia, Ruth*.

* * *

Bukatzeko erranen dugu, batasuna beharrezkoa dela irakaskintza eta Eskoletako bederen, baiñan oraindik osatzeko dugula; eta aipatu erregela horiek segituz urratska, euskalkiak beinikpein urbiltzen aal ditugula. Euskalkiak ezтира baztertu behar; eta erran ere behar da, batasun-idazkera edo ortografia hori, irugarren mailako ze-

regina dela gure izkuntzan; hori baino lehen, ameka korapilo xuritu beharrak dauzkagu *Lexikoan* eta *Morfologian*, geyenek bestela uste arren.

[Euskera izkiriaturu bateratu eta zuzentzearekin bakarrik, eztugula salbaturik mintzairia, erran behar da. Idazten den erdia ezda irakurtzen; eta Ulzama, Arakil edo Ayezkoako euskaldunek ezpa-dute bere mintzaira elekatu nai, Gipuzkoan (Bai eta geiago Bizkaian) ere alatsu gertatzen da; guraso aberri-zaleek parra-parra erdaraz, beren aurren aitzinean; bospasei euskaldun mintzazaileen artean, euskalzale erdeldun bat aski da, denak erdaraz asteko. Euskalzale direla diotenak txoilik, hemen euskaraz (zerbait bederik) asiko balirake (Alcoy-en edo Játivan valenzianoz bezala) Euskalherri osoa azpizgora aldatua legoke.

Ikastolek ezin dute beren lan eder guztiarekin, euskeraz mintzazeko oitura edo usarioa piztu; oitura misterio horrek politikeriekin deus gutxi ikustekorik du; eta oyu edo espantuekin are guttiago, askoen gorrotoa piztu baizik.]

Batasun-Idazkera hura zuzen eta graziakin erabiltzen ezdakienak, bere euskalki propioan idatzi beharko du; erregela xingle hau maiz ahanzten delako, izkribu latz eta aspergarriez betetzen dizkigute paperak.

Idazle eta irakurle ikasiek, bestalde, bi idazkera onartzen dituzte, zaharra eta berria; aldizkarietan eta idaztxapelgoetan, berria xoilik onartzen bada, idazle jator direnak bazter geldi ditezke, gure Parnaso xumearen kaltetan.

Aipatu den bezala, Nafarroan, Ikastaroeak eta Klaseek, lekuko euskalkitik, edo urbilekotik, asi behar dute. Nafar-giputz euskera ongi ikas ondolik (elkarren iduriko diren autoreak aukeratuz), lapurtarra irakurtzera pasatu. Hau da bide segurena, batasun-izkerara abiatzeko, texto atsegin, ulerterrez eta fonetismorik gabeko direnen bitartez, Alfabetatze Taldetako, Euskalzaindiak onarturik dituen bezalakoz.

A. APAT ETXEBARNE.



HAURREN ETA GAZTETXOEN*

PSYKOLOGIAZ

Adin bakoitzeko haurrak zer izakera, joera, nortasun eta nahimen edo gura duen jakite arren bildu ditugu gai hauek ARDOLD GESELL eta beste batzuen artean eginiko liburuetarik.

Beharrezko da haurraren nortasuna eta izakera jakitea, emango dituen erantzunen eta izango dituen reakzioen arrazoiak gogoan eduki ditzagun.

Honek ez du esan nahi, noski, joera guztiak bere hortan utzi behar direnik. Zuzendu beharrak ere badira. Baina zuzentzean nola jokatu erakusten daukute gai hauek: hots, haurra bere neurrian eta mailan harturik, berorrekina lana egiteko argi egiten daukute.

(*) "HAURREN ETA GAZTETXOEN PSYKOLOGIAZ" idazlana Euskal Udalekuetan haur euskaldunekin lan egiten duten begirale edo monitoreaentzat pentsatua dago, haurra ezagut dezaten laguntzeko. Lehen lan honek 10 urte arteko haurrak aztertzen ditu. Beste batetan 11tik 15 urte artekoak ditugu ikusten. Ez da hau, noski, tratatu bat, ezta urrik eman ere. Laburpen eran eginga dago eta datobilduma bat dela esan dezakegu. Balio beza, baina, euskaraz dagoen zientzi-literatura pittin bat, bederen, aberasteko.

HAURREN PSYKOLOGIA ADINKA

1. NORTASUNAZ

6 urtetakoa

—Bere universoaren erdia, zentroa bera da: berari buruz den guztiaz oso interesatua.

—Dena dakielakotan dago eta dena bere erara egin nahi izaten du.

—Bereak dituen gauzak arretaz gordetzen eta orobat erakusten ditu.

—Izena garrantzi handikoa du: bere izenez deitzea atsegin zaio. Amarekin gora behera asko ukan ohi du, baina ama etxean egongo ez den edo hilko den beldurra izan ohi du.

—Ez daki laguntza noiz eskatu. Behar duenean badaiteke nahi ez izatea.

—Beti aurrena, irabazlea izan nahi.

—Ez daki zer egin; baina nekez eman ohi du ontzat besteek esana edo proposatua: berak nahi duenaren antza dadukanean bakarrik.

—Sentibera eta burrukalaria, setatsua ohi da kontra egiten zaionean.

—Bere nahiz jokulagunen jokaera onaz edo txarraz interesatua.

7 urtetakoa

—Bere baitan mundu handia edukirik, beregan itxirik bezala bizi da. Agintzen zaiona entzun ere ez du egiten.

—Bere gorputzaz jabetua eta ohartua: bilhutsik, narrugorriarik ikusiko duten beldur da. Ez zaio laket inork ikuitzea. Lotsatia kontu hauetan.

—Besteak gaiztoak direlakotan dago.

—Bere beldurrak, hutsegiteek, inork negarrez ikusteak lotsatu egiten dute.

—Bere baitaratzen ari da: bakardadea maiteago du.

—Haur honen mundua, hala ere, irekitzen ari da; gizartean toki bat bilatzen ari da.

—Bere amak, irakasleak edo lagunek maiteko ez duten beldurra senti dezake.

—Bere tokia, xokoa nahi izaten du: mahaian, taldean, etxekoen artean...

—Ez da ain esaneko: «zergatik?» galde dezake.

—'Erantzukizunen' bat nahi du, baina ongi erantzungo ez duen beldur da.

—Dudakorra (ezeptikoa) erlijioaz.

—Hasi duen lana amaitu nahi izaten du.

8 urtetakoa

—Gizartekoia. Bere nortasuna besteen aurrean kontrastatu nahi.

—Bere buruaren izateaz, bere personaz jabetzen hasia.

—Barne-anatomiaz interesatua.

—Berriro munduaren erdi egiten du bere burua.

—Ez du haur bezala tratatua izan nahi. Nagusiak bezalakoa izan nahi du. Hazi nahia.

—Erabakia errezagoa du. Arrazoiak ikus dezazke.

—Negar egiten du, haserre edo errita «injustoak, merezi gabe-koak» egitean.

—Nortasuna duen beste persona batekin harremana behar du.

—Besteen arauz bizitzen saiatzen da.

9 urtetakoa

—«Hobeagotu» egiten da.

—Ordurarteko garrastasan zenbait utzi eta leunagotu egiten da.

—Haurra bere buruaren jabeagoa (independentegoa) da. Bera- gan gehiago konfia daiteke.

—Arduratsua: etxeko giltza eduki dezake egindizun edo kar- guren bat.

—Bere kezkek asti handia eramaten diote.

—Eskulana, jokua baino maiteago dezake.

—Ekinzalea: edozein langintzan «hoberena» izan nahi.

—Kexu asko du —une batekoak— bizitzako gauza zenbaiti buruz.

—Zuzenketak, inork zuzentzeak alegia, atsekabetu egiten du.

—Haur batetik bestera alde handiak ikus daitezke hemendik aurrera.

2. KUNTZAZ

6 urtetakoa

Kuntza edo sexo-ezberdintasunak interesatzen du: nola daiteken hori.

—Bilaketa hontan zenbait ekintza egin dezake, nola kuntza batekoak hala bestekoak.

—Bere organoak agertu nahia, eta berhoiekin jolastu daiteke.

—Beste kuntzaren jazkiaz jantz daiteke.

—Mutikoak, bera baino gazteago den neskato baten interesa ager dezake.

—Haurrak nondik datozen jakin nahia. Ezkontzaren ondorio dela suma dezake.

—Haurra ama baitatik nola ateratzen den jakin nahia.

—Haurrak amaren sabelean hazitzen direla onhar dezake.

—Bera baino zaharragoren batek kuntzari buruz ezer esaten badio, konfusioa sortzen zaio. Amari galde ohi dio.

7 urtetakoa

—Kuntzarekiko interesak asko baretu zaizkio.

—Bilaketaren bat egin dezake edo jokuren bat, bainan lehen baino gutiago.

—Interesa, giza-emakumeen bereiztasuneaz dezake.

—Urte hau izanen da, agian, neskato-mutikoek, kuntzarekiko axolarik gabe, jolas egingo duten azken urtea.

—Neskato-mutikoen artean amodio-erromantze handiak sortu ohi dire, elkar ezkongai eginaz.

—Beren etxetan beste haur bat jaiotzea nahi, bere kuntza berekoa.

—Amaren haurbide edo umealdiaz arreta, datorrena nolakoa den, nola jaten duen...

8 urtetakoa

—Berriro kuntzarekiko interesa sortzen zaio.

—Bilaketa eta jokuak 6 urtetan bezain ugariak ez dira izaten. Neskatoak oso *sentiberak* dira mutikoekin jolas egiteko edo ukiketan aritzeko.

—Xelatan egon ohi dira, txiste gordinak, farrak...

—Neskatoak hileroko odolgaltzeaz bilaketan hasten dire.

—Mutikoak neska politak eta, alderantziz, neskatoak mutil politak aurkitzen dituzte.

—Mutila zenbait neskakin ibil daiteke, baina badaki batekin bakarrik ezkon daitekoela.

—Jokuetan kuntza biak berezten hasten dira.

—Haurra ama baitan nola hazten den jakin nahi.

—Neskato batzuek aitaren zerikusia galde dezakete.

9 urtetakoa

—Kuntzaz mintza daiteke, bere kuntza berdina dutenekin.

—Bere kuntza-organoen gorabehera eta eginkizunaz interesa du.

—Atsekabe dezake bere gorputza bilhutsik, narrugorrirek agertzak.

—Aitari neskak eta amari mutikoak bere soina bilhutsik agertu nahi eza dezake.

—Kuntzarekiko irainak (insultos sexuales).

—Jokuetan kuntza biak bereiz. Elkartzeak, elkar musukatzeraz bultzatzen dezake.

—Beregan «hazia» ba ote dukean, galde dezake.

—Badaiteke, haurra «cesarea» ebakuntzaz ateratzen dela batzuek uste izatea.

3. SALATZEAZ ETA AITZAKIAK EMATEAZ

6 urtetan

—Gauza txar bat, edo txarki, zergatik egin duen zuzenki galdetzen bazaio,

* ukatu egiten du bere burua

* edo bestebati erantsi

* edo norbaitek eragin diola esan.

—Aitor dezan nahi bada, «nolatan egin duk?» galdegin, besterik gabe.

—Bizirik gabeko gauzak kulpatu ditzake, ezer gaizki ateratzen bazaio.

—Gauza handien errua, ttikiena baino aisago onhartu ohi du.

7 urtetan

—Beste batzuei egozten die errua.

—Aitzakia ematerakoan, bere burua zuritu nahi izaten du: «Oraintxe egin behar nuen».

—Beragandik urrun jaurti ohi du liburua, irakurri ezin badu, edo kartatan galtzen badu.

8 urtetan

—Bere errua ukatzen badu ere, ez dio beste inori ezarri ohi.

—Bere burua errudun aitortzen badu eta barkamena eskatu behar badu, «Ez dut gehiago egingo» esan ohi du.

—Bere egiteak balora dezazke eta erruduntzat eman bere burua.

9 urtetan

—Bere errua onhartu ohi du.

—Baina egin ez duten zerbaiten errua baldin egozten bazaie, oso atsekabetzen dire.

—Inongo minik hartzen badu, ondoan duen laguna jo ohi du.

—Aitzakiak ifini ohi ditu, ezer gaizki egin duenean: «Honek bultzatu nau».

4. ZUZENKETA, ZIGORRA, GORESPENA (elogio)

6 urtetan

—Ezer agintzen zaionean, aurrena ez du egin nahi izango, baina gero, berea balu bezala, egingo du.

—Behartzen bazaio, aurka egingo du: «Ez dut nahi!». Hobe da zuzenean ez agintzea, «ezetz egin hau» esanez edo...

—Agindu sotil eta argiak behar ditu, bide zuzena hartzeko.

—Haukeran, txarrena hartu ohi du.

—Gorestea eta bere egintza ontzat hartzea nahi du.

—Zigorrak, gehienetan, ez du zuzenagotzen bere jokabidea.

—Kritikatzen bazaio, lotsagabetu daiteke eta haserretu ere.

—Bakarrik usteari (aislamiento) ongi erantzun dezaioke.

7 urtetan

—Ez du erantzuten (reakzionatzen) aguro: moteltsu erantzuten du. Esandakoak entzun ere ez ditu egiten. Bai eta ahaztu daiteke aginduaz.

—Eztabaidatu dezake agindua, esana: «Zergatik egin behar dut nik hori?».

—Edo esana egiten hasi eta gero gal daiteke, ahaztu.

—Aginduak argi eta garbi eman behar.

—Zigorra zein izango den jakin nahi izaten du.

—Berarekin planifika daiteke; hobe da.

—Goresteari ongi erantzuten dio. Bainan ez du beste adinetan aina behar.

—Nigar egin dezake, kritikatzten bazaio.

8 urtetan

—Nagia, esana betetzeko eta aitzakiak bilatuko ditu. Baina azkenean egingo du.

—Nagusi baledi bezala tratatzea nahi du.

—Aginduak garbi esatea nahi arren, «indirektak» esatea ere nahi izaten du.

—Berehalako sari bat irabazte arren lan egitea laket du, eta ez, laguntzea bakarrik.

—Goretsia izatea laket du.

—Maiz, zuzenketa ttiki bat ere ezin du eraman.

—Txantxak ezin ditu eraman.

—Elkar kritikatzan eta goresten dute.

9 urtetan

—Egiten diharduena utz dezake, nagusi batek esana egiteko. Baina, bere jarrera hala nolakoa baldin bada, beranduragoko utz eta luza dezake nagusiak agindua egitea. Bere interesako zerbait baledi, bere atentzioa, arreta irits daiteke.

—Agindu zehatzak behar ditu eta aldiro gogoraraztea.

—Ez du lehen aina eztabaidatzen.

—Aginduak-eta ez ditu laket, baina honi buruz arazo larri egiten ez badugu, azkenean beteko du esana.

—Bere lanaren balioa arrazoiki azaltzea aski zaio; gorespina ontzat ematen du.

—Zemai (amenazo) bat: berak ari edo nahi duen gauza kentzeko edo galeraztekoa, aski du bide zuzenera erakartzeko.

—Merezigabeko (injusto) zigor batek sumin dezake.

—Kritika, lehen baino hobeki hartzen du.

—Lotsa daiteke egindako okerraz.

5. ARRAZOITZEA

6 urtetan

—Erabakikaitza. Nahasi egiten da.

—Haukera egitean ez du erabakia aldatzen.

—Nagusi batek berakin arrazoitu nahi baleza, ez du bere aburua aldatuko, haserratu baizik.

7 urtetan

—Aisago hartzen du erabakia.

—Aldatzea, artean, zail zaio, bainan haserrazteke entzun dezake arrazoitze bat.

—Berak beretzat dituen arau batzuen erara bizi nahi du. Bere «ethika» bat badu.

8 urtetan

—Aisa erabakitzen du. Bainan zailtasunak ohi ditu bizitzako gauza ttikietan.

—Arrazoiak entzunik, alda dezake bere erabakia.

—Laket du, ordea, berearekin irtetea.

9 urtetan

Berdintsu.

6. ONAZ ETA GAIZTOAZ DUEN OHARMENA

6 urtetan

—Gurasoek uzten edo debekatzen diotenakin lotua du onaren eta txarraren sentidua.

—Ez daduka garbi, baina sumatzen hasten da zer dagoen ongi eta zer gaizki.

—Bere lagunen jokaeraz kezkatua. Gaizki jokatzeko direnean ohar-tzen da.

—Besteak zuzenak ez direla pentsa dezake.

—Gehien axola zaiona: berearekin irtetea.

7 urtetan

—Onaz eta txarraz zeredozer sumatzen du.

—Jokaera batzuk (obeditzea, gauzak onez egitea) onak dira eta besteak txarrak.

—On izateko arauak sortzen ditu, eta hauei dagokienez bizi-tzen da.

—«Joku garbiaz» sentidu bat ba du.

—Ez du epaitzen, 6 urtetan aina, bere lagunen jokaera jolas eta olgetan.

—Bera batzutan ongi jokatzeko da, bestetan ez. Etxetik at hobeki.

—Ongi jokatzeko saiatzen da. Ongi jokatzeko duenean harrotu egi-tzen da.

—Gaizki jokatzeko, gauzak alferrik galdu besterik ez duela egi-ten ikusten du.

8 urtetan

—Onaz eta okerraz ohar-tzen da.

—Ona edo txarra ez da gurasoek uzten edo galerazten dutena ba-karrik.

—«On» izan nahi du. Hori apreziatzea nahi.

—Nagusien arauz, haiek direna uste duen bezala, bizi nahi du.

—Balorazio-zentzu batek eraman dezake, on izan ez dela uste izatera.

—Barnez atsekabetua geratzen da, ona izan ez denean. Bainan ez zaio laket bere egite gaiztoak onhartu beharra.

9 urtetan

—Ez du pentsatzen «ona» - «txarra»; baizik «ongi» - «gaizki».

—Gauzak zuzenki egin nahi.

—Beste haurren jokaera epaitu egiten du: «Lagun ona dut».

7. EGITEAK ETA INTERESAK

6 urtetan

—*Buztinaz, ondarrez eta urez* jolasten da.

—Ezkutuketan. Ekilibrio jokuak laket zaizkio (sokean...).

—Pilotarekin.

—*Eratu gabeko jokuak*: zuhaitzean gora, igari.

—Labainketa edo patinajea.

—Zurgintza soil bat (mailu, zerrakotea...).

—*Mahaieko jokuak*: anagramak, dominó, nahasmahas...

—*Margotu, marraztu, ebaki, paperak itsatsi*.

—*Bildumak*.

—Imprenta-hizkiak (letrak) margotu, gero deletreatzeko.

—*Idurimen jokuak*: zaldi bat, itsasontzi bat, berebil bat, gudari bat... dela iduri.

—Etxegintzarako idurimen handia: «bloque»ekin.

—Andrakilak edo panpinak (N). Nagusien jazkiak jantzi (N).

—Eskoletara, etxetara... jolastu (N).

—Hojalatazko jostailuak, «mecano» sotilak (M).

—Gudutara, behizain, unai edo vaquerotara, guardia eta lapurretara jolastu (M).

—Tunel eta putzuak zulatu (M).

—Eraman-ekarrirako tresnen ardura: kamioi, tren, egazkina...

7 urtetan

—Zenbait «mania» du: *iskiluekin* jolastu. Margotu. Liburu farre-ragileak.

—*Jokua bakartiagoa*.

—*Buztinaz* ere jolasten dira batzuk. Lorategiko edo baratzekeo tresnaz ardura apur bat.

—Aztikeria (magia) eta trukoak. Nahas-mahas.

—Tarjetak, botella-tapak, harriak, inolako traste-pusketak biltzen eta trukatzten ditu.

—*Igerian egiteko zaletasun handia.*

—Bibliotekatara, trenetara, ofizinetara jolasten da, gauza askokin.

—Pilota jokua sumatzen hasten da.

—Paperezko andrakilak eta hauen jazkiak ebaki (N).

—«Etxetara» jolasten dira: nagusien erropaz jantzirik. Edo «eskoletara» maistraren papera eginez (N).

—Soka saltoa (N).

—Pilotarekin: boteak eginez (N).

—*Eguratsean*: laisterka, burrukan, zuhaitzetan gora (M).

—*Zurgintza*: zerrakote batekin edo... (M).

—Kaja hutsez «aparatoak» egin ohi ditu.

—Paperezko egazkinak egin eta jaurti.

—*Polizia-lapurraketan*. «Comandoak» Guduak.

—*Txabola zalea oso*. Bertan jolasten dira.

—Kimikaz, telegraphiaz, itsasibiliaz ardura.

8 urtetan

—*Ez dira bakar zale*. Laguna ukaitea nahiago dute (nagusia nahiz haurra).

—*Edonolako jokuak*: etxe barruan eta kanpoan; lana eta olgeta edo jolasa bereizten dute.

—Mahaiko jokuak: partxesi, domino, damak nahas-mahas (zailak atseginen).

Joku sotilegiak zapuiztu egiten ditu.

—Antzezteko zalea.

—«Aparatoen» adina. Gauza asko eduki nahi eta berhoriez egin zerbait.

—Bere bildumak batu eta antolatu egiten ditu.

—*Talde jokuak, eratu gabekoak*: basa-laisterketak, elkar eraso-tezak (persegitzeak) burrukak.

—*Ixileko lagunarteak edo clubak*. Luzarokoak ez.

—Urte sasoiak dakarren jokua:

udan igariketan eta arranketan

neguan labanketan, sky

udaberrian bolak...

—Neskak eta mutilak bereizten hasi dire jokuetan.

- Andrakilekin asko jolasten da.
- Etxetara, nagusien egite zailenak ere antzeztuaz (N).
- Paperezko andrakoakin dramak eta antzerkiñoak egiten dituzte (N).
- Tresnak erabiltzen hasten dire (M).
- Guardia eta lapurretara jolasten da (M).
- Tren, egazkina eta holakoekin jarraitzen du.

9 urtetan

- Jolas eta lan asko egin ohi du: lehertu arte.
- Gero egingo duena pentsa ohi du.
- Haur batetik bestera alde handia daiteke: batzuek irakurri, irrata entzun besteak jolas.
- Lera edo narra (trineo) koskor batetan lerratzea, labantzea duke jokurik atseginena.
- Kirol zalea: futbol, beisbol, igariketa.
- Lagunarte eratuen zale* (scout...).
- Bilduma zenbait: estanpak
menastak (mineralak...).
- Basoan zehar ibilaldiak (exkursioak).
- Animali zalea: zaintzen dituztelakotan gaude.
- Paperezko andrakilekin antzerkiñoak egiten dituzte (N).
- Titere edo marionetak gustoko (N).
- Josten eta sukalde lanetan has daitezke.
- Mekano eta taller lanak (M).
- Burrukak.

8. IRAKURKETA, MUSIKA, ZINEA

6 urtetan

- Laket zaio norbaitek beretzat irakurtzea.
- Berakiko historioak laket zaizkio.
- Ipuin batetan, gertakizun txarren batek sumin dezake.
- Historio eta ipuin zale. TBO zale.
- Pelikula motzak gustatzen zaizkio.

7 urtetan

- Irakur zaleak. Mahaira ere eraman nahi izaten dute liburua.
- Edo beste norbaitek hots handian irakurtzea haur, animali edo izadi gaiak.

—Mutilak: gudua, gudoste, arma, hegazkin eta holakoei buruz ere bai.

—TBO zale: animali eta supergizonen gertakariak.

—Pianoa ikastea gustokoa du. Irrata hots handian. Oesteko aventurak ikuste gustatzen.

8 urtetan

—Atsegin irakurtzea.

—Neskek mutilek baino gehiago irakurtzen dute.

—Humorea duten ipuinak laket. TBO zale.

9. EMOZIO EDO BIHOTZ ZARRASTADAK

6 urtetakoa

—Bihotzbera. Alde handia besteekin.

—Gorabehera handiak: ona nahiz gaiztoa; ezta nahiz garratza; maitagarria nahiz ankerra.

—«Dena» badaki: harrosko.

—Goretsia izatea laket du. Samindu egiten da errita egiten bazoia.

—Maitatu nahiz gorrotatu egiten du ama.

—Negarbera; haserrebera.

—Burrukalaria, eztabaidazalea; inor aisa jotzen duena. Nagusiñoa: denak menpe eduki nahi. Zaratatsua, garrasi berehala egiten duena. Errez aztoratzen dena.

—Ergela; arrazoirik gabe farre egingo dizu edo keinuak.

—Inork zuzentzea ez du nahiko; baina konformakoa ere ba da.

—Besteak salatu eta kritikatuko ditu; aitzakiak asmatuko ditu.

—Begiz begi begiratzen du: begirada bizia eta zorrotza.

—Beste hurrek dutenaren bekaitza.

—Agian ez dizu «humoreari» ongi erantzungo.

—Mintzaira erasotzailea erabili ohi du: irainak, amenazoak, gordinkeriak...

7 urtetakoak

—Sentimenduen adina. Besteekin harreman errezagoak.

—Serioa, kopetiluna: pentsazalea.

—Beretzako gehiegi diren helburuak hartzen ditu.

—Ataka edo kinka larrietatik aldeginaz gordetzen, gerizatzen du here burua.

—Bere buruarekin haserraten da. Nahi duena baldin iritsi ezin badu, zerbait puskatuko du.

—Sarritan goibel, humore txartua.

—Gorespenari eta erruari sentibera. Ez da lasaitzen gorespena egiten zaionean.

—Daitekena amodioa eta atxikimena (afecto) ontzat ez hartzea. Bainan bai berak ematea.

—Besteak atsegin nahia.

—Bere anaien pribilegio edo ahalmenen espatsu (celoso).

—Humoreaz ez duzu menderako.

—Etxekoen artean edo eskolan dukean tokiaz arduratua.

—Negar egiteko erabili ohi du mintzaira: inork ez nau maite, jendea gaiztoa da, ez du zerez jolas egin. Haserratu denean, isilik gera daiteke, lehen berritsukeritan iharduten zuen bezala.

—Burukomin ta nekean ukan ohi ditu.

8 urtetakoak

—Berriro zaildu egiten zaizkio besteekiko harremanak.

—Dena dakialakotan dago; bainan onhartzen du besteek gehiago jakin dezaketela.

—Dena dramatizatu egiten du; baina egia apur bat badaramake dramatizazioak.

—Amarekiko exigentea, lotsagabea, garratza; nahiz oso eztia, maitalea.

—Aita eta ama elkarrekin ikusiaz espa.

—Beste eta bere buruaren kritikolari.

Berekoia. Menderatzailea nahiz zerbitzu handikoa.

—Negar edo farre aldiak etorriko zaizkio.

—Sarritan alaia.

—Besteek personalki egiten dutenaren ikusmira.

—Errudun iduritzen zaio bere burua.

Humore zalea. Ipuinetan humorearekin asko gozatzen du, persona batek beste iruzurtzen duenean batezere.

—Maisua-maistra hutsegiten ikustea atsegin zaio. Etxean, bera dela eta isekak egiten bazaizkio, sumindu egiten da.

—Berritsua: asko mintzatzen da, gehiegikeriak esaten ditu. Hasure edo nekatua dagoenean, hots handitan mintzatzen da.

9 urtetan

—Independienteagoa. Oso aldakorra.

—Sentibera.

—Erantzukizun handiagokoa, nagusigoa, zerbitzulariagoa, konfiantza merezi duena.

—Bere jokaera epai dezake. Lotsa daiteke egindakoaz.

—Dena xuxen egin nahi du. Haserratu egiten da, besteak bere arauetatik okertzen direnean.

—Gurasoekin haserratu egiten da, bainan pozik ohi da berekin. Bere handitasuna agertzen die.

—Norgehiagoka laket zaio.

—Leiala da, eta bere lagun bat edo anaia ttikiagoa iagoten, defenditzen du.

—Laket zaizkio gorespenak.

—Ekintza batzuek itsutu egiten dute eta lehertu arte ihardungo du horietan.

—Lan batetan ari denean, buruko edo begiko minak dagoela esan arren, bere hortan jarraituko du.

—Humorea guziz atsegin zaio. Ustekabedun ipuinak atsegin zaizkio. Berakiko isekak onhartzen hasten da.

10. NEGARRA

6 urtetan

—Haserre negarrak, garrasika.

—Nagusi batek farre egin araz dezaioke negarrez ari delarik ere.

—Negarti: edozerengatik egiten du nigar.

—Benetako zauriak eramango ditu onez, baina urratu ttiki batengatik nigar egingo dizu.

7 urtetan

—Negar gutiago. Goibel jarriko zaizu.

—Negar egitean, zotinka egingo du; baina mendera dezake negar gura.

—Lotsatu egiten du inork negarrez ikusteak.

—«Negar gureak nago» besterik ez dizu esango.

—Barne-egoera aldakoiak: ezta nahiz humore txartua eta negartia.

—Zigortzen baduzu, gogor mintzatzen bazatzaio edo erabaki ezin badu, negar egingo du.

8 urtetan

—Nigar gutiago egingo dizu; baina sentibera da eta begiak aisa malkotzen zaizkio.

- Ustekabeek eta kritikek min dezakete.
- Bere emozioak dramatizatu egiten ditu.

9 urtetan

—Duen emozioak menderatu eta itotzen badu, nigar egin dezake: haserre dagoenean, nekatua dagoenean.

11. BERE BURUAREN NAGUSITZA ETA HASERREA

6 urtetan

- Iazarle edo erasotzaile da oso, nola hitzez hala egitez.
- Kasketak: bere burua lurrera jaurti, ostikoka eta kolpeka. Gela batetara bidaltzen baduzu, ez da egongo eta ixten badiozu atea, berruan zerbait apurtu nahiko du.
- Iraindu egiten du. Hitzez zemaitu.
- Eztabaidatu: «ez dut egingo»; iazarri egingo zaizu: «ez dut nahi».
- Nagusiei eta jokulagunei ostikadaka egingo die.
- Krudel daiteke animalia eta haurrekiko.

7 urtetan

- Ez horren erasotzaile. Gutiago haserretzen da. Ez horren kas-kagogorra amaren esana egiteko.
- Anai'arrebekin burrukak.
- Inor jotzeaz amenaza dezake.
- Ostikadaka, harrika ihardun daiteke.
- Hitzez iazar daiteke.
- Kasketatsu, aldegin dezake jokulekutik edo gelatik.

8 urtetan

- Ingurukoekin harremanak, erasoz baino gehiago ikusmiraz.
- Erasotzen edo kritikatzan dutenean, beste erasoz baino sako-nago erantzuten du.
- Egitez gutitan erasoko du, hitzez gehiago.
- Aitzakiak asmatzen ditu eta iraindu ohi du.

9 urtetan

—Burrukak eta «zigorrak» ugariak (M) baina jolasetan, olgetan gehienbat.

—Eraso, hitzez eraso ohi du. Besteek esaten diotenari iazarri ohi zaio.

—Nagusien aginduen aurrean, bost axola zaionekoa egiten du.

12. BELDURRAK ETA AMETSAK

BELDURRAK

6 urtetan

—Beldurrak gehitu egiten zaizkio; bizi izandako zerbaitetik datozkioke.

—Sorgin eta «goitikoen» (sobrenatural) beldur.

—Pizti eta zakur handien beldur. Oihan eta xomorroen beldur. Ostots, haize... Belarriak estali edota beste haur bat konsola dezake.

—Tutu, telephono, komuna eta hots luzeen beldurra dezake.

—Ama hilgo ote zaion edo ezer gertako ote zaion beldur.

—Ohepetan edo oihanetan, basoetan ezkutaturik dagoen gizonaren beldur (+ N).

—Zaurien beldur: urratu, ebaki ttiki.

7 urtetan

—Beldur sakonagoak: itzal, goitikoen beldur.

—Gudu, xelatari, lapur edo ohepean dagoenaren beldur.

—Beldurra garaitzen hasten da, bere aurretik norbait joan eriaz, edo argia biztuaz.

—Gurasoek, lagunek edo irakasleek maiteko ez duten beldur.

—Egoera berrien beldur: eskolako lan berria.

—Irakurgaiek, TVk, irratak-eta beldur horiek sutzen dizkiote.

8 urtetan

—Beldur gutiago, kezka gutiago.

—Burrukan galduko ote duen, maiteko ez ote duten beldur daiteke, artean.

—Ekaitzaren eta, orobat, hotsen beldur ttikiago.

—Ilunak izutu egiten du, bainan gauetz irten nahi izaten du gurasoekin.

—Egoera beldurgarriak behin-da-berrero sortzerazten ditu, nola soluziona jakiteko.

—Neskek arrotzaren beldurra dezakete.

—Besteak izutuaz (Buuuh! eginaz edo) gozatu egiten du, edo ipuin beldurgarriak kontatuz.

9 urtetan

—Beldur guti; haur batetik bestera alde handia.

—Eskolan galdu, frakasatuko duen beldur da edo etxeke zailtasunei.

—Bere hutsek ere nahasi dezakete.

—Elkar izutuaz gozatu egiten dute.

—Zerbaitek izu handia eman diela esaten dute. Bai eta «ez naiz ni erraz izutzen».

AMETSAK LOTAN

6 urtetan

—Ametsak farregarriak edo izugarriak; atseginak edo txarrak. Inguma edo ameskaitzak (pesadilla) guti.

—Animalia guttiago ikusten du ametsetan. Hala ere, axeriek, hartzek, lehoiek edo sugeek erasotzen eta aginkatzen dute.

—Etxeko animaliak ikus ohi ditu.

—Sua, ostotsa, oinaztarria, gudua.

—Fantasmak, aingeruak.

—Neskatoak, beren gelan sartzen ei diren gizon gaitoen ametsak izaten dituzte.

—Ama hil edo zauritu egiten zaie, edo amak haurra uzten du.

—Amets atseginak, egunero dakusan personekin: lagun, senide... Ametsetan farre eta hitz egin dezake.

—Aztoratua baldin badago, amaren ohera joan daiteke. Bai eta ametsa jalki ere.

7 urtetan

—Amets gutiago, amets goibek atsekabeak behintzat. Ameskaitzen azken urtea, agian.

—Animaliak ikus, ihes egin ezinik gerta, inork erasotzen dituela amets egin dezakete adin hontan.

—Bere buruarekin amets asko egiten du.

—Hegan doala, itsasoan murgiltzen dela, airez dabilela.

—Kinka larrietan dabilela ere induritzen zaio.

—Fantasmak, goitikoak.

—Zineak eta irratak zerikusi handia du honen ametsetan.

8 urtetan

—Oso gutti esaten du bere ametssez.

—Alde handia haur batetik bestera.

- Batzuei laket zaie ametsak egitea eta gero ametsak jalkitzea.
- Amets atseginak ohi.
- Mutiko batzuek berriro animaliekin egiten dute amets.
- Zinean ikusitakoekin orobat.
- Ametsetan diharduelarik, ez du nahi izaten itzar arazterik.

9 urtetan

- Haur askok ohi du amets izugarriak: zauritzen edo jotzen edo eramaten edo hiltzen dituztela.
- Mugimentuko ametsak: igari egin, hegan egin jira-biraka ibili...
- Ekaitzak, suak erasotzen duela egiten du amets.
- Batzuei laket zaie goizaldera amets egitea, eta berriro lokartu nahi izan ohi dute, ametsa amaitzeko. Gero ametsak jalkitzea ere gustokoa dute.

10 urtetan

1. NORTASUNAZ

BERE BURUAZ (bere «nitasuna» —el yo—)

- Ez da bere buruaz gehiegi kezkatzen, den bezalakoa onhartzen du. 9 urtekoa baino errezagoa dela diote gurasoek.
- Kezkarik gabekoa. Oso zehatza; ez du generalizatzen.
- Erantzukizunaren aurrean, ez da axola handikoa.
- Bera gero aita izan daitekeala jakiteak kezkatzen du eta bere haurrak nola trata beharko dituen.

BERE BURUAREN BALIOAZ

- Alderdi onak: bere meritoa, eskolan edo kiroletan balio dute-naz neurtzen dute.
- Akatsak: egoera zehatzaren aurrean nabaitzen dituzte beren erruak. Bai eta ere gauza batzuk egitean: gezurrak esatean, hitz zartarrak esatean...
- Arazoak: askok esaten du ez duela holakorik. Eskolako lanek ematen dizkietenak beste askorik ez du. Bai eta ere etxeko animaliarik ez izateak. Gauza asko eduki nahia.
- Bere «nitasuna» non du?: buruko garunean edota bihotzean (uste dute).

IRRIKAK ETA JOERAK

- Nor edo zer nahi edo maite gehien:
 - gurasoak
 - zaldiak
 - zenbait ekintza: labaindu, marraztu jolasa...
- zenbait gauza izan nahia; ehiztari, futbolari, sendagile, mi-siolari...

ATSEKABEGARRIAK

Gudua, lana, eskola, maisu-maistra, gaizki erabiltzen duen jendea, jaki batzu, curia den egun batetan etxean geratzea.


NAHIAK EDO GURAK

«Zer nahi duk» galdeginenez geroz: bizikleta bat, zaldi bat, zakur bat, pistola (M), umeak (N). Bai eta: osasuna, hobeak eta langilea-goak izaita. Askok esaten du baserri batetan biziko litzatekeela.

2. ONAZ EDO TXARRAZ OHARMENA (ethika-sentidua)

- Askok esaten du ba dakiela ona eta txarra berezten.
- Beste askok, berriz, ezetz.
- Ba omen dakite gauza bat ongi egina noiz dagoen, ala gaizki egina noiz dagoen.
- Ona izan nahi duela dio askok, nahiz batzutan gaiztoa izan.
- Neskek, batezere, diotenez, kontzientziak («barrungo harrak») esaten die noiz egiten duten gaizki eta noiz ongi.

JESUS M. ARRIETAK,
bildua eta euskaratua.





Aurtengo udazken ontan berealdiko perretxiko-jaiak izan ditugu Euskalerrian. Billerak, sariketak, itzaldiak, elkarrizketak, erakuspenak eta abar.

Batzuek Leitizan, Galdakanon eta Gasteizen egin dira ta beste batzuek berriz Donostian eta Tolosan.

Tolosan egin zan gañera perretxiko-sukaldarien artean gain-gaineko sariketa bat. Eta lenengo saria bertako Luis Angel Cereceda'k irabazi zuan; bigarrena berriz Ondarrabiako Juan Atxukarro'k eta irugarrena Donostiako Faustino Jiménez ezagunak.

Perretxiko-jai oriek zirala-ta eman ziguten berri polit bat ere. Alegia, Donostiako karta-sillu-zale porrokatu batek ia irurogei ta amar perretxiko gaiezko silluak gordetzen dituala. Geienak, Checoslovaquia, Mongolia, San Marino ta Bulgaria'koak omen dira, ta besteak berriz Congo ta Republica Centroatricana'koak. Ta euren gaiak, zeazki, kuletoak, galanpernak, ziza zuri ta oriak, barrengorriak eta abar.

Jakiña, berri txar batzuek ere eman zizkiguten: gipuzkoar batzuek perretxiko pozoituak jan eta gaixo zeudeia. Are geiago: Italian, Venecia'ko bi ume koskor ontoekin pozoituta il zirala.

Ezin uka, gaurko sukalkintza-mundu nastu ontan gutxi dirala perretxiko-gai auek bezain ernagarriak.

Onatx, lengo maiatzean Elgoibar'ko baserri batean, bertako ume batek goizean lenengo aldiz Jaunartu zuala-ta, eguerdian larogei-bat bazkaldarrek egin zuten otorduaren jaki-errenkada:

Zizka-mizkak: urdaiazpiko, lukainka ta atun-zatitxoak, bokartak eta Prantzi-porruak.—Salda garbia arraultz-gorringoekin.—Legatza prejitua.—Kroketak.—Ollaskoak barazkiekin saltsan.—Arkume errea gatz-ozpiñarekin.—Mamia ta arraultz-opillak.

Arkumeak eta ollaskoak, etxean bertan aziak ziran, eta mamia ere etxeko ardien esnearekin gertua.

* * *

Ona berriz emen erderaz, Bilbon, Begoñako jatetxe txit ezagun batean, *Chaine des Rotisseurs*'eko bazkideak urrillaren 30ean egin genduan tropical-afariaren jaki-errenkada:

Aguacate a la Isabela de Sagua.—Pollo a la criolla con arroz a la indiana.—Ananás al Kirsch.—Ron El Guajiro.

* * *

Azken-aldi ontan gure jan-edan-gaiaz idatzitako iru liburu eskuratu ditugu: *Guria, Cocina Vascongada; La Cuisine Rustique, Pays Basque;* ta *Los vinos de Rioja.*

Irurak ernagarriak dira, batez ere azkenekoa. Au, Llanos Gorostiza'rena da, ta zalantzarik gabe beinere oraindiano Erriojako ardoei buruz argitaratu dan onena.

Beste liburutxo bat ere egun auetan eskuratu degu. Au Madrid'eko gure adiskide *Cofradía de la Buena Mesa*'koak argitaratu dute, ta bere izenburua *Madrid Gastronómico 1973* da.

Liburutxo ontan ere erabiltzen dira aldiz-aldiz (batzuetan egoki-samar eta beste batzuetan berriz ez ain ongi) Euskalerriko jaki-gaiak. Gañera, badatozte bertan Madrid'eko euskal-jatetxe batzuen izen, kondairatxo ta jaki bereziak ere. Adibidez, *Trabuco, Guria, Zarauz, Señorío de Bertiz, Gure-Etxea, Príncipe de Viana* ta *Alcalde*'renak.

* * *

Lengo udaran, Erriojako erri txiki-polit bateko ostatu batean, *Pura* sukaldari ospetsuarekin itzaspertu txit atsegin bat egin nuan.

Bilboko irakurle guziok dakizuten bezala, doña *Pura* Iturralde, Santiago Garmendia jaunaren alarguna, urte askotan, Matxin-kaleko

El Marinero zeritzan jatetxeko etxeoandre ta sukaldaria izan zan.

Esan bezala, gure elkarrizketa zoragarria izan zan, eta bere aotik entzun genituen sukalkintzari dagozkien egia eder ugari: alegia, marmitako deritzaion jakian lursagarriak atunak adiña ajcla badutela; arraultzopillak, egin bezain laister serbitzatu bear dirala, ta ez gero *zurezkoak* biurtzen diranean; gaurko bei-aragiak, etzekiela zergatik baña, geienetan batere *gustorik* ez duala izaten; sukaldean beti esku-zabala bear dala izan eta etzaiola diruari begiratu bear, eta abar eta abar.

Ar zazu, *Pura* adiskide, errenkada auen bidez, nere esku-muin biotzkoi bat.

* * *

—Kaxo, Joxe!

—Kaxo, Pello!

—Egia al da lengo astean ikusi uala Miarritzen *Azkenengo Tangoa* *Parisen* deritzaion pelikula?

—Bai. Ta zer?

—Ez, Ezer ez. Eta zer moduzkoa iruditu zitzaian?

—Txarra. Oso Txarra.

—Oso txarra?

—Bai. Oso txarra. Beste gauzarik esan al diteke, gaztarekin metal-ura edaten dan pelikula batengatik?

* * *

—Zer moduz ire erri ortan?

—Ongi.

—Oraindik ere irauten al dik Mañuelen trabenak?

—Bai. Ta, gañera, sekulan baño jende geiago biltzen dek bertan.

—Len baño ere jende geiago?

—Bai. Orain erriko apaiza ere an biltzen dek gurekin. Ta elkarrekin egunero baxo-erdi batzuek artzen dizkiagu.

—Ori dek demokrazixa, ori...

—Egia esan, nik etzekit demokrazixa zer dan. Baña guk orain erriko apaizarekin konpianza aundia zedukagu. Onela, len berari Don Santiago esaten genitxon, eta gaur berriz Xanti deitzen ziogu.

* * *

—Neri geiena gustatzen zaidan edariaren izenak iru letra baka-
rrik dizkik.

—Iru bakarrik?
—Bai, iru bakarrik.
—Ta jakin al diteke ze edari arrano dan ori?
—*Dron!*

* * *

Izen aundiko sukaldari atzerritar batek, emakumeak jaki batzuekin berdintzen ditu.

Gutxi-gora-beera ta laburki onela dio.

Amabost urteko neskatxatxoak, txal-xerrak omen dira. Ogei urteko illegorriak, barbariñak. Ogeitamar urteko emakumeak, ollaskoak arrozarekin. Berrogei urtekoak, berriz, indiollarrak. Eta berrogeitamartetik goragoak ez omen dira eltzekondoa baizik...

* * *

J. L.—Whisky egiazkoa, Escociako whisky jator-egiazkoa, Ipar-American saltzen da geiena, ta, gero, Frantzian.

* * *

Jakinzale bati.—Ain zuzen ere, aurtan bete dira Claudina Colette, Frantziako idazle txit ospetsu ura jaiio zala. Ta egia da zuk diozuna. Alegia, bere lanetan sarri-samar erabiltzen zituala jan-edan-gaiak, eta, gañera, osoro egoki. Berea da gogoeta txarmagarri au: «Baldin sorginkerietan sinisten ezpadezu, etzaitetz sukalkintz-arazoetan sartu.»

* * *

Itxasmendi'ri.—Arrazoi dezu: gaur Donostiako ogitegi batzuetan ogi txar-samarra egiten da. Bai, *ogi zerutik etorria* bezalakoa ez beintzat...

* * *

Ardoa, zarren esnea da.—*Aristófan*es.

* * *

Ez da maiean korrokadarik egin bear. Ez-eta tabakorik erre kafea artu baño len.—*Curnonsky*.

A. A.

Gabon janariak folklorean

Gabon zelebratzeko janari bereziak izan ohi dira, nonnahi. Abenduko hilaren azken parteko giroari jarraiki eta kanta zaharren laguntzarekin, urte-aro honetako gastronomia aditzera emango dugu, ugari bezin aberatsa dugun folklore zati baten bidez.

Gai hau ezta lehen aldiz ikutzen dena, ezta guttiagorik ere, Antonio Arrue naro jarduna da hontaz, bereziki EGAN aldizkariko «Jan-edanak» sailean. 1956ko azken zenbakian. Gabon janariari buruz soilki ari zelarik *Archipreste de Hita*-k «*Libro del Buen Amor*»'en (1389) Bermeoko bisiguak gorai patzen zituela gogorazi zigun, eta bisigua, Euskal-Herriko Gabonetako janarietan fiñenetakoa dugu, noski.

Izan ere, jakien berezitasuna eta ugaritasuna elkarrekin ditugu egun hauetan. «Natibitate, ase ta bate», esaten da gure inguruetan. Baina goazen kanta zaharren arlora.

Euskal-Herrian zaharrik bada, Olentzarori buruzkoak zaharrene-takoak ditugu. Kristautzaren aurretiko jentilen garaian ditu bere sustraiak.

*Horra, horra! gure Olentzaro,
pipa hortzian dula ixerita dago.
Kapoia baditu arraultzatxoekin
gabean merendatzeko sagardoarekin.*

«Orixe»'ren *Euskaldunak* duen parterik hoberenatakoa Olentzarori eskaintzen dion kapitulua du.

Olentzaroren ase ezinak Grezia zaharrako Bako-ren irudi edo jainkokiaren antza du:

*Olentzaro jaun ordia,
buruz ederki jantzia:
edan batean ustu diguk
sei arrobako zagia.*

Beraz, ez harritu, mendiz-mendi edo kalez-kale doan taldearen doinu hotsetan holakorik aditzean:

*Olentzaro guria
ezin dugu ase,
bakarrik jan dizkigu
hamar zerri gazte,
saieski ta solomo,
makiña bat este...
Jesus jaio da eta
kontsola zaitezte.*

Denboaren joanez, siniskera zaharrek, erlijio berriari lekua utziaz joan ziren. Baina ohitura zaharrak euren lorratzak folklorean utzi zizkiguten; batez ere, hain zuzen, Ekainean eta Eguberrietan, eguzkia goren eta behean aurkitzen den garaietan. Igazko Eguberrietan eta aurtengo Ekainean egin nituen artikuluetan nahikoa argi utzi nuen bezala (Ikusi, «Hoja del Lunes», 20-XII-1971, 16-VI-1972 eta 25-VI-1973, 3.orr.).

Zer dira ordea Gabonetako janari bereziak? Eskualde guzietan ez dira zeharo berdinak, noski. Bizkaiko itsas-hegalean, Eusebio M.^a Azkuek joan zen mendearen erdi-aldera idatzitako *Parnasorako bidea* liburuaren 91. orrialdean dakarrenez, «Gabon afari bat» izeneko bertsoetan: *orio-azea, lebatza, makallao-saltzea, besigu-erria* eta *intxaur-saltsa*. Edaritzat: *txakolina, ardao* («ezta euskaldunik egin deusarik Erriojari biraorik», dio gainera), *kopea bete beterik kafeari botata*, eta *beste kopa bat aparte*.

Bizkaiko lehorraldean ere antzera izan da. Afalondoko edaritzat, Gipuzkoako mugan eta Durango aldean, pattarra aurretik aranekin gertatua hartu izan da. Nafarroa parteko «patxaran» (*pattar-aran* bera edo antzerakoa). Inoiz, aranen ordez, ginda-gereizekin ere egiten da. Gure gurasoentzat (nerentzat behinik-pehin) ezta izan Eguberririk orio-aza, marraskillu (= karakol), legatz edo bisigu eta intxaur-saltsa eta aran-pattarrik gabekorik.

Aipatu dudan eskualde honetakoa dugu honako kanta hau:

*Gabon-gabeen ohituten dogu
guztiok afari ona:
besigu, lebatz, makailu-saltsa,
bakotxak berak ahal dauna.
Gero txurrun plin-plan,
ardau ta paittarra,
katuak hartuta
zabu-zabuka.*

Durango aldeko ezpata-dantzaren soinuan ere bada Gabon janariaren kanta bat:

*Aita Juaniko, seme Periko,
zer dogu aparitako?
Orio-aza gozo-gozoa
arto beroaz jateko.
Kazuelatxoan intxaur-saltsea
txarra morkoan txunpletin;
eragin eta beti eragin,
atsoak bauke zeregin.*

Gabon egunez kantari taldeak etxe-etxe eskean ibiltzen direnean ere, era berean, janariak dirua bera baino estimagarriago agertzen dituzte. Adibidez, «Albako gultzurrunak» izenez hasten den kantaren honako bertso hauetan bezala:

*Kantuak utzi digu
lehor eztarria,
betor etxeko-andre
orain edaria.
Hotz dago edateko
sagardo mikatza,
nahiago dugu beraz
nafar-ardo beltza.
Arkumerik ez bada
betor oilaskoa,*

*dozena arraultzakin
bada solomoa
ta besterik ezean
hamar durokoa.*

Familiak elkaturik zelebratzea da Gabonen berezitasun bat. Azkuek Otxandion jaso zuen «Ator, ator, mutil etxera» kantak bere deira aditzera ematen duen bezala. Kanta honek badu holako xart-mengarritasun ezti bat, lehen Otxandion bakarrik ezagutzen zena. Azkueri esker, urte guttiren buruan Euskal-Herri osora zabaldu da. *Cancionero popular vasco*-ren II. tomoaren 155 orrialdean dater, eta bertako oharretan agertzen denez, letra ikutua dago; ez herriak kantatzen zuen eran. Gure aitona Sebastian Ortiz de Zarate zana (ni sortu baino lehen hila zen) otxandiarra zen, eta gure amari magnetofonuz jaso ahal izan ditudan kanta zaharretan honako hau ere bada, aitonagandik ikasia zuen bezala. Beraz, herriak kantatzen zuen eran. Hau da:

*Ator, ator, mutil, mutil etxera,
gaztaina ximelak jatera,
Gabon gaba zelebratzeko
aitaren ta amaren onduan.
Ikusiko dok aita barrezka
ama be guztiz kontentuz.
Eragiok mutil aurreko danbolin horri
gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean,
xipli, xapla, baun!
Gabon gabau pasau diegun kontentuz.*

Euskal folklorean Gabonak toki zabala dute, lehenaren era askotako aztarnak aurkitu genezazke eta garai bateko janarien berri ugari ere bada.

Mundu guzian ospatzen diren Gabonetan, irakurleei zorionak opa dizkiet eta gauerdia aldera, Aramaion bezala esan dezatela:

*Dringilin dron, gaur Gabon,
sabela betea daukat eta
besteak hor-konpon!*

JUAN SAN MARTIN.

IPUINAK

Nikasio, hitz laburreko mutil gaztea, langile trebea benetako mutil herrikoia, ezer gutti bezala azaltzen da lagun artean, baina badu bere nortasuna. Hiru-lau lagun ditu artuak eta berekin sartzen da egun batean tabernara txikito bat artzeko asmoz.

Tabernako serbitzari, bular haundi dun neska gazte kolore gorri bat, Nikasion ez-ezaguna.

—Zu, lau txikito, mesedez, dino batek.

—Koino, nondik ekarri diabe «genero» hau?, besteak.

Nikasio, ezpainetan basoa duala, ez dio kentzen begirik neska-meari. Edaten du bere ardoa eta dio:

—¡¡Zuk daukazu izateko papar aldia!! Sagar lapurretan ibili zera, hala?

* * *

Ez dakit zenbait urte izango zituan neska zahar harek, emakumeen adina gaiz izaten delako jakitzea, eta ez komenia ere. Dakitena da, oraindik itxura ederreko zegoala nahiz eta neska zahar izen.

Etixeruntz zijoan iluntzen asita zegoan arratsalde batean eta baratza pasa beharra izan zuan atera eldu baino len.

Guttien uste zuala, ¡¡zas!! gonatik eldu diotela pentsatu du.

Jira da azkar eta ikusi du sastraka arteko lar bat izan zela gonan trabatu zitzaiona.

—¡¡Eskerrik asko, larra!! Hemengo mutilak hori egiteko ere kapaz izan ez direlako!!

Mutil koskor nintzela, bost urteko edo, herriko eskolan egin nuan lenengo saioa Zelestino maixoa-kin, maixo ttikia zela esaten genuan orduan, bainan geroztik sarri pentsatu dut, Maixo haundia izan zela guretzat.

Urte beteren bat igaro ondoren, Maristetako ikastolara eraman ninduen eta han eginuan nire ezerrezko eziketa.

Ez nekian, eta ez nire lagunak ere, tautik gastelaniaz sortzez euskaldun giroan jaiok ginelako.

Gogoratzen naiz, goizeko ikastaroak bukatzean, egunero, irakasleak alboan genituala, gudaritzan bezala herriko eleizara noletan joaten ginan. Aurrean ttikiak eta atzean haundienak, ikastolako berri ongi zekitenak.

Nazarenoan aldare aurrean, ardatza baino zuzenago ikasle denak.

—¡¡Viva Jesús Sacramentado!!

Atzekoen erantzuna, bainan ulertu ezindakoa.

—Hi, zer esaten diabe atzekoak?

—Ez zekiat, ez diat konprenitzen.

Egunero, egunero, gauz berdina, atzekoen surrumurrua eta gure beldurra galdeera bat egiteko.

Nik ez dakit nire lagunak zer egiten zuten, bainan alako batean erantzun nuan indarrez:

—¡¡Bebito sea malo!!

Hori zen surrumurruak ekartzen zuan nire usteko erantzuna.

Gero eta gero ere «Bebito sea malo» hori nire barnean eraman nuan gorderik.

* * *

Joxe Frantzisko gure herriko laguna dut. Sarri-askotan biltzen gera elkarrekin ardo edaile gabiltzanean herriko kafetegi edo tabernetan. Jose Luis da bere izena, bainan Joxe Frantzisko-s ezagutzen dugu.

* * *

—¡¡Kaxo Joxe Frantzisko, ongi ahal abil?

—Bai, bai, ni hementxe.

Ederki. Txikito bat?

—Bai, bai.

Kenduko du buruan daraman txapel zikin bat eta astindu edo jaurtiko du goruntz.

Joxe Frantzisko-k ez daki erlijio, politika edo ekonomian berri.

Behinik behin, ez diot inoiz entzun arazo honetaz ezertxo ere eta nire ustetan ez du inoiz kezkarik izan prolema hauegatik.

Africa-n egin zuan soldadutza eta dakit bertan gelditu zela bere «quinta» etxeratu zanean.

Handik gerora galdetu omen ziotela soldadu gazteak zer egiten zuan etxera etorri gabe eta horlako batean biali zutela eta hemen dagoala hordutik.

Nire iritziz, Joxe Frantzisko gizon zoriontsua da. Beregatik eta bera bezalakoak direnegatik pentsatzen dut gizonak ez duala jakintsu ez aberats izan beharrik zoriona lortzeko.

Ni kontentu naiz bere lagun izaten.

IÑAKI LETE.

Deban, Apirila 1973.



UDAZKEN KANTA

Burdin eta txapa guztiak dardara bizian zeramatzen Citroën zahar-
rrak. Bidean behera, hauts artean, lehertu beharrean zihoala pentsa
zitezkeen. Barruan, gizon bat eta emakume bat. Ixilik. Pentsakizunak
ausnartzen. Ixiltasunak berekin daraman adierazpide sakonaz. Biho-
tzaren mintzoa eta Citroën zaharraren burrunba zen entzuten zen
bakarra. Ibilaldi guztietan lagun izandako Citroën zaharraren run
run run hura gorputzaren atal bat zuten. Soinuz egindako odol be-
rezi bat.

Gizona eta emakumea kantariak ziren, bizitzan zehar kanta berri
ugari asmatuak. «Nabari zaiek Citroën zaharraren musika» zion he-
rriko atso zimur batek. Eta egia zen.

Adi adi egoten ziren denak. Kantariak ziren gizon-emakumeak.
Garai batean ahots zoliz kantatu izan zuen gizonak. Orain, mututa-
sun era behartuta arkitzen zen. Lehen, bere musikak bazuen kotxe
zaharraren zerbait. Baina oraingoan kotxe zaharrak erabat hartu
zuen kantariaren txanda. Lehen, zerbait bazirela uste zuten. Kanta-
riak ziren. Orain, hori ere ukatu egiten zitzairen. «Baimena behar du-
zue kantatzeko» esan zitzairen...

Citroën zaharra poliki poliki, urrutian galtzen. Bidean behera eta
behera, arnasketa herstuan, herritik ihesi...

Bazekitzaten kanta politikak; kanta alaiak, kanta tristeak. Baina
beti politikak.

Historiak ere bazekitzaten. Haiak kontatutako ipuinak herriko
umeen artean ahoz aho zebiltzen. Herriko haur guztiak inguratzen
zitzaizkien. «Entzun, umeok, zer gertatu zitzaion Artilongo erregeri!»
hots egiten zuen gizonak, eta berehala, umeak etortzen hasten ziren.
Dozenaka, elkargainka pilatu arte. Eta denak gizon-emakumearen
ezpainenatik zintzilik egoten ziren, arnasa hartzeko ere bildurrez.
«Erregek alaba bat zuen, eta soro eta baso ugari. Hala ere, inguruko
soroen atzetik zebilen. Bazekien soro ugariak aberastasuna zekartela...

Gaiztoa zen erregea...» jarraitzen zuten. Eta haurrak beren inguruan pilatzen eta pilatzen joaten ziren... Kantariak ezin ikus ahal izateraino.

Herriko hazientzat ere bazituzten historiak eta kantak. Gizonak gitarra bat jotzen zuen. Emakumeak, txistu moduko bat eta eskuko soinua. Herriak gehien atsegin zuena gitarra zen, noski. Hitzak mututzen zirenean, gitarrak betetzen zuen hitzen hutsunea. Bere soinu humila noten barrenean ezkutatzen ziren sekretu guztiak azaltzen joaten zen. Argitu egiten zela esan behar. Gizonaren nahigabeak, nekazarien lanak... edozertaz mintza zitekeen gitarra humila.

Elkarri segika bezala ibili ohi ziren gizonaren hitz lakarrak eta gitarraren nota izutiak. Momentu horietan, gora begira gelditzen zen gizona, inork ikus ez zitzakeen hitz misterioso batzuk irakurtzen ihardungo balu bezala. Behar bada, mundu honetatik kanpo zegoen beste mundu batean idatzitako poema eder baten atzetik. Zer bait ederra lortu nahi zuen hona beherako, lan-nekeetan dabilen jendearen atsegingarri.

*«Larrosa bat nuen
nere baratzean
baina neguko haize izoztuak
zimeldu dit hura.
Haur bat nintzelarik
nik uste nuen
izango nuela noizpait
larrosa polit bat,
baina haize hotzak
lapurtu dit neri,
ez dakit zergatik,
nere azken poza...»*

Kantarien hitzek bizia hartzen zuten bien ahotsak elkartzen zirenean...

Baina ixilik zihoazen Citroën zaharrean, burdin-egurren trikitraka lagun zutelarik, beren sonrero beltzak belarrietaraino sartuta. Kantarien nortasunaren zati ziren sonreroak. Jaso izan zituzten txanpon guztiak, sonrero haietatik, sonrero beltz koipetsu haietatik pasatu ziren. Kantarien sonreroak ziren...

Eta bidean behera, sonreroak ere triste zihoazen beren jabeen buruetan. Behin ere baino koipe ta izardi gehiago.

Nora zihoazen? Ez dakit, inor ez bait zen ausartu «nora zoazte?»

edo «zer egin behar duzue?» galdetzen. Denak ixilik gelditu ziren, errespetoz eta bildurrez. Gizon bati bidegabekeria bat egin zaiola ikusten dugunean eta aurre emateko lain kemen ez dugunean, ixilik gelditu ohi gara. Ezintasunak sortzen duen ixiltasuna izaten da hori.

Herrian bildurra zen nagusi eta inor ez zen ausartu ezer egiten. Nork jakin herriaren pentsamendu ezkutuen berri? Ixilean gordezten direnak ilunpean gelditzen dira. Honelaxe gelditu zen orduan ere.

Herria gain batean arkitzen zen eta irteera bakarra duten herri horietako bat zen. Irteera herstua, harrizko bi etxeren artean.

Besteetan algaraz, negarrez, txaloz erantzun zutenek orain ez zuten beste erantzunik: mututasuna. Eta kantariak herritik alde egin behar izan zuten. Ixilik, begiak lurrerantza, inor ikusi gabe, txanponik jaso gabe...

Herrian, batez ere pertsona hazien artean, ez zuen inork txintik ere atera. Baikorrenak beste kantari batzuk sortuko zirela uste zuten. Ez ziren konturatzen zelako garrantzia duten kantariak herri batean. «Bai, herriak lehengo moduan jarraituko du» esango dizu norbaitek, baina, kantari gabeko herria, herri hila da, bihotzik gabeko gizona gizon hila den era berean.

Hain baikorrak ez zirenak, baina bildurraren menpean bizi ziren haiek bidearen azken makurrerantza begiratzen zuten. Baina ez zuten ezer egiteko ahalmenik.

Jendeak lanean jarraitu zuen. «Bizi egin behar da» esaten zuten, eta, horrekin dena esana zela uste zuten.

Umeak izan ziren gehien nabaritu zutenak kantarien alde egitea. Gogoratzen zituzten garai bateko algarak eta jolasak, eta ez zekiten egiaz zer gertatu zen. Harrez gero, kantariak falta ziren.

«Gizon gaiztoak ziren» esaten ausartu zen ama bat. Haurrak begiak ikaragarri zabaldua begiratu zion. «Zertan antz eman ote diote?» esango balu bezala. Baina, gehienek ez zuten ezer esaten. Etorriko ziren garai hobeak.

Kantarien Citroën zaharra zerumugan galdu zen. Berarekin eraman zituen herriaren lilura-itxaropenak. Gizonaren ahots zakarrak utzitako oihartzunek artean itzali gabe jarraitzen zuten. Eta gitarren soinua lehuna guztien gogoetan zegoen artean.

Eta herrian ereindako poema haien denen artean poema lorategi bat sortu zen. Herriaren bihotz taupadak ziren haiek. Taupada bereziak, hitzez eta doinuaz osatutako taupadak... Joan ziren kantariak. Joan zen Citroën zaharra. Gehiago ez itzultzeko, zihur asko. Seilu borobil bat zuen paper batek agintzen zuen. Letra oker haiek zekiten dena, gaixoaren dardara zuen makina batek idatzitako letra oker haiek zekiten guztia: kantariak ez zitezkeen gehiago herrira

kantatzen etor. Kanta desegokiak asmatzen omen zituzten, eta handik aurrera kantari izateko ageri bat behar izango omen zen... Kantariei ez zitzairen defenditzeko gogorik sortu. Zertarako defenditu? Bazekiten paperezko kateak burdinezkoak baino gogorragoak izaten direla. Katea horiek itotzeraino herstatuko zituzten gizonak... Han joan ziren bidean behera, Citroën zaharrean, hautsezko laino bat beraien ondoren uzten zutelarik.

Hurrengo egunean, euria hasi zuen. Haize goxo bigun bat zegoen, eta euria fin fin erortzen zen. Noizpehinka leihoko kristalak zigortzen zituen bere zigor bustiaz. Tanta-hots hura berehala pasatzen zen, baina behin eta berriz ekiten zion bere zigorrari. Euria ez zen aspertzen kristalak urratzen.

Eta euria zen egun guztietan bezala, haurrak barruan gelditu ziren. Bat izan ezik. «Kaixto» izenez ezagutzen zuten herrian. Honek, euritara irtenda, kanta bat hasi zuen:

*«Gure herriko lili guztiak
dizkigute harrapatu.
Inork ez daki aurrerantzean
zer beharko dugun dastatu.»*

Beste haur guztiak begira eduki zituen luzaro. Honetaz konturatu ere ez zen egiten Kaixto, eta euriz eta haizez oretutako kantarekin jarraitu zuen:

*«Gureak ziren lore politez
gehiago ez niri galdetu:
goitik dabilten jauntxoak dira
pobreen kontuz dotoretu.»*

Mutikoaren ahotik ateratzen zen ahots hura herritik atera ziren kantari haien oihartzun urruna zen.

Citroën zaharrean, zakurra zen gertatuaren berri jakingo ez balu bezala zihoan bakarra. Lo. Citroën zaharraren herstatuasuneko zaratak bere lo goxo haren lagungarri. Beribilaren atzeko aldean zihoan, gitarra eta beste mila gauzaren artean etzanda, burua aurreko hanken gainean, muturra luze luze. Mila gauza horiek izan ziren luzaroan gizonaren eta emakumearen testiguak. Nekeak eta pozak ezagutzen zituzten. Kantak eta negar malkoak xukatu zituzten. Eta orduan, bai, orduan ere bai. Ixiltasunaren testigu ixilak ziren. Ixileko negarraren adiskide mutuak. Gitarra zaharra, bere nakarezko adabaki horitu harekin, hainbeste aldiz herstatu eta lasaitutako ziritxo beltz haiekin... Han zihoan, baita ere, herrietan zehar astintzen zuten zilarrezko txintzarria. Orduan, ixilik...

Herria oso atzean utzi zutenean, bat batean, gizonak bere bu-larraren sakonetik kanta goxo eztigarria sortu zuen. Hasieran ia entzuten ez zena. Gero, «crescendo» batean sartu zen eta berehalaxe ixildu egin zen. «Ez. Alferrick izango duk kantatzea...» zion bere buruari, «Kantek ez gaizkiek inora eramango... Baina, kantatzen ez badiat, zer egin?...» Berriro hasi zuen lehengo eresi berbera: hasie-ran lehun lehun, gero sendoago. Emakumea ere lagun egiten hasi zitzaion. Biek aurrera begiratzen zuten, betaurrean zuten hautsez betetako bideari. Kanta berria zen. Orduantxe, ixilune luze hartatik bat batean jaiotako kanta zentzugabea. Esaten zituzten hitzek elkar-rekin zer ikusirik ez zuten, baina doinuak elkartzen zuen hitz bat hurrengoarekin, eta horrela jarraitu zuten momentu batez.

Zakurra esnatu egin zen. Nagiak atera zituen, luze luze jarriaz, txilio errukarri batekin. Jeiki zen, buelta hartu eta berriro etzan zen, bestaldera begira. Gero, ezer esaten ez zuten begi haiek itxi zituen eta lo, berriro. Gizon-emakumeak kantuan jarraitzen zuten.

«Gureak ziren lore politez gehiago ez niri galdetu» zion Kaixtok bere euritako kanta hartan...

Bazen herrian ume guztiek ezagutzen zuten toki misterioso bat. Askotan, zer egin ez zekitenean, elizatar ilunaren aurrean jartzen ziren eta oihuka hasten. Haurren irudimen indartsuak egundoko in-terpretazioak ateratzen zituen. Beren oihuari horma haundi hark erantzun egiten zion. Horrela pasatzen zituzten orduak herriko hau-rak...

Orain zerbait antzeko gertatzen ari zen. Inork ez zekien nondik nora atera zuen mutiko hark bere kanta. Euripean, ordurako blai blai eginda, bere doinua luzatu eta luzatu zihoan... Eta bere kanta haizeak eraman zuen. Garai batean beste haize batek, udazkenez, Citroën zaharra, zakurra, eta herriaren kantariak eraman zituen be-zala...

* * *

Hau dena aspaldi gertatu zen. Oraindik herriak bere arnasketa larriari eusten dio, hala ere. Baina, behar bada, egun batean herria-ren bihotza geratu egingo da. Hau gertatuko da udazkeneko haizeak kantarien Citroën zaharrarekin eta kantariekin batera beren oihar-tzuna ere eramango duenean...

Eta Citroën zaharra, urrutian, zeru urdina eta lur iluna elkar-tzen diren unean galdu zen. Arratsaldea zen. Udazken usaidun arras-alde iluna...

PATXI GOENAGA.

OLERKIAK

M A L K O A

Erreka bezain
haundi zela
iruditu zitxaidan
arpegiz zehar
malkoa
aho ertzetik
beruntz
somatu nuanian.

Gorputz hotzaren
gainean nituan
eskuak eta,
malkoak,
jolasean bezala,
hilik zegoan
gorputzean
eskutatu ziren.


Beso-muturraz
ihurtzirik

arpegia,
apurtu zen
malko-erreka.
Gero,
zutik jartzean,
ospina nuan
ezpainetan.

Gorputz hilaren
isilak
isildu ninduan,
malkoari
maltzur zela
esan gabe.
Eta isilik
atera nintzen,
isil geratu zen
gelatik.

IÑAKI LETE.

Deban, Martxoan 1973.



LEHENA TA ORAINA

Lehena ez zen dena
Imitagarria;
Ez eta ere txaharra
Egiten zen guzia.
Historia izan da
Gizonen argia;
Orainak, beraz, jakin
Behar du egia,
Zaharren akatsetan
Ez dadin jausia.

ZORIONA BA ZEN

Bidetan zehar, jomuga barik, zer nengien ahantzirik,
Zihoazkidan zangoak arin, nenbilen bide hertsitik.
Agure zahar batekin topo eginda gero, lehenik
Mintzatzen hasi ginan batera, agur bero bat eginik.

—Itzulbiraka, usu dabilkit, burutazio gogorra,
Aguro esan nion dolorez. Begira nion agora;
Josi zituen begiak nigan; hurbilduz gero albora:
—Zein zamorroak jaten dik hola barneko hire alorra?

—Gazte denboran eta bizitzan, zeure bizitzan kausitu
Izan ahal du gizonak, behin, zorion bero paketsu?
—Nahi gabeak, kolore beltzez, orain bezala bestitu
Zuen ordungogure garaia; ez zaitetz horla harritu.

Txikitan mende, guztien pean, egun oroz ametsetan:
Laister izanen gaituk askeak; berdin izateko gaztetan.
Holaxe huan zoria beti, azkar atxiki ustetan.
Hemen digu ba, esan orduko, zihoan iges danetan!

Zori onaren atxikitzeke, ba genun molde segurra,
Dorpe ez zenak edonun zuen segidan bere eskura:
Txiki txikitan ikasi genun bizitza zela makurra,
Bizia maite genuz geroz, behar genula ardura.

Burrukan datza zori onaren geure oinarri arrunta;
Burruka hau egin nahi zuenak, zori ona zuen munta.
Eritasunak zetozenean, elkar ongi lagunduta
Indar berria sortzen genuen, asmo berriak hartuta.

Ene gaztea, hortantxe zegok, zori ona betidanik;
Hoa pausatuz heure burua; sekretu dena ba dakik.
Ba huen lehen, gure garaian, nahi dukan atsedetik,
Orain arkitzen saiatu adi zuzen hasita daurdanik.

BA ZEN SINESMENA

HAURTZAROAN

Ezaugerakin batera lerden, larrosa-lore bezala,
Haurrek arkitzen zuen sinetsa, guria bezain mardula.
Gauz orok duen itzalen otza oraindik hasi ez zela,
Haien barnean bizturik zegon Goiko Jaunaren kandela.

Sinesmen printzak, munduko leizan, aurretik zeramatziten,
Eror bildurrik gabe, aurrera, noranahi jo zezaketen.
Bildurrak eta eriotz otzak ez zien hatsikan kentzen
Ekaitz gogorrek asko izan arren, harek gordetzen zituzten.

Haurretan sinesmena
Har zuten pertsonak,
Zori oneko dira,
Gaitzetik gerizak.
Dardara egin arren
Bizitzan, ontziak,
Ondora ez dira joanen
Ez dirake itoak.

Uhin gandorren herpin
Biden labainean,
Elduko dira beti
Arrixku denetan.
Sinesmen argi horrek,
Larri direnean,
Portu segurra nun den
Jarriko aurrean.

Jolasean, mendian,
Edo lore biltzen,
Pozik dabiltz haurtxoak
Jauna ohoretzen.
Bien bitartez zuaitz
Gainetik abesten;
Txori politik agur
Diete egiten.

Sinesmen garaitzaile
Fina ta bortitza!
Fermuki dama beti
Barrengo bizitza.
Ez da munduan gaitzik
Ezta ere eriotza,
Goibel jarriko dunik
Haurraren bizitza.

Haurrak ez dute noski
Ezagutu oraindik,
Gizonen baitan dagon
Gaitzezko griñarik.
Horregatik ez dute
Ikusten txaharrik...
Jaunak zaintzen ditu-ta
Oker den guztitik.

Goikoak emandako
Sinesmen ederra!
Ederrez ederrena!
Inun badu arrera!
Umeen baitan suma
Zuen Jaunak era,

Emeki guregana
Lortzeko sarrera.

Grazien egoitza da
Haurtxoen biotza,
Ez daigun sartu guk han
Pekatuen otza!
Iñork ez digu ematen
Jaunaren urratsa
Haurrak baino obeto.
Haietan da hatsa!

Haurren plazer bakarra
Jaio direnetik,
Maitasunean bizi
Sinetsiz gogotik.
Zerua dute soilik,
Ezer ez besterik,
Aberri eztsitsua
Danetan lehenik.

GAZTE GARAIAN

Egun batetik bestera senti dute zainetan odola.
Galerna uhinak bezala arro gorputza jarri zaiela;
Mahats anduak bai lira, griñak, goitik behera ostoila;
Zantzu hauekin sentitzen dute lehen ez zuten axola.

Lotan zegoen liztorra jeiki; zizta ta zizta barnean.
Debru zaharrak ez die uzten momentu batez pakean;
Eraman nahi ditu amilka engainuz bere aurrean;
Eten gabeko legunkeriak entzun ditu belarrarian...

Iratzar adi
Lo zorrotik;
Umekeriak
Aldegin dik.
Behar duk presto
Jarri zutik.
Ator ta segi
Ncre atzetik.

Hire gorputzak
Daukan griña
Ez duk inolaz
Ase eziña.
Egin zak beraz
Alegiña;
Horrekin ez haiz
Gaiztagina.

Har zak kuraia,
Gazte haizeño;
Atsegin har zak
leporaino.
Ez duk damurik
Hiltzeraino.
Bota albora
Kezka laino.

Gazteen gerla, beraz, haundia izan da beti munduan,
Sinesmen hatsak, ordea, biltzen zituen, lehen, bidean.
Hamaika ardi, galduak, sartu dira zuzen artegian,
Jaungoiko deia gogorra bai zen sinesten zuten barruan...

Sinesten duzun zeru
Hori, ez da gezurra;
Ikusten ez bada ere,
Ken zazu bildurra;
Gure bizitza hemen
Oso da laburra.
Gero beste bat dator,
Gauza hau da segurra.

Lehen ikas zenuen
Zeruko bidea.
Hura dena ote zen
Mamirik gabea?
Lurrak ez du egirik
Ha bezain betea.
Zoaz aurrera bada.
Hor duzu bakea!

Zuen aiten aitonak,

Goian jarri zuten
Zori onaren lurra.
Harat jo ere zuzen!
Sainduen urratsetan,
Bizitza asmatzen,
Arki zuten plazera.
Haik beti zorutzen!

Kontzientzian itzul-biraka, gazteai hatsa ematen
Zebiltzan beti goratarre hauk, beti aurrera bultzatzen.
Horra nundikan, bide okerrak uzteko indarra zen hartzen
Azken orduan, Jaunaren bila, pozikan ziran partitzen.

BA ZEN EDERRAREN BILTZAILE MENDITAR BAT ITZALPEAN

Etxape urdin urdina dakust,
Etzanda nagon muinotik;
Harat honerat ene begiak
Dabiltza pausa eziñik.
Epeka, odei zuri batzuek
Astiro doaz ortzitik,
Eguzki printzen musu gozoa
Lapurtuz neri gainetik.

Ortziko uztai urrez jantziak,
Bero arradak lurrera
Igortzen ditu dena suspertuz,
Dagokion arabera.
Betidanikan duen bidean,
Aldatu gabe tankera,
Aurrera doa hatsa emanaz
Bizidun denai barnera.

Ez du bullarik iñoiz ematen
Daraman ortzi bidean;
Emeki baizik ona dario;
Bizitza dama bakean.
Zerutar euna duela hesi,
Indar azkarra funtsean.
Eder ta haundi ager zait neri,
Parrezka beti aurrean.

Pozaren pozez, mundu osoa,
Argizko eztaiz gozotan,
Kantuz ari da bildurrik gabe
Zaindari horren aurrean.
Honek inñutzen du dena beti
Bero ta galda eztitan,
Bare ta eme emendaturik
Guziak beren gauzetan.

Gauaren beltzak egin du intza;
Erdi jela zen errekan;
Antzigar zuri otzaren antza
Eguna eldu denean.
Haren izpirik ez dago orain;
Aizea pil pil danean.
Ederren bila dabiltzan askok,
Ez dakite nun dagoan.

HERRIAK MAITE ZUEN HERRIA

HERRIAK MAITE ZUEN BERE HIZKUNTZA

AGUR EUSKARADUNEI

Agur zuri, euskaldun,
Euskaldun jator.
Sor ziñan lurrean,
Tintatu ziñan lekuan,
Egin duzu euskara,
Mintzaira berezia.
Bihotz barnean,
Maitasunez hesia,
Gizaldiz gizaldi,
Denen kontra eutsia.
Zuk eman diozu
Gaurdaino bizia.

Agur berriro, euskaldun zahar!
Zenbat gauza zor dizugu!
Denak zenbatzen zaila litzake;
Batzuk kondako ditugu.

ESTAIEN KONTRA ARI IZAN ZEN

Ondoko erresumak boteretsuak!
Aurka beti zenituen.
Zuk, berriz, kontra hats haundi zenuen.
Denetatik libro geldi zinen.

Iparretik eta hego aldetik,
Harmadun gizonak atarian,
Zu mendeko jarri nahian,
Zu mendeko uztarri azpian,
Oinpean zapaldu, istripuan,
Txunditu nahi zinduten.

LIBRO GELDITU ZEN

Zure etxolak, mendi jauregiak,
Zotalezko hormak, zurezko solibak,
Etxe bizkarrak lasto ta buztin.
Maite zenuna geldi zen zeurekin!

ETXEAN POZIK

Gorde zenuna, ona zenuen
Etzateko beti atsegin
Izkutatzeke ere segur.
Berotzeke be zenun sua,
Beti enborrak piztuta.
Iñoren enbirik ez zen sortu
Sekulan zure bizitzan.

Etxe jauna, zuk belaunean
Haurtxo txikia zendukan.
Amandreak, txukun jakiak
Surtan prantatzen erreta.
Esne ta gazna ez zenun falta.

IHIZETEK ZUEN ARAGIA

AITA SEMEAK

—Ba digu ihiza

Aran sakonean igeska.
Ezkudian jan dik,
Jan da jan ari izan duk.
Ama semeekin duk,
Umaldi bateko bi urruxa.

—Urruxak, aita, urruxak?

Ez ahal da ahadirik?

—Ez adi artega.

Hartarik ere izanen duk.

Guazimak, guazimak

Azkar, arin, estalian;

Guazimak, dardai

Eta ubal hariekin.

—Han ez dugu zulorik,

Ez dugu sarerik,

Ez dugu leizerik,

Ez dugu babesik.

Barne estu naiz;

Dardarak hartuko nau,

Bildurrak jaten nau,

Izuak,

Dardarak,

Ikarak,

Kuraia kendu didate.

—Eskumotz ahal gaituk?

Dardaiak zertako ordun?

Ubal harriak zertako ordun?

Ama etxolan digu zai,

Txikiak gose dituk.

Ezkur hiriña eskas,

Gaztainak urri;

Goseak hillen dizkik.

Nahi ta nahi ez,

Basabere bat behar digu,

Legatzean zezeña, seme.

Legatzean zintzilika

Zezeña negurako.

—Zuk bai duzula zentzuna, aita,

Zuk bai dakizula egia!

Zuk bai ikusten duzula,

Ongi geroa, geroa:

Negua gainean dugu laister,

Edurra oparo inguruan;
Legatzean zezeña aski
Zintzilika ez badugu...
Sabelean zorriak...
Gosea izanen dugu...
Ez naiz orain txundituren,
Lagunduko dizut lanean;
Noranahi ziholarik,
Zernahi duzularik
Zurekin nahi dut izan.
Edonun arkitzen zeralarik,
Basabere ikusten duzularik,
Otxana edo guztiz zakarra,
Handia edo ttipi ttipia,
Gaztea edo zaharra,
Basauntza edo basurde...
Arrapaturen dugu biok.

—Basabere bortitzak,
taldeka taldeka,
Beti taldeka zebiltzak,
Handiak txikiak zaintzen.
Guk ttipiak behar dizkigu,
Errendi ahal ditugunak,
Eraman ahal ditugunak;
Baina behar digu bat ereman.
Biok bakarrik nahiko gutxi
Soseguz haien atzetik
Tranpak patxaran jartzeko.
Baina ez bildurtu, seme;
Bertze batez atzilotuko
Dizkiguko beste haundiak.
Bertze batez gehiago
Gerala;
Izkiluz obeki ornituak
Gerala;
Zulo autatuetan gertu
Gerala;
Handiak, orduan bai
Izanen ditugula.

AMA SEMEEKIN

—Eskaratzean zura,
Semetxo kutunak,
Pila behar duzute;
Sar zazute barrura,
Ezkoa ez badute,
Utzirik aztunak.

Laister dira onezkero,
Besteak menditik;
Ekarriko digute
Ihiza berekin.
Pranta dezagun, bada,
Gosari koipedun.

Txarrotan ere jarri,
Esnea haientzat.
Ase ditzagun ongi!
Irabaz dute ta!
Egun sentiz joan da
Goserik dirake.

—Aritzipean ba da,
Nahi ainbat adar.
Haruntz goaz biltzera.
Laister gara hemen,
Bizkarrean sorta bat
Bakoitzak dugula.

Sakela ere ezkurrez
Betetzen ahalegin
Guzia eginen dugu.
Orain lehor dira;
Gero, izotzak datoz,
Ez ditzagun galdu.
—Bildu, kutunak, bildu
Sorta bana zura;
Puxika ezkurak ere,
Ekarri etxera.
Danen beharra laister
Ditegu neguan.

EDUKI ZITUEN ETSIAIAK

EGUN BATEZ

Ibai ertzean,
Zaldunak gora,
Zaldunak behera.
Lasto zuziak,
Eskumaldean
Daramatzite piztuta.
Etxolak sutuz,
Pikardi haundiak,
Dagizkite herrian.
Mendeko denok,
Nahi gaituzte
Haien morroi izateko.
Ego aldeko
Etsaiak ditugu.
Amorru biziz,
Odol egarriz,
Denok katibu,
Eraman nahi
Gaituzte atzetik.
Debru zikiñak,
Geure gainetik
Beharko dite
Iragan lehenengo.

TONTORREZ TONTOR MEZUAK

Bizkor, seme, hoa mendira;
Egin zak kea, eman siñale.
Ez ahantzi, arrisku siñale.
Nola egiten den bai ahal dakik?
—Ke zuria, aita, zuria eginen dut;
Hiru bider gora, hiru bider behera.
—Hori duk, seme; egin zak hori.
Adarra gero, arkaitz gainetik,
Behar duk jo, hiru bider gogotik.
Aldi batez urren, zotalez estali sua.
Eguteruntz jira adi; ago txit ernai;
Handik zetorkek lehen, anaien erantzuna.
Kea bazegitek, seme, ba zegitek zer den.

GAILURRETIK GAILURRERA

Altabiz gainak ohiu dagigu,
Gal zori bat datorkigu.
Ipar aldeko jauntxo zitalak,
Aurki, izanen ditugu.
Azkarrak dira, harmadun denak;
Guk zer eginen diegu?
Igor dezagun mezu bat arin,
Gaizkatu nahi badugu.

Auzoko jaunek, zekiten legez,
Eman zuten ezaugarri.
Adierazi zioten ongi,
Zer pasatzen zen, elkarri:
—Norbait hemen duk, etsai duguna,
Su ta gar denon galgarri.
Menderatu nahi gaituan hori,
Jar dezagun parregarri!

ETA EGIN ZUTEN BILLERA

MEZUA EKARRI ZUENAK

Burget bailaran, har dugu mezu;
Ke zuriz igor diguna.
Lasterka hoa, esan dit jaunak,
Jakín zak behar duguna.
Hemen nauzute. Esan, zer dugu?
Ager, agintzen zaiguna.
Gazte guziak prest dira. Arin
Eman zazue erantzuna.

LEHENDAKARIAK ESAN ZION

Ez dakik zenbat poztu arazi
Gaitukan gazte azkarra!
Denok ezjakín gindukan hemen.
Ematen diguk dardara!
Bertan behera eginen digu
Aritz azpian biltzarra.
Ezagut araz digukalako,
Har zak guzion ezkerria!

Bialdu auten herritar oroi,
Hauxe ziegu agintzen:
Gure lurretan sartu den horri,
Bere kasa utzi pasatzen.
Ezin digu gaur horren kontra egin.
Ez nekatu, arren uxatzen!
Eldu den beste une batetan,
Hasiko gara botatzen.

Oraingoz gorde zazute oro,
Ahal duzuten moduan.
Abel-gorriak igor mendira,
Bazka ditezen basoan.
Jakiak gaizka kutxetan sartuz,
Buztiña dagon zoruan.
Etsai harek ez dezala arkitu
Onki bat ere eskuan!

Haurrak eta amak toki segurra
Arki dezatela azkar.
Saletxe baitan ez balukete,
Bila, beste edozein baztar.
Mutillak honuntz zatozte gero,
Dardai, ixkillu eta abar.
Denon artean osa dezagun,
Indar haundi ta bat bakar.

ETA GAUR

LEHENGO GAUZAK
GAUZA ZAHARRAK
GAUZA ZAKARRAK
GAUZA ZATARRAK.

BERRIAK BEHAR
MUNDUAN ZEHAR
BAINA NOLA HAR
ZU, MUNDUTIAR?

AZTER DITZAGUN
IKUS DEZAGUN
NOLA ARKITU
BEHAR DITUGUN.

LEHENGO BIDEAK GALDU

Bizi moldea egungo egunez
Ikusten dugu aldatua.
Gehiago jakin, gehiago ikusi;
Baina gal dugu zentzua.
Ilargian zer gertatzen zaukun...
Jendea dago mirestua!
Iduri zaigu, ari garela
Berriz egiten mundua.

Harat hona ta karrikan zehar,
Berdin menditan, soegin:
Jendeak dabiltz zahar ta gazte,
Nola ukanen atsegin.
Beta baduzu eta ahalik,
Haiekin mintza, itzegin.
Baina barrutik pozik dabilen
Egundo ere ez galdegin.

Zer da ba poza? galdeturen du,
Zerbait makurra bailitza.
Poz haren bila dabil amorruz,
Konpondu nahirik bizitza.
Baina aspaldi ahantzia du.
Sentidu gabe du bizitza.
Berdin da haientzat, mugitzen ez dan
Mendian dagon arkaitza.

Zer da zuretzat Kristo, bizitzan?
Norbaiti aipa zaiozu.
Laister erantzun eder askoak
Harek emango dizkizu:
—Gure artean, menderez mende
Ukan dugun izen faltsu;
Preso eduki gaitun izena.
Hori besterik ez duzu.

Jesu Kristo da, nire bizitzan,
Gizon bat gizon artean;
Besterik dela, ez dut sekula,
Pentsatu nere barnean.
Jaungoikoaren semea dela,

Gizon eginda lurrean,
Diole batzuk, jende xehea
Jartzeko beren mendean.

BIDE BERRIETAN ZEHAR GALDUTA

TEKNIKAZ TRONPATUAK

Jakintza mailan arkitu nahi,
Zenduen danen egia;
Eta teknikan jar duzu Jainko,
Hartan zelakotz argia.
Teknika horren pean odea,
Errori zaizu fedea.
Bide zaharra illun zen; baina
Erraza ahal da berria?

Makinak eman ahal duena
Daukazu egi bakartzat.
Hortik kanpo den beste guzia
Hartu behar da okertzat.
Baina bizitzan gauza asko dira
Arras sailak makinentzat;
Hauek ez dute erantzun onik
Zuk dituzun galderentzat.

Izpiritua, hatsik gabeko
Gauzetan finka nahi da;
Konkretua da maitatzen dena;
Beste oroi ostikada.
Mendean izan behar zenduna,
Jauna duzula esanda,
Konpreni zazu nola zabiltzan,
Ematen duzun oinkada.

Kalkulu batzuk eginez geroz,
Erausiz korapilloak,
Munduko egin danen ardatza
Eskutan uste jakintzak.
Lan hoiek oro behar dira gaur,
Ontzat daduzka munduak.
Baina hoietzaz kanpo ba dira
Prolema sakon askoak.

GALDEZAKA TA GALDEZKA

ERANTZUNIK GABE

Hamaika mila milaka aldiz ta gehiago oraindik,
Manera makur dohain gabeak aintzinean ikusirik,
Sinesgabeak kausitzen ditu frango gauza miresturik.
Esprika nahi eta ezin du: hau zer da, nola ta nundik?

GIZASEME ERRUKARRIAK

Hospitalean minez
Haur txikia datza;
Zergatik sofritzen du
Erio garratza?

Egun bi jaio dela,
Argi ordu motzak.
Hil beharra du azkar;
Indarrik ez hatsak.

Errurik gabe dena
Oinazez lehertuz;
Ordu bat ere ezin
Iragan soseguz.

Noren ordeztu ari da?
Galdetuko duzu;
Behar ez ditun zorrak
Jarri du oinazetsu.

BESTE OHE BATETAN AMA

Amets egin ondoren
Eldu da ordua.
Mundura ekarri duzu
Aingeru osoa.

Erraietako frutu
Maitasun frutua.
Gaitzaren uztar pean
Daukazu lotua.

Biotza hertsi zaizu,
Haurraren minakin.
Opa zenion poza,
Ez duke berekin.

Negar malkoz nahasiz
Ikaraz har zaitu.
Ezin zara pausatu,
Zu czin lasaitu.

Ez zera zu errudun,
Ezta ere semea.
Nola etorri zaizu
Holako kaltea?

Galdezka ari zara,
Zergatik, zergatik?
Iñork ez dizu ematen
Horren erantzunik.

Segi galdezka, aurrera;
Ba dira jakintzuk.
Emango dizkitzute
Danen errepostuk.

Bizidun danen eran,
Esango dizute,
Aulak ezin du jarrai;
Batzuk ezin dute.

Hitz horiek nahiko,
Bailitu biotzak,
Ezin dute konpreni,
Dituzun negarrak.

Hamaika gertakizun
Holako ba dira.
Behar bezela hartzen
Jakingo balira!

NAHASMENDU HIGUINGARRI

BEHERA ERLIJIOA!

Tabu bat zela,
Dioskute
Tabu bat bakarrik
Tabua, mitoa,
Mitoa ta tabua
Bakarrik.

Sineste pean,
Dioskute
Giñauden lotuak
Soka motzean,
Mitoak, tabuak
Lotuak.
Pentsakera hertsia,
Dioskute
Pentsatzen ahantziak,
Pentsakera hilak,
Hutsak,
Ustelak.
Behar genuen
Aske izan,
Askatuak,
Mitoetik
Tabuetik
Betiko askatu.
Erlijio pean,
Geure onena,
Adimena,
Arrazoina,
Hila ta ehortzia.
Zigorren pean
Gordetzen,
Estaltzen,
Ari ziren, beti
Ari ziren.
Bota dezagun,
Bota behera,
Zapaltzailea,
Hiltzailea,

Ehortzi nahi
Genituna.
Behera erlijioa,
Hil dezagun.

IRAULTZA DEIADARRAREN ONDORENAK

Polbora biztu bazuten ere ez zen egingo azkarrago,
Iraultza zakar nahastatzaile, gaitza baina okerrago.
Jende gazteak sinetsi zuten hura zela ederrago;
Zori onaren atxikitzeke zer behar zen gehiago?

GURASOAK KITO

Gurasoek ba zuten
Semeen eziketean,
Ardura ta axola
Denbora guzitan.

Lana nola behar den;
Giza-lege dala;
Bizi nahi duanak
Arretaz dezala.

Egiten ez duanak,
Besteen lepotik,
Lapurtuz jaten dula,
Irabazi barik.

Lagun urko guziak
Anaitzat hartzeko;
Ez dugula pakerik
Bestela lortuko.

Ez dute orain aita amak
Lehengo konturik.
Semeak ez bai diete
Egiten kasurik.

ITZULBIRA OSOA

Atleta bildurgarri,
Bortitza bailitza,

Nahasmendua jauna,
Menderatu gaitza.

Nahasmenduak, gaurko
Mundu honen jaunak,
Jendeak daramatzi,
Atzetik; gajoak!

Gorputza dela dena,
Ezer ez arima;
Ase behar dugula,
Gorputz honen griña.

Zentzu gabeko gazte
Gehiegi dakusa,
Makurkeriarako
Nahiko dute utsa.

Han da hemen kolpeak,
Gose ta krimenak,
Ontzat ematen ditu
Denak nahasmenak.

Zenbait neska gazteak,
Irritsaren mende,
Jarri ditu nonahi.
Ba du nahiko jende.

Guraso zahar hoiak,
Utzi bertanbera;
Faltsua izan delako
Lehen gizakera.

Gisa hontako gauzak
Entzunez gazteak,
Egin dute jokoak:
Laga gurasoak.

Gurasoen esana
Aintzat ez da hartzen,
Amor eman beharrez,
Goitik dira jartzen.

Sasi maisuen hitzak
Maitatzen dituzte;
Zori onaren bide
Haietan bailute.

Igerle berri hauek
Dute paradisu.
Eskuan dugu dena,
Dasate airetsu.

Deiadar gozo horren
Atzetik, hamaika
Ba dihoaz puztuta,
Barre ta antzika.

PARADISU BERRIAN MURGIL

Mendiak ez du ederrik,
Ezdu atseginik.
Begoz gizarajoak
Aizea harturik.

Osasuna, mito hitza;
Zertako osasuna?
Neke pean galtzeko?
Ez, hori ez jauna.

Gure gorputza egarri,
Atsegin egarri;
Gazte geran artean,
So deiogun hari.

Neska mutillak elkar
Harturik, bildurge,
Amets tokira goazen,
Elkar daigun maite.

Platonen maitasuna
Zaharren hitza da.
Irritsa da iturri,
Maitasun legea.

Erlijio faltsuak,

Kezka nahi gaitu.
Kontzientzia aztertuz,
Gozamena aitua.

Iges egin dezagun
Haren engainutik.
Behin betiko salba
Dituan saretik.

HONA PARADISUAREN ATEA

Zigarro baten keak,
Biriketan barna,
Jarriko zaitu zoro
Lurrean etzana.

Proba duenak daki
Ez dela txaharra;
Behin hartuez geroz,
Hura da zirrara!

Pakearen bazkari,
Ametsaren zeru;
Ase, betea zera;
Orra, zu, aingeru!

Nahi duzuna oro
Horla da sentitzen;
Hohar gabe, zorion
Betez zaitu jartzen.

Plazeraren moskorrak,
Maizago ta obeak.
Leher zaite gurekin,
Lasaitu gerriak.

Zeure bizitzak duen
Zalantzako laino,
Argi egingo zaizu
Zoko zokoraino.

Mami gabeko poza,

Zerutar iturri.
Arrotz ba genun lehen,
Tori, orain, tori!

ELBURUEK ZENTZURIK EZ

OHITURAK ZER?

Herri guziak,
Ditu ohiturak,
Herri guziak.
Azter ditzagun, azter gureak;
Atzo indartsu, orain utziak.
Geure ohiturak...

Lana astean;
Pausatu jaiian
Etxe bakean.
Goizik jeikita, meza goizean...
Bezperak gero, bazkal ondoan...
Pozik batean.

Garaia bazan,
Ondoren dantzan
Herriko plazan.
Neska mutilak tuntun airetan,
Zango arinik han izaten zan...
Herriko plazan.

Zangoz gogorak
Ziran zaharrak,
Irri ta parrak.
Neskatxa hoiek daude azkarrak...
Mutilak ere oro trebeak...
Irri ta parrak.

Nun zer zen jakin
Behar; soinua
Nun zen jaiakin.
Gazte multso bat han zen harekin,
Iluna arte drote elkarrekin
Etxera ilunakin.

GALDU ZIREN HORIEK

Lehengo plazan jende gutxi da,
Jolasten gaurko egunetan;
Herriko jaiak kenduez geroz
Jai dago gure txokotan.
Askotan, hilak ematen dute,
Bizitasun ametsetan.
Gazteak beste joerak ditu;
Zaharrak goibel etxetan...

Eskuetako soinuen pozak,
Gaurko gaztedi giroan,
Ez dute sortzen dantza biderik,
Ezta gogorik kolkoan.
Tresna horien jotzaile orok,
Gorde zazute gogoan:
Inork ez du gaur maite soinurik,
Utzi bada museoan.

Ez duzu berriz, auzoko plazan,
Dantzari asko ikusiko,
Ezta gehiago autsik jango ere
Eztularen egiteko.
Soinu jotzaile, ez da lehengo
Denbora berriz etorriko;
Gaurko gazteen iguingarri da.
Baztertu behin betiko!

Beste idolu batzuek daude
Liberti dadin jendea.
Artista hoiek duten gauza bat
Bizarra ta ile luzea.
Nik ez dakit, zer ikusten dien;
Ez dakit haien airea.
Baina gazteak maite dituzte,
Zer nahi duzu egitea!

BESTE GIZON BAT, BESTE BIZITZA BAT

Bakoitzaren burua
Arrastotan sartu,
Behar zuen gizonak,

Ezi eta zaildu.

Aldaketa haundiak
Ditugu gaurregun,
Ezi ta zaildu hitzak
Zentzurik ez inun.

Buruauste zakarrak
Ditu gaur gizonak;
Erantzun bila dabil;
Baina inun ez onak!

Teknikaz oso gora,
Jakintzaz ere bai;
Ala ta guztiz ere,
Ez gera gu lasai.

Egungo asmakizunak
Eta aurrerapenak,
Ondu ala gaiztotu
Egingo pertsonak?

Bonbak, gerrako tresnak,
Ba daki egiten.
Hauekin ari gera
Mundua ondatzen.

Erlijioa ere,
Dantzan asi zaigu;
Lehen fijo zen dena.
Orain ez dakigu!

Askatu-ta, koloka
Dago gaur bizitza;
Berriro lotzen ba da
Geroan ekintza!

A Z K E N A

BIDE ZAHARRAK UTZIZ,
BERRIAK AZTERTUZ,
HORLA GABILTZA ORAIN,

KRISIAN JOKATUZ.

LEHENAREN PATXARA
IZANEN DA GERO;
ISTINGAN GAUDEN HONTAN,
JO DEZAGUN BERO.

GIZON BERRIA EGIN
BEHAR DUGU DANOK.
EZ GAITEZEN OKILDU
HORI NAHI DUGUNOK.

ANASTASIO ESNAOLA.



ADABAKIAK

«IRIYARENA».—Merke eta ondo presentatua eskaini zigun Donostiako Aurrezki Kutxak Jesus M.^a Arozamena eta Tomas Garbizu jaunek gertatutako *Viejas Canciones Donostiaras - Donostiko Kantu Zarrak* (1971). Liburu atsegina bada ere, iker lanean ez hain zehatza. Honegatik, kanta asko dira, Donostian erabiliagatik, jatorriz bertakoak ez direnak ere; inoiz, gainera, egile jakinekoenak izanik. Hala ere, hori da guttienik, zeren bai hutsak eta bai kanta osatugabeak anitz dira liburuaren barna.

«Iriyarena», «Donostiarrik ez zeruan»en tituluz agertzen dute, eta ondorean, titulu hortaz, zezen suzkoarena. «Donostiarrik ez zeruan», edo hobeto esan «Iriyarena» hau, 188garren orrialdean dakar, baina 4 bertso besterik ez ditu. Eta, kanta horrenak, guttienez 10 bertso ezagutzen dira. Ikus, *Gure kanta zar jatorrenak* liburuxka (Librería Mugica. Donostia, urte gabe) 101/105 orr. Baita *Euskal Kantak* liburuxkan ere (Izarra. Donostia, 1959) 116/119 orrialdeetan. Behar bada hutsik larrienetakoa bada ere, kantaren erdia baino guttiago ematen dutelako, holakoak maiz aurkituko ditugu orrialdeak zehar.

Nonbait sortu eta alde askotara zabalduak, ezta harritzekoa herri bakoitzak bereak direla uste izatea. Hori erabagitzeko euskalkiak ematen digu argia, baina ez beti. Esate baterako, Deba-arruko herrietan bertsogintza gipuzkeraz egiten dute beren euskalkia bizkaitarra izanarren. Baina ez Deba-arrukoak bakarrik, baizik Artibai aldekoak ere joera hori dute, Berriatuko bertsolarietan nabari denez. Beraz, ezta harritzekoa Donostiarrak euren sakura hainbeste kanta sartzea. Plazentziarrak ere egin dute holakorik (edo behar bada eibartarrak), zeren ez esan inguru hoietan «Iriyarena» Plazenttziakoa ez denik; ala jaina! Soraluzeko semeak zezen kontuan izanik hain yayoak nork uste bestaldera ditekianik? Eibarren beti ezagutu dugu

Plazentziako «Iriyarena» Arozamena eta Garbizu donostiarrak eza-gutarazi diguten baino bertso gehiagokin, eta Plazentziako zaharren artean nork ez dakizki hamar bertsoak kantatzen? Meza nagusiko «Kyrie, éléison» baino hobeto bai noski. Bai horixe! Gainera, soraluzearrak beren gatz bereziarekin egosia dure «Iriyarena» kanta. Honetatik, 7garren bertsoa beren gisara aldatua. Plazentziarra inper-nuan sartzen delarik, hara zelan heltzen dion kantari:

*Toki hartako berotasunez
bizi egarriturik
galdetzen zuen:
«Ez ahal da hemen
inun sagardutegirik?
Neri berrido tokatzen bazait
zeruetara sartzerik
iriarena joagatikan
ez det egingo saltorik.»*

J. S. M.

* * *

EUSKAL LITERATURA 72.—Izenburu hau daraman liburuak, 184. orrialdean, honela dio: «Obra hau 1971.go Agora sarira presentatu izan zen. Juradoak (Roque Arambarri, Antonio Arrue, José Antonio Loidi, Juan San Martín, Antonio Zavala) saria «desierto» deklaratu zuen.»

Auntza hil, ezta gero auntzaren gaberdiko eztula. Baina egile «kupidagarri» horrek jarri gabe utzi duena, zera izan da: Egile zintzoak, diru beharra zuelako, juraduko bati eskatu ziola saria berari ematen ahalegintzeko, eta hala ere, estudiante gizajoaren eskari hau aintzat hartu gabe, saria «desierto» deklaratu zuten. Halakorik!

J. S. M.

* * *

«*LAMINERO*» *ETA LAMINA GOZO-ZALEAK.*—Lehen aldiz Erronkarin konturatu nintzen gozo-zaleeri «laminero» eta «laminera» deitzen ziotela, gizezkoa eta emakumezkoa «o» eta «a»rekin

bereizturik, naturala den bezala Baina ez edozelako gozo-zaleeri, baizik jatorduetatik kanpo eta erdi-izkutuka janari goxoak harra-patuz ibiltzen direnei batez ere. «Laminero», «Laminera» hitz hau, geroztik Urraul-goian eta Romanzadon ere jasoa dut, eta konturatua naiz alde hoietako Nafarroan oso zabaldua dela. Joakin Lizarraga Elkanokoak, *Urteco igande guzietarako plasticac edo itzaldiac* (1846) liburuaren azken orrietan dakarren hiztegitxoan era honetara agertzen du: Laminurria, *golosina*; *Lamitza*, goloso. «Laminero (a)» bertatik datorrela, aski argi dagoela iduritzen zait.

Inoiz pentsau dut «mihina» (mihin-gaina)-ren zer ikusia ote duen. Baina J. M. Barandiaranek *Estelas Funerarias del País Vasco* (1970) liburuaren 58garren orrialdean dakarrena irakurririk, sineskera zaharretatik gelditu zaigun hitza dirudi.

Hara zer berri ematen digun J. M. Barandiarangoak: *Bazterretxea* baserrikoak, Barbierrek dionez, gauero, lotara joan aurretik, supazterrean uzten omen zituzten arto-erreak, urdai-atalak eta oporresnea. Gero laminak etortzen eta jaten oparia. Donamartirin laminentzat artoa uzten omen zuten eta haiek jaten eta hango lurretan lan egi esker onez. Uhart-Mixen soro-ertzean zenbait janari nekazari-rik uzten omen zuten; gau hartan laminak etortzen omen eta soroko lanak azkentzen. Ultzama-Arraizko *Sunbillenea* etxeko artzaiak egu-nero *Abauntz harpeko* laminai kaiku-esnea ematen omen zien. Bartzuek diotenez, gaztanbera omen zen ematen zuena. Orozkon pitxar bat sagardo uzten omen zuten laminentzat eta hoek, gauaz, edaten eta pozik beren tokira itzultzen; baina opari hori ager ez ba-zan, upelak hausten omen zituzten.

J. S. M.



MENDI IBILI BAT

Mendiko umea naiz
mendia dut maite
ez nintzake biziko
menditik aparte.
Eta orain kalean
bizi banai ere,
ez naiz bizi mendira
begiratu gabe.

Euskal abesti zaharra.

Martxoak, 19.

Igandea.

Zeru urdinagorik ezin lezake ikusi.

Goiz-erdian naiz atera etxetik mendiruntz.

Bakarrik noa, bakarrik edo nire pentsamenduekin.

Arakistaingo plaza ertzetik, auto-bidez, beldurrez noiz gainean sentituko hor dabiltzan mila berebil-etako bateren kolpea.

Arzabal hauzoa, eta beriala, Kamino zaharra. Azke naiz.

Banua bide zabalean, Goikoetxe baserria gainean ezker aldetik, gure herriko izena duan ibaia azpian, eskaira, eta hemen Mailoate, «pobreen haitza» alboan duela.

¡¡Mailoate, lehen izan zero ttikia, dena ondatu haute!!

Txori lekua, Milapros baserriko keixa, piku eta arantz-loreak ja-
ten zituzten txoriak, beren amorioak egitera etortzen ziran lekua.
Guk, lagunok, arkume-erre jan bat egiteko aukeratu genuan lekua.

¡¡Mailoate, Autopistak apurtu haute!! Utikan.

Goruntz joan naiz deabrukeri batzuek esan ondoren.

Elkorriate, Sasiolatik Lasturrera-ko bideak zabaltzen dituan men-
di-atea.

Begira diot erlojoari. Goiz da. Noala goruntz Lasturrera joan
gabe.

Gainean Mantarregi basetxea. Zelaiak, nahiko lore, eguzkia, argia.
Hemen Udaberria.

Udaberri, dakik ez detala txapelik, eta beraz, ez nezakeala ken-
du nire agur errespetagarria ezkeintzeko. Baina makurtu diat burua,
ikusi nauk, eta dakik gizonki gelditu naizela.

Ongi etorri, Udaberri, denon pozgarri aizen hori, urte askoan la-
gun izango bagina...

Banua beruntz lehen gora etorri nintzan bideetan.

Elkorriate berriz, Lasturko arana, bailera. Auto-bideak. Kortabe-
rri, Arrasketa eta azkenez, Arruan.

Gero, basoa, sastraka, arantza, lokatza, txoriak alderdi denetan.
Zozo, birigarro, txantxangorri, denak nire eta nire pentsamenduen
lagun.

Ez baita eiztaririk eta txoriak mendi bideetan dabiltzan jendeari
beren agurra ematen dakie.

Txori hiltzaile dabiltzan eiztariak. Utikan!!

Baso koxkor bat pasatu ondoren, Leizaola dorrea, euskal-etxe
zabal ikusgarria, zelaiak aurrean, alboan Lastur-erreka milaka ur-
teetako eresi soinuekin. Zerua.

Beriala, Lasturko plazatxoa.

Nikolas Donea, eleizako aldarán.

Alboan, Paloneko taberna.


Errota-ko klin, klin, eten gabea.

Bidez-bide joan nintzan aurreruntz Ziaran baserriraino.

Nire lagun baten omenaldia zela, eta bertan bazkaldu nuan.

INÁKI LETE.

Deba, Martxoa 1973.



LIBURVAK

IBON SARASOLA, *Euskal Literaturaren Historia*. Lur Editoriala. Donostia, 1971.

Liburu honen kritika aski luzea argitaratu nuen «Anaitasuna» aldizkariaren 216 eta 217 zenbakietan (1971ko abuztuaren 15 eta 30ekoak). Orduan esandakoetatik ezer gutti izango nuke aldatzekorik. Baina argitu beharra dut, literatura kritiketatik nahiko urruti dabilzaten zenbaitek uste izan zutela I. Sarasolaren obrari egurra eman nahirik edo idatzi nuela. Nere gogo oso urruti egoan holako asmoetatik; neronen eritzi eta ikusmoldeak hain gordin agertzen banituen, adiarazpen zintzoak hala eskatzen zidalako izan zen.

Baina, esanak esan, I. Sarasolaren *Euskal Literaturaren Historia* oso liburu importantea zaigula gure literaturaren mugimenduen gorabeherak ezagutzeko, eta, batez ere, literaturaren ekintza bera garai bakoitzeko gizarte-ekonomien zer ikusiaz gin den lehen saioa.

Ibonek, beste literaturak aztertu diren gisa, gurea ere ekonomiazko egoeren araberez egin du bere lana. Lehena izateak berakin zituena harrizkoak bere gain hartu ditu egileak, baina guk ikastekorik aski izango dugu liburu horretan eta lanak aztertzeke metodologiaren aldetikoak ere ez gutti.

Egia esan, gure literaturaz era hortan lan sakon bat, hutsik gabekoa behinik-behin, egin ahal izateko, lehendabizi ekonomiaren historia on baten premia dugu; zeren, etxekoek eta kanpokoek egin dituzten saiaerak (orain artekoak) oso urruti daude historiako errealtateetatik. Historia bera behar bezala ez ezagutzeagatik, zabalkunderako eginak diren liburu jeneraletatik aparte, sortu digu lan askoren oinharri sendorik eza.

Historiako hutsune horren adigarri idatzi nuen «Anaitasuna» bertan 219 zenbakian (1971-9-30), lehengo kritikaren jarraipenez. Hartikulu hortan, XVIII. mendeari buruz ari nintzen, baina XVI. mendea oraindik nabarmenago azatzen zaigu, Bizkai-Gipuzkoetan, ekonomiaren aldetiko aberastasun handietan.

Gainerakoan, gizarte-literatura aburuak, Patri Urkizuren *Literatura eta kritika* izeneko liburuan oinharrituak ditu nonbait. Hala dirudi. Eta liburu horren hutsik handiena, ez dakigu zergatik, gaurko eritzietaraino ez jarraitzean datza. Sozio-ekonomia bere soiltasunean begiratzetik, ekologia zientzia gizarteari aspalditik erantsia ez balego bezala. P. Urkizu, Lukács eta Sartre-ra arte heltzen zen, baina ordurako Northrop Frye-ren aburuak ere aski ezagunak ziren. Horregatik, azken lotura gabe, atzeraegi gelditzen zen Urkizuren liburua, argitaratu zen garai bertan.

Gauzak ondo egitea beti da nekeza. Hala ere, emaitza onik badakarki Ibonen liburuak.

J. S. M.



MITXELENAREN lan hautatuak. Idazlanen aukera, oharrak, iruzkinak, Patxi Altunak eginak. Eraskina liburu honi Mitxelenak berak ezarria. Etor. Bilbao, 1972.

Mitxelenaren lan hautatuak izeneko bilduma hau, azken orduan egileak liburu honi ipini dion eraskina ezik, aldizkarietan argitaratu-

tutako Inaak dira, eta batez ere EGAN aldizkari honetan argitaratuak. Sakabanaturik zituen artikulua, txosten, kritika eta abar, liburu batean bildurik jartzean, Patxi Altunari esker, begien aurrean jartzen digu gure egunhotan euskal literaturan asma ditekian liburuak abe-ratsena. Euskara ikasteko ez-eguzik, tradizio eta egungo kultura gai ezaugarrien bilduma aspergaitza da. Gainera, bere hizkuntzaren az-terketa jakingarri bat egiten dio Altunak liburuaren lehen parteari.


Ez gara hemen sartuko aburu zehatzik ematera, zenbait aldizka-ritan zenbait idazlek emanak dituzte, nik eman nezazkean baino ho-beak. Irakurri ditugun aipagarrien arteko aipagarrienetako bat La-rresorok «Zeruko Argia»ren 484 zenbakian (1972ko ekainaren 11koa) izango da noski.

Honela zatitzen dira liburuaren parteak: Orri azpiko oharrez hornituriko idazlanak (P. Altunaren oharrez), txostenak, elkar hiz-ketak, gure klasikoak, saioak, hil ondokoak, hitzaurreak, filmak, eta liburuaren iritziak.

Liburu honek, egilearen jakituria bere zabalera eta sakonera gu-zian adiarazten digu, aparteko nabarmentasunez agerrarazi ere. Bere emaitza aberatsak, batez ere egungo pentsaeraren mundutik begira-tuaz, euskal literatura mailaz gora darama.

Altunaren hitzaurre labur bat du 404 orrialde dituen liburu mar-dul honek.

J. S. M.



Onaindia-ren Euskal Literatura Liburua

XX-garren mendeko idazleak azaltzen ditu ONAINDIA-k, II-garren liburu hortan, Bizkaikotik asirik eta Lapurdi, BaxeNabarre, Ziberco, Gipuzkoa eta Nafarroa aipatuz, bai eta Araba ere. Bizkaian aipagarriena, MOGEL da lehenbizikoa; *Juan-Antonio* idazle nagusia, bere illoba *Jose* (hala argiago izena *Juan-Jose* baiño, *Juan-Antonio* izenarekin ez nahastekatzeko) eta *Bizenta* baino bi maila gorakoa segurki, idazle gisa, bai eta adimenaren aldetik. Eztugu uste, beraz, *irurok berdin aberats* izan zirela, autoreak dion bezala.

Juan-Antonio, jende letradun eta argiekin *gurutzatu* zen, *Humboldt*, *Vargas Ponce*, *Astarloa* eta beste. Medikuen familiakoa zen, Eibarren jaioa, bertako sendakinaren semea; gero, Deba eta Markinara aldatuak, azken iri huntan pasatu zituen bere urte geienak.

Baina, bere adimen-dohai guztiez lagundurik, PERU ABARKA nobela idatzi zuen; eta hala gelditu da, gure literatur guztian idatzi den liburu ederrenetariko bat; ez bakarrik izkuntza biziaren alde-tik, bi giza-eredu edo *tipo* pintatu zituelakotz baizik. Euskalherrian bizi-bizirik dauzkagun bi ikusmolde eta izpiritu moeta azaltzen dira; bata, *Peru* baserritarra, euskaldun garbia, prestua eta elizkoia, euskera errotik dakiena; bestea *Maisu Joan* barberoa, euskera zirti-zarta, nola nai erabiltzen duena, umoretsua, izpiritu zabalekoa, azolagabe eta jostetak eta mahai ona maite dituen.

Irakurle jendeak, Peru-ren aldera botatzen oi du begia, prestutasunaren karietara, baina uste dut autoreak maiteki azaltzen dituela Maisu Joanen barrabaskeriak, eta begikoagoa egiten duela, bera lotsagabekeriaren artean, Peru zintzo eta zuhurra baino; nik beintzat hala uste. Gero ere MOGEL-ek euskaraz baditu, latin-autoreetatik itzulitako zatiak, *Quinto Curcio*, *Salustio*, *Tito Livio* eta *Ciceron*-etik batik bat.

CONFESIO eta COMUNIOCO izena duen liburu bat bezalako elizako liburu jatorrak baditu, bai eta erdaraz... *Cartas y documentos sobre la lengua Vascongada... La Historia y la Geografía de España...* deituak. Baina aberatsena eta ernagarriena PERU ABARCA da, euskaldunen oitura, atsotitz, kanta; eta lantegi eta oletako tresnen izenak dakartziena. Mogeltarrek Alfaro-n zuten jatorria, bai eta iudu odol tanta batzu baomen ziren Mogel-en famelian.

Beste idazle bat, Frai BARTOLOME de Markinak, idazle bezala liburu atsegin bat utzi digu, EUSKALERRIETACO OLGETA eta DANTZAK; bertan, jai, dantzen eta gazteen billera bihurriak astintzen ditu, naiko gatzarekin, eta bidenabar, ahoan bilorik gabe, orduko oitura atrebituak azaltzen dizkigu txairoki.

Beste idazle jator bat ere aipatzen du liburuak, Bonifazio LATXA, Ubidekoa, jostirudi edo komedia farregarri baten egilea; *TODOS ERRIBATECOS* izena duenak, Arratia-ko gazte alai eta burrunbatsuen arteko elkarizketa eta amodio-kontuak dakartzi. Ezdu euskerak kanpora bere burua aterako eta ez altxatuko, halako komedia jostagarria jokatzeko milizkeriak badabilta antzerki Taldeak. Erdaratiko eleak sartuarren, gaia umorez erabiltzen, gizona da LATXA.

* * *

Lapurdi, Nafar eta Ziberokoen artean, ETXAHUN sartu du biltzaleak arrazoinekin; bizitza erdiragarria eraman zuen ziborotarrak, etxekoen-gandik persegitua, emaztiak tronpatua eta presondegian 5 urtez usteltzen egona, etxekoen erruz. Hunek bertsoetan, bere zorigaitzak kondatzen ditu, eraberik batere gabe, eta bere etsaiari, apezak ere barkatu gabe, olerki minkor eta ausartak kantatu zien.

Idazleen artean Francisque MICHEL aipatzen du, baina hau etzen euskal izkiriazaile izan, kanten eta obren biltzailea baizik. *POESIES POPULAIRES* deitzen den bere sail bat, erdaraz guk argitaratu genuen, euskara ere xuxen ezarriz, *POESIAS populares de los Vascos* izenburuarekin.

CHAHO, ziberotar idazle famatu bat izan zen, Zumalakarregiren aldera pasatua (hura agnostikoa zen) eta beraren omenez liburu romantiko bat idatzi zuena, *VOYAGE en NAVARRE pendant l'insurrection des Basques* (1836) deitua: euskal kantak ere bildu zituen,

eta besten artean *Biarritz* liburua utzi digu, euskal oiturez eta berriez betea.

* * *

Bruno ECHENIQUE idazlea, lapurtarren artean sartzen du Onaindiak, baina nafarra izan zen, Urdazubikoa, Elizondon bizi-tua. Prinzipe Bonaparterendako franko idatzi zuen, eta harek asko estimatu, Echenique-k itzulpenak xuxen egiten ziozkalako, fantasia-rik batere gabe; gizon letraduna zen eta ikasia.

BONAPARTE bera ere sartzen du autoreak, euskal liburuxka eta itzulpen asko eginarazi bai zituen, diruketa aundiak xahutuz horretarako. Hala ere, euskaldunak eskerrotx agertu dira beti, izkuntzari jakintsua izan zenaren alde, bihotzez *euskalduna* zela aitortu arren bere izkribuetan. Zer ttipikeria!

Franzisko LAPITZE ere sail hortan sartu du, baina Arizkun-Baztangoa da idazle aundi hori sortzez, bere aitzinaldeko aitona eta arrebak bezala. *Bi saindu eskualdunen bizia* liburua idatzi zuen, euskara eder eta atsegin batez moldatua, nobela bat iduri. Xabier eta Inazioren biografia hori, literatur eredu bezala gelditu da, historia aldetik noizpait irristatzen bada ere.

DUVOISIN kapitaina ere aipatzen du, BIBLIA osoa euskeratu (ederki) zuelako Bonaparteren bizkar; *Laborantzako liburua*, Euskara-frantzes *Iztegia* eta beste euskal izkribu parrasta baten artean.

Larralde, David eta *Guilbeau*, olerkari onak izan ziren (irtak medikuak) eta *Elissamburu* saratarra, grenadieren kapitaina, euskal olerkari guztien arteko oberenetarik bat izan zena, aipaturik daude; *Nere etxea —Maria— Lehen eta orai* diralakoen egillea, azken aipatua.

Gipuzkoarren artean, J. Batista AGIRRE, giputz-euskeraz izan den idazlerik lorde-nena eta garbiena; *Echagaray, Iturriaga*, bai eta Gaspar JAUREGUI —*Arzaia*— deitu gudulari famatua, Frantzes-tean *Espoz y Mina*-ren meneko egon arren, euskerazalea ere izan zen, eta izpirituz liberala. Kristina erreginari, «*Don Gaspar de JAU-REGUIC bere anai euskaldunei zortzicoetan*», 12 bertuko poema bat dedikatu zion.

Arabarren artean —Jose Paulo ULIBARRI— aipatuko dugu, II-garren liburu hortatik, aitzindari bat izan zelako— *Gabon kantak— Egunariak*— 1815 urterako idatzirik, bai eta GUTUN LIBURUA

bereziki, jende sonatuen euskal kartak ekartzen dituen; bai eta bere emazte Mari Papatxori, amodiozko lerro gordin eta ausartak.

Nafarren artean, LIZARRAGA Elkanokoaren URTECO IGANDE GUZTIETARACO, 1846 urteko liburua aipatzen du Onaindiak, baina Lizarragaren euskaratik guti da hor, Donostiako argitarazai-leak, giputz-aldaketa asko sartu dituelako. Bere euskara mamitsua iastatzeko, haren 10 eskuzkribu lodien orrialdetan sartu behar da bat, imprimatu gabe daudelako.

Luzaideko BORDDEL olerkaria aipatu behar da, hainbeste gergen koblak utzi bai zituen; Donostian, 1823 urtean preso pasatutako izigarrikerienak; *Karlisten kantiak* izenekoak, bera liberalen aldekoa izan zelako.

MENDIGACHA Bidankozekoak, 35 uskal karta pitxiak utzi dizkigu; Bonaparten eta Azkueren lankidea izan zen.

* * *

Duela zenbait ilabete Literatur honen lehen Tomoa agertu zen; huntan Erdi-Aroko kobla zaharrak sartzen dira, eta XVI-XVII-XVIII garren mendetako autoreak.

XVI g. mendean, DECHEPARE (forma hau *Etxepare* baino eza-gunago da, eta hala ezta deitura huntako beste bi idazleekin nahastekatzan), ETCHEGARAY, Pastural baten egile garaztarra, eta SANCHE de ELSO nafarra aipatzen ditu. Azken hau, euskara-erdarazko Dotrina baten egilea izan zen, baina ezta liburuxka hau batere eza-gun.

Pedro de MADARIAGA izkiriazale bizkaitarraren itzak, euskera laudatzen, diren bezala obe erdaraz, indar geiago dutelako. QUEVEDO-ren 17 lerroak ere (Visita de los chistes) lerdengo gelditu izango ziran itzulikatu gabe; inglesekin eta alemanekin ere, arrotzen aipamenak, hauen izkuntza berean uzten dituzten bezala.

XVII g. mendeko AXULAR aldia, nasaiki aipatzen du ONAINDIAK, behar den bezala. Ioan de BERIAYN nafar euskal idazlearen berri geiago badira; *Nuevos documentos para el estudio del Vasconce navarro-meridional*, Iruñeko IV gn. SYMPOSIUM delako nere artikuloan agertuak; bai eta FONTES LING. VASCONUM 2 g. numeroan.

Bidasoko Iparraldean Ioanes ETCHEBERRI, Pierre DURTE, CHURIO, HARANEDER... irakurtzen al ditugu I Tomo hortan;


eta nafarren artean, MIKELESTORENA eta ELIZALDE, APECEN-DACO Dotrina christiana-ren egilea (ez ELEIZALDE).

Bi Tomo horietan, ONAINDIAK giputz-euskera erabiltzen du (bera bizkaitarra izanik eta batasun aldera indar bat eginez), baina oraingo batzuek egiten duten baino aise ulerterrezago.

Izkuntza garbia eta jatorra du, baino ez garbizale. Texto zaharrak leialki kopiatzen ditu, itzen aldaketarik gabe. Arrotzizen eta tituloak zehatz aski ematen ditu, bere ortografia propioan. Huts batzu haatik, uste gabe itzuri dira; ...Francisque MIXEL (MICHEL), TXIKAGO (CHICAGO), FELIPE UGARTEETAKO nausia (...FILIPIN-ISLAK adiarazteko), eta halako. Bai eta euskal izen zenbait ere; AMIKU-TZE-GARATZI (-Z- txoila behar zelarik).

Baina horiek ttipikeriak dira; eta aditzera eman nai dugu, obran aipatu Autoreen ugaritasun eta zehaztasuna. Izketaren aldetik ere, Liburu guztiz atsegin eta ulerterrez bat dela. Irakurle asko izanen duela espero dugu.

A. IRIGARAY.



1973 URTEKO OSPATZEAK

Hor beste nonbait ere esana dudan bezala, urteburuak ospatzean, arrazoi berdintsuekin ere, batzuek beste batzuk baino suerte hobea izaten dute: norbait oroitu delako, inor oroitu ez delako, edo bitartekoren bat oroitza lokarri izan delako. Une politikoak ere bere aldia jokatzan du, noski. Eta mundu zabalean horrela delarik, gure txikia-go hontan ezinezkoa zen bestera izatea.

Aurten, euskal literaren inguan saiatu zirenei eskainitako oroimenak eta inongo oroitarik gabe ilunpean gelditu direnen izenak eta bere lanak gogorazi nahi ditugu.

PEDRO MIGEL URRUZUNO

Aurtengo urtarrilean ospatu ziren Elgoibarren, bere heriotzaren berrogetahamar urteburua zalako, P. M. Urruzunoren gorasarrezko jaialdiak. Urruzuno, euskal literaturan idazlerik humoretsuenetakoa zen eta bere garaiko aldizkariak alaitu zituen ipuiez eta iskirimiriz. Bere heriotza ondorean, *Ipuiak* izenezko bilduma bat argitaratu zen (1930) han-hemendik bildutako ipuiez eta bertsoz; baina gure adinekoeri, eta gaurko gazteeri batez ere, idazle honen humore dohainak ezagutarazi dituen Auspoa Liburutegia izan da, bere lau bildumakin: *Euskalerritik zerura* (1961), *Ur-zale baten ipuinak* (1965), *Iru ziri* (1965) eta *Sasiletrau baten ziria, ta abar* (1973).

Astebetetz izan ziren Elgoibarren hitzaldi eta jaialdiak, eta asken egunez, urtarrilaren 28an, Euskaltzaindiaren batzar irekia zelebratu zen, hiru hitzaldi laburrekin. A. Arrue, A. Zavala eta J. Azpeitia izan ziren hizlari.

JOAN BATISTA GAMIZ

Gamiz arabarraren berrehungarren urtea ospatu da. Apirilaren 27an batzartu zen Euskaltzaindia Gasteizen eta J. Goikoetxea Maiza eta H. Knörr mintzatu ziren, bere bizitza, euskal idazle, olerkari eta erabili zuen hizkuntzaren alderdiak aztertuz. Eta 29 an, Euskaltzaindikoak eta Arabako agintariak bildu ziren Sabando, bere jaioterrian, orit-harri bat jarri zen eta Joan Goikoetxea Maiza jaunak berebiziko hitzaldi polita egin zuen, euskaraz eta erdaraz.

Lehen ere, arabar idazle hau, Goikoetxea Maiza-gandik ezagutzen dugu gehien bat EGAN aldizkari honen 1968 alean (Vol. XXVII, 3/5 orr.) eman zituen gerrietatik.

EUSEBIO M.^a AZKUE BARRUNDIA

Eusebio M.^a Azkue zenak merezimendurik aski zuen *Parnasora-ko Bidea*-ren egilea zen aldetik (1896). Baina, egia esan, haren seme Resurrekzioni esker argitaratu zen olerki bilduna hura, egilearen heriotzetik hogeitahiru urte iragan eta gero. Izan ere, hiztegi, morfologia eta beste lan askoren egile, herri kanta, ipuin, jolas eta abarren biltzaila aipagarriaren aita izateak badu bere itzala; eta ahantzi ezinezkoa genuen. Eta, berriz ere Euskaltzaindia dugu bere oroitzura gure oroitzapenera dakarkiguna eta azaroaren 11an egiten dio Lekeition, heriotzako ehunurteburua ospatze gorasareta. Lekeitiar euskaltzain jatorra mintzatu zen Eusebio Maria Azkue-ren bizitza eta idazlaneri buruz, bere hitzaldia euskaltzain sarrerakoa eginaz eta aspaldiko Juan Gorostiaga adiskidea ongi-etorria emanez.

LUIS ELEIZALDE

Merezimendu guttikoa ez bazen ere, nonbait ahantzia utzi dugu L. Eleizalde. Oker ez banago, bergaraar honen sortzea 1873.ean izan zen. Goimailako ikaskintzak egina zen, lehen Morfologia labur baten egilea (1913), eta beste zenbait gauzaren artean toki izenen bilduma jakingarri batena ere bai, eta Euskaltzaindiaren sortaileetako bat. Egia esan, Donostian, 1969.eko irailaren 21ean, Euskaltzaindiaren urre ezteiak ospatzeko egin ziren hitzaldietako bat beroni buruz izan zen, Luis Mitxelena hizlari zelarik (*Euskera*, XVI, 73/76 orrietan argitaratu zen hitzaldi haren laburpena).

J. B. Etxagaray donostiarraren jaiotzako berrehun urteak ere aurren betetzen dira (1773-1855). Haren kanta batek hau aitortzen digu:

*Festarik behar bada,
bego Donostia.
Betikoa du fama
ondo merezia.*

*Bestetan ez bezala
hemen gazteria
amaren sabeletik
dator ikasia.*

Baina donostiarrok ez digute yayotasun hori erakutsi; edo badi-rudi, hainbeste Eguberri kanta eta Ihauteri kantaren egileaz ahaztu-rik daudela. Haren nortasunaz jabetzeko «Auskoa» argitaldaria at-
ra zuen 35-36 zenbakia eskuratu beharra dugu. Ezaupide ahu ezta inorentzat damugarri izanen.

FR. JOSE KRUZ ETXEBERRIA

Azkenik, nire ustez guztietan ahantziena, Fr. José Kruz Etxe-berria oihartzuarra da (1773-1853). Bera sortzearen berrehun urteak bete dira. Bere garaian, ez dakigu zergatik, Fr. Juan Mateo Zabala-k bere *Noticia de las obras bascongadas* bibliografia lanean sarrera emateko gogorik ez bazuen ere, guk ez genioke muxinik egingo. Etxeberriak, Salesko Frantziskoaren *Deboziozko bizitarako sarrera* (1821) argi-taratu zuen, eta beste zenbait elizliburu: *Kristau Dotriña Euskaraz* (1822), *Ongi bizitzeko ta ongi iltzeko laguntza* (1924), *Kempis-en Jesusen Imitazioa* (1829). Horietako batzuek zenbait argitaraldi eza-gutu zituzten (lehendabizikoak sei guttienez, aita Villasantek bere *Historia de la Literatura Vasca*-n dionez). Euskara arruntean idazten zuen, eta horregatik nonbait ez zuen beste batzuen hainako ospea izan; baina, hala ere, harrigarria da hain ahaztua izatea. Merezimen-du guttiago dutenen izenean, herriz-herri hainbeste euskal jai anto-latu baita.

JUAN SAN MARTIN.

PUBLICACIONES

DE LA

REAL SOCIEDAD VASCONGADA

DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)

MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PENAFLO-RIDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR, por M. Ciri-quaiain-Galztarro. (Agotado.)

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SO-CIEDAD VASCONGADA, por José Ma-ría de Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñi-ga y Churruca.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA META-LURGIA A FINES DEL SIGLO XVIII, por Manuel Laborde.

EL REAL SEMINARIO DE VERGARA EN LA HISTORIA DE LAS ESCUE-LAS DE INGENIEROS INDUSTRIA-LES DE ESPAÑA, por Manuel Laborde.

LA VIDA Y LA OBRA DEL CONDE DE PENAFLO-RIDA, por el Prof. Dr. Lean-dro Silván.

BIBLIOGRAFIA DE LA REAL SOCIE-DAD VASCONGADA DE LOS AMI-GOS DEL PAIS EN EL SIGLO XVIII, por Francisco Aguilar Pifial.

FILIACION DE LOS SEMINARISTAS DEL REAL SEMINARIO PATRIOTI-CO BASCONGADO Y DE NOBLES DE VERGARA, por Julián Martínez Ruiz.

LAS CIENCIAS NATURALES Y LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAIS EN EL SI-GLO XVIII, por Julián Martínez Ruiz.

REVISTAS

Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País:

| | |
|------------------------------|----------|
| Ejemplar suelto | 75 Ptas. |
| Ejemplar suelto (extranjero) | 125 " |
| Suscripción anual (España) | 250 " |
| Suscrip. anual (extranjero) | 400 " |

Egan: Ejemplar suelto 50 "
Suscripción anual 90 "

Munibe, Revista de Ciencias Naturales:
Número suelto socios 100 Ptas.
Número suelto no socios 150 "

Redacción y Administración: Museo de San Telmo
SAN SEBASTIAN

